



UDAREN ATARIAN, BAINU LEKUA GERTU ETA FRESKATZEKO GOGOZ

Igerilekuetan, ur parkeetan
eta erreketan, bainu
denboraldia hasi dute herri
gehienetan / 6

Oñatiko ur uhinen
parkean,
Ugarkaldeko
txorroetan,
neska-mutikoak
jolasean aurtengo
ekainean.

IMANOL SORIANO





Bihar eratuko dituzte udalbatza berriak

Gorka Artola eta Iزارo Elorza Bergarako eta Oñatiko alkateek kargua estreinatuko dute; beste sei herrietako alkateek errepikatu egingo dute / 4



ARRASATEKO JAIK / 23

SINADURAK

 BEÑARDO KORTABARRIA / 8	 PEDRO GARITANO / 47
 ION LIZARAZU / 45	 AGURNE BARRUSO / 64

Guardia Zibilaren Oñatiko kuartela hustu eta herritarrei uzteko eskaria bihar, Jare Kuartela Egunean / 51

AHTaren lanen kalteen ondorioz Aramaioko hainbat baserri borrokan, lanak hasi eta hamar urtera / 20

Koldo Martinez: "Gobernu aurrerakoi, plural eta egonkorren alde egingo dugu Nafarroan" / 9

puntua

Aitor Fernandez futbol atezainari elkarrizketa

Beste basogintza eredu baten alde, Debagoienera

ALKIDEBA
SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

MAKINERIA ALOKAIRUA ERAIKUNTZARAKO ETA INDUSTRIARAKO

Maltzaga - Sorluze errepidea.
Tel.: 943 75 15 54 • Sorluze (Gipuzkoa)

Goitondo Industriagunea, 3. pabilioia
Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)


administracion@alkideba.net
Baskibaloi taldearen babeslea

OINTXE!



Alkate kargua hartzean, zer sentitzen da?

Bihar, zapatua, eratuko dituzte Debagoieneko udalbatzak –Gatzagan ez–, eta, horren harira, alkate izandako zenbaiten ahotsak jaso ditu GOIENAK, kargua hartu zuten egunaz gain, alkatetzako urteak nola bizi izan zituzten jakiteko asmoz



PEDRO ITURBE
ANTZUOLAKO ALKATE 2007TIK
2011RA (EAE-ANV)

"Alde humanoarekin geratzen naiz"

"Gogoratzen dut osoko bilkura amaitu eta gero ez genuela alkatetzara ospatu, kuadrillako bikote baten ezkontza baizik. Ekitaldia bukatu bezain pronto, korrika atera ginen udaletxetik.

Testuingurua konplikatu zen. Gu EAE-ANV siglekin aurkeztu ginen, eta herri batzuetan aurkezteko aukera izan genuen; beste batzuetan, ez. Proiektu polit bat genuen, eta herritarrek konfiantza erakutsi ziguten.

Udala oso finantza egoera prekarioan jaso genuen, eta finantziario plan bat adostu genuen Aldundiarekin. Genituen baliabide ekonomiko gutxi horiekin, aterpe bat eta igogailua egin genituen eskolan, futbol zelaia berritu genituen, base-errietako ur sarearen hasiera, eta abar.

Horretaz guztiaz gain, luzera begira, alde humanoarekin geratzen naiz. Alkatetzak aukera ematen du egunerokoan harremanik ez daukazu jende asko ezagutzeko, eta harremanak sendotzeko. Politikak izan ziren alkatetzako lau urteak".

MERTXE MONDRAGON
ARAMAIOKO ALKATE 2003TIK
2007RA (EAJ)

"Oposiziorik gabeko agintaldia izan zen gurea"

"Tentsio handiko garaiak ziren. Gurekin batera Hamalau plataforma ere aurkeztu zen, baina legez kanpo utzi zuten. Hori zela eta, tentsioz beteriko giroa zegoen herrian. Hala ere, ekitaldia bera nahiko ondo joan zen, lasaiago.

Oposiziorik gabeko agintaldia izan zen, Hamalau plataforma legez kanpo utzi zutelako, eta bederatzi zinegotziak gureak izan ziren agintaldi hartan.

Udalean sartu ginenean, dirurik ez zegoen. Aurrekoek ez ziguten ezer utzi. Beraz, urtebete behar izan genuen errekupe-ratzeko, eta gero, ondo lan egin ahal izan genuen. Apurka, proiektuak finkatzen hasi ginen.

Arabako Foru Aldundian PP zegoen agintean, eta oso zaila egin zitzaigun lan egitea. Departamentu gehienetako ordezkariak Aramaio non zegoen ere ez zekiten, eta kosta egin zitzaigun proiektuak aurrera eramatea. Azkenean, departamentu batekin harreman ona egin genuen eta horri esker proiektu asko egin ahal izan genituen".



ARRITXU OLIDEN
ARETXABALETAKO ALKATE 2003TIK
2007RA (EAJ)

"Ordura arte ikusi gabeko giroa zegoen garai hartan"

"Ezker abertzalea legez kanpo utzi zuten garai hartan, eta ekitaldia nahiko gogorra izan zen, presioz jositakoa. Euren haserrearen erdian hartu nuen kargua. Jende asko sartu zen osoko bilkuren aretoan, eta guztiak garrasika egon ziren. Tentsio handia egon zen egun hartan.

Ezker abertzalea legez kanpo utzi izanaz gain, Aralar sortu berriaren hauteskundeetara aurkeztu zen lehen aldia zen eta ez genekien ze babes izango zuten. Ordura arte ikusi gabeko giroa zegoen. Egoera berria zen, eta inork ez zekien ondo zeren aurrean geunden.

Hala ere, alkatetzaren oroitzen onak ditut. Oso aberatsak izan ziren lau urteak. Momentu txarrak ere izan genituen, baina denetik ikasten da. Jende asko ezagutzeaz gain, gauza asko egiteko aukera izan nuen, eta lortu genuenarekin geratzen naiz. Arkupe kultura etxea, kiroldegi berria egiteko lehen proiektua, zaharren egoitza egiteko proiektuaren onarpena, eta abar".



Arrasateko udalbatza eratu zeneko osoko bilkura, 2011n. GOIENA



EAJko zerrendakideak, 1991n, eta erdian Angel Iturbe. A.I.

INAZIO AZKARRAGA-URIZAR
ARRASATEKO ALKATE 2011TIK
2015ERA (BILDU)

"Urduritasun handiarekin hartu nuen alkatetzara"

"Emozioz eta ilusioz beteriko eguna izan zen, baina, era berean, urduritasun handia neukala gogoratzen dut. Izan ere, niretzako, dena berria izan zen, lehen esperientzia zelako udal batean, eta, gainera, alkate moduan. Ekitaldia ondo joan zen, inongo arazorik gabe, baina ni oso urduri nengoen. Familiaren babesa eduki nuen, eta ostean haiekin bazkaldu nuen, emaztearekin eta seme-alabekin.

Denbora gutxi eduki nuen kanpaina prestatzeko, erabakia hartu eta berehala izan zelako; gainera etorri zitzaidan. Ez nengoen ohituta gauza horiekin, eta kanpaina gogorra egin zitzaidan.

Aberasgarria izan zen alkatetzara. Jende asko ezagutzeko aukera izan nuen eta lantalde ona izan genuen, baina gogorra ere izan zen. Gertakari ekonomikoak jositako egon zen agintaldi guztia. Krisi ekonomikoaren garaia izan zen, Rajoyren Gobernuak ere murrizketa handiak egin zituen administrazioan, eta Fagor kasua ere bizi izan genuen".



AGURTE BARRUSO
BERGARAKO ALKATE 2007TIK
2011RA (EAE-ANV)

"Herritarren laguntza handia eduki genuen"

"Sentimendu nahasiak izan nituen egun hartan. Batetik, poza eta emozioa, baina errespetua eta beldur puntu bat ere bai, bestetik. Hala ere, egun polit bat daukat akorduan. Nire kasuan, adibidez, Victoriano Gallastegi ez zen etorri, eta ez zidan aginte aldaketan eskuz aldatu ohi den zumezko uztaia eman. Kargu aldaketa falta izan zen.

Ostean, 100 pertsonatik gora batu ginen bazkaltzeko, hauteskunde kanpaina eta gainontzeko lanetan ibili zen jende guztia.

Sorpresa handia hartu genuen irabazita, ez genuen espero. Nire planetan ez zen sartzen lana uztea alkate izateko.

Lau urte on izan ziren niretzako. Aukera eman zidan bestela inoiz ezagutuko ez nukeen bergarar askorekin harreman on asko egiteko. Bestalde, herritarren partetik laguntza handia jaso genuen. Bitxikeria moduan, emakumezko lehen alkatea izanik, gizonezko bati konstatuko ez lioketen gauzak konstatzen zizkidaten herritarrek".



J.M. Villar eta Edorta Zubizarreta. E.Z.



Bergarako udalbatza eratu zeneko osoko bilkura, 2007an. GOIENA



Aretxabaletako udalbatza eratu zeneko osoko bilkura, 2003an. MIRARI ALTUBE



Aramaioko udalbatza osatu zeneko osoko bilkura, 2003an. GOIENA



Elgetako udalbatza, 2011-2015. GOIENA



Antzuolako udalbatza, 2007-2011 agintaldian. GOIENA

OXEL EROSTARBEELGETAKO ALKATE 2007TIK
2015ERA (ARALAR)**"Alkatetza ardura handia zen; talde gaztea genuen"**

"Alkatetza ardura handia zen, gure taldea gaztea zen eta. Gogoratzen naiz Jabier Arantzetaz gogoratu nintzela alkatetza hartu osteko lehenengo hitzetan, berak eman zidan eta zerrendan lehenengo joateko bultzada.

Krisi ekonomiko garaia zen, eta Elgetako Udalean euro bat sobera izan den garairik nik ez dut hamabi urtean ezagutu. ANVrekin osatu genuen Udal Gobernu, eta erabaki zailak hartu behar izan genituen; tartean, aparejadore zerbitzuarena.

Hala ere, hainbat ate jo ostean, dirulaguntzak lortu genituen proiektu ezberdinak aurrera eramateko: Salbador kalea oinezkoentzako egokitu, Haur Eskola eta ludoteka berriak, eskolako inguruaren berritzea, kiroldegiko jolas parkea, Intxor-tako proiektua...

Bestalde, Bergara eta Eibarrekin lotzeko lortu genuen garraio zerbitzua. Hala ere, gure lorpen handiena izan zen jakin genuela bai EAJrekin eta bai Bildurekin akordioetara iristen".



EDORTA ZUBIZARRETA
ESKORIATZAKO ALKATE 1999TIK
2003RA (EUSKAL HERRITARROK)

"Nire aita gogoan izan nuen momentu hartan, emozioz"

"Ez genuen irabazterik espero, eta sorpresa handia izan zen. Gogoratzen naiz ilusioz hartu nuela kargua. Lehenengo aldia zen Eskoriatzan ezker abertzaleak alkatetza hartuko zuena eta gogo geneukan erakusteko gai izango ginela herria aurrera ateratzeko. Nire aita hilda zegoen. Zinegotzi izana zen, eta gogoan izan nuen momentu hartan, emozioz. Gero, ohiturari jarraituz, kargua utzi zutenak eta kargua hartu genuenok elkarrekin bazkaltzera joan ginen.

Lan askoko urteak izan ziren. Bereziki, azpimarratzekoa iruditzen zait zinegotzi guztien artean banatu genituela lanak. Batzordeak guztion artean banatu genituen, eta lorpenik handiena elkarlan hori izan zen.

Udaletxeko eraikina zahartuta zegoen, eta berri egin genuen. Horrez gain, biblioteka berria ere egin genuen, Osakidetzarekin hitzarmen bat lortu genuen anbulatorio berria egiteko, Ibarraundi museoa martxan jarri genuen, Santa Marinako plana...".

ANGEL ITURBEOÑATIKO ALKATE 1991TIK 2003RA
(EAJ)**"Ikaragarriko zorpetzea izan genuen lehen urteetan"**

"Lau urtez zinegotzi izan nintzen aurrez. Beraz, normaltasunez hartu nuen alkate kargua. Hori bai, momentu hartan sentitu nuen maite dudana herriagatik lan egiteko poza eta ilusioa.

Pena batekin geratu nintzen. Zerrendetan ezin izan genuen nik gura beste emakume sartu, bi bakarrik. Gaur egun, pozik nago normaltasunez hainbeste emakume dabilzalako halako parte-hartze aktiboarekin.

Lehen urteak oso gogorrak izan ziren ekonomikoki. Elektrizitatea sortzeko Oñatiko Ur Jauziak enpresa erosi genuen, eta han egin genituen berrikuntzak egin ahal izateko kreditu bat behar izan genuen. Ikaragarriko zorpetzea eduki genuen, baina, gerora, herrirako energia sortzeaz gain, ingurugiroa garbi mantentzen lagundu du, eta hori oso inportantea da.

Alkate nintzen garaian hainbat senidetze egin genituen. Besteak beste, Saharako Gleibat El Fula, Argentinako Jose C. Paz, Mexikoko Zacatecas eta Guadalajara.



UDAL EUSKALTEGIAK
euskal Hiztegia

UDAN
ERE
EUSKARA
ZURE
BIZITZAN!

18/19
Matrikula epea zabalik

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

www.udaleuskaltegiak.eus



Elena Lete, Bergarako udaletzeko balkoian; eta Mikel Biain, Oñatiko udaletxearen atarian. GOIENA

Zortzitik bik ez dute jarraituko alkatetzan

Bergarako alkate Elena Letek eta Oñatiko alkate Mikel Biainek ez dute jarraituko alkatetzan; gainontzeko sei herrietan aldaketarik ez da izango. Alkate moduan izandako esperientziaz eta aurrerantzean dituzten planez mintzatu dira biak

Amaia Zabala Tolosa DEBAGOIENA
Zortzi urtez izan da Mikel Biain Oñatiko alkate; Elena Letek, aldiz, hiru urte eta erdi eman ditu Bergarako alkatetzan. Bi hauek dira, hasiera batean, behintzat, bihurtik aurrera kargua utziko duten egungo alkate bakarrak. Ez dute arloz aldatuko, ordea, biek jarraituko baitute politikan: Biain Gizpukoa-

ko Batzar Nagusietako buru izango da eta Letek Bergarako udalbatzako kide izaten jarraituko du, oposizioan. Biek diote euren herrietako alkate izatea ohorea izan dela, baita esperientzia aberasgarria ere, eta pertsona moduan "asko" hazi dituela. Horretaz gain, herritarrekin izandako harreman zuzena azpimarratu dute bi alkateek.

Alkate izandako zortzi urte horien balorazio bat egiteko eskatuta, berriz, hauxe dio Biainek: "Nik uste dut gauza asko aldatu ditugula, ausartak izan garela aldaketen proposamenak aurrera eramateko unean. Lerro ideologiko batzuetan oinarritu gara herri hobe bat eraikitze bide horretan eta esango nuke nahiko koherenteak izan

garela; ingurumen, hezkuntza eta mugikortasunaren alorretan esaterako. Gure esku dagoen guztia egin dugu herri atsegina eta bizigarriagoa izan dadin Oñati".

Letek, berriz, honela baloratu du agintaldia: "Lan asko egin dugu eta oso bizia izan da, oso balorazio ona egiten dugu. Interes orokorrari erantzuna eman diogu eta, gainera, ilusioz eta konbentzimendu osoarekin eman dugu. Egin behar genuela uste genuena egin dugu eta beti herriaren aldeko apustua egin dugu".

Alkate izatearen onena

Alkate izatearen onena zer izan den galdetuta, berriz, hauxe dio Letek: "Alkatetza hartu nuenean 2016ko urtarrilaren 18an esan nuen ohore bat zela nire herriko alkate izatea eta egunero-egunero horrela bizi izan dut hiru urte luze hauetan. Herriarekin eta bertako eragile eta talde ezberdinekin harreman asko sortzen direla. Horretaz gain, pertsona moduan ere hazten zara, bizitzako esperientzia bat da".

Horretan bat dator Biain ere, herritarrekiko gertutasuna eta horrek eman dion aberastasuna azpimarratu baititu: "42 urte ditut eta 8 urte egin ditut alkate moduan; beraz, nire bizitzako zati garrantzitsu bat izan da, eta oso esperientzia aberasgarria. Herria modu zabalean ezagutzeko aukera eman dit, baina, batez ere, pertsonak ezagutu ditut, adin eta jatorri askotarikoak. Horretaz gainera, herritarren arazoekin enpatia izateko aukera ere izan dut eta horrek pertsona moduan asko aberastu nauela esan beharra daukat".

Lorpen nagusia

Agintaldiaren lorpen nagusi moduan, berriz, zerbitzu publikoen alde eginiko lana aipatu du Biainek; Letek, berriz, BAZ, bergararren arreta zerbitzua.

Unerik politena

Atzegi eta Gureak erakundeek martxan jarritako *Pauso berriak* proiektuaren bitartez Udalean Markel Berrocal lanean hasi zen momentua nabarmendu du Letek, unerik politenez galdetuta.

Bianek, berriz, Eusko Ikaskuntzaren 100. urteurren ospakizuna nabarmendu du: "Ilusio handia egin zidan Euskal Herri mailako agintari instituzionalak Oñatin elkartzeak".

Politikan jarraituko dute

Alkatetzak utziko badituzte ere, biek jarraituko dute politikan. "Batzar Nagusiak nahiko erakunde ezezaguna badira ere herrietako arazo asko eztabaidatzen dira bertan, eta, beraz, nolabait, udalgintzari lotuta jarraituko dut. Nik uste dut ekarpen garrantzitsua egin dezakedala Batzar Nagusietan. Ilusio handiarekin helduko diot gainera", dio Biainek.

Letek dio oposizioan ere ilusioz egingo dutela lan: "Oposizioan beste modu batean egingo dugu lan, herriaren alde lan egiteko animoarekin eta ilusio berberarekin. Gure asmoa hauteskunderen proposatutako programa aurrera eramatea da, baina beste modu batean".

BIAIN ETA LETE BAT DATOZ, ETA DIOTE EUREN HERRIETAKO ALKATE IZATEA "OHOREA" IZAN DELA

Gure Esku-k erreferendumaren aldeko ekimena aurkeztu du Oñatin

Fase berriko bozeramaile Amalur Alvarezek eta Josu Etxaburuk azaldu zuten ekimena asteazkenean

Amaia Zabala Tolosa OÑATI
Alvarezek eta Josu Etxaburuk azaldu zuten dinamika ez dela erabakitze eskubidea aldarrikatzeko jaio, erabaki hori gauzatzeko baizik, eta orain arte egindako lana osatzera datorre-

la fase berria: "Orain arte ibili izan gara erabakitze eskubidearen inguruan hausnartzen eta eztabaidatzen; ondoren, hausnarketa bat partekatzen herriz herri estatus politikoaren inguruan; eta orain, hirugarren

erpinera jauzi egiten dugu. Hain zuzen, erreferendum bat antolatzearen ideia horretaz erabaki dezagun", dio Alvarezek.

Orain arte egindako ekintzak Gure Esku Dago-ren izenean eta hark gidatuta egin dira, baina aurrerantzean eragileak zuzenezuzenean inplikatzeko nahi dutela azaldu zuten atzo; hain zuzen, erabakitze eskubidearekiko aldeotasuna praktikara eraman dezaten nahi dutela, legezko erreferendum bat lortzeko baldintzak sortzeko asmoz.



Gure Esku-ren aurkezpena Oñatiko kultur etxean, asteazkenean. JULEN IRIONDO

Frankismoaren kontrako kereilak aurkeztuko dituzte

17 bergararren kasuak batzen dituzten 12 kereila aurkeztuko dituzte, gaur, Bergarako jarduneko udalbatza osatzen duten alderdi guztietako bozeramaileek, Bergarako epaitegian. Horrekin batera, babes-elkarretaratzea izango da epaitegi aurrean

Imanol Beloki BERGARA

Begarako jarduneko udalbatza osatzen duten alderdi guztietako bozeramaileek, Frankismoaren garaiko biktimen familiarrek, Intxorta 1937 elkarteko hainbat kidek eta Aratz Estomba abokatuak Frankismoaren kontrako kereila kriminala aurkeztuko dute gaur, 11:00etan, Bergarako epaitegian.

17 kasu, 12 kereila

Aurkeztuko duten dokumentazioak frankismo garaian gertatutako 17 bergararren kasuak batzen ditu, eta 12 dira epaitegian aurkeztuko dituzten kereilak. Hone-lan adierazi du Juan Ramon Garai

Intxorta 1937 elkarteko kideak: "Osintxuko bost pertsona fusilatuta zituzten, eta batek ihes egin. Hala, fusilatuen senide guztien artean, kereila bat aurkeztuko dute. Garai hartan desagertutako lau pertsonaren kereilak ere aurkeztuko dituzte, baita Batallon Vasco Españolen atentatuan zauritutako beste baten gainekoa ere. Hauek gain, torturatuak izan ziren bi; 1960ko hamarkadan torturak jaso zituen bergarar baten emazteak kereila aurkeztuko du, eta 1970eko hamarkadan jasotako beste tortura kasu bat ere aurkeztuko da. Emakume bat preso izan zuten eta horren gaineko kereila bat ere aurkeztuko da, eta baita Ignacio

Zubizarreta garai hartako alkatearen familiarrek jarriko dutena ere. Honako hau erbestean egon zen, Errepublikara garaian...".

Baina, horiez gain, baita Eulogio Diez 93 urteko bergararrak sartutakoa ere. Militante komunista, Frankistak herrian sartu zirenean Sobiet Batasunera erbesteratu zen eta Bergarara itzuli zenean kartzelaratua izan zen.

Begarakoaz batera, Eibarko Udalak ere aurkeztuko du kereila, gaur, Eibarko epaitegian. Eguaztenean, aldiz, Andoiango Udalak Tolosako epaitegian ere aurkeztu zuen kereila. Eta guztietan, udaletako alderdi guztien oniritziak izan da.

Apraizek lekuko bezala deklaratu du 'Bidegi kasua'-n

Errepideetako Aldundiko zuzendari ohi Luis Mari Apraiz (EAJ) arrasatearrak lekuko bezala deklaratu du *Bidegi kasua*-n, Gipuzkoako Lurralde Epaitegiak aginduta.

Gipuzkoako entzutegiaren ebazpenak ikerketa luzatu du, ustez, AP-lean egin ez diren lanengatik 30 milioi euro baino gehiagoko ordainketak egin zi-

relako. Herri akusazioaren eskari batzuei erantzunez, Arlaban-Eskoriatza obra zatian izandako gastuen inguruan galdetuko du epaileak.

Era berean, Felix Urkola (EAJ) Lazkaoko jarduneko alkate eta Kudeaketa eta Planifikazioko Aldundiko zuzendaria zena, Eneko Goia jarduneko Donostiako alkate eta Gipuzkoako Foru Aldundiko azpiegitura diputatu ohi eta baita IDOM ingeniari-tzako teknikari bat ere deitu ditu deklaratzera auzitegiak.

Lege Soziologiako Nazioarteko Kongresua Oñatin

Ekainaren 19tik 21era, biak barne, Lege Soziologiako Nazioarteko Kongresua hartuko du Oñatik. *Belaunaldiak elkar-tuz justizia globalerako* izenburua du kongresuak eta batera antolatu dute Research Committee For The Sociology Of Law (RCSL) erakundeak eta Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak, zeinek

30. urteurrena ospatuko duen. Hala, mundu osoko 300 iker-tzaile batuko dira bertan.

Oñatiko zenbait espaziotan izango dira kongresuko saioak, eta, iraungo duen hiru egunetan, etengabe eta,aldi berean, lege soziologiaren esparruan dauden hainbat gai landuko dira. Tartean egongo dira puripurian dauden gaiak, hala nola lokalismoa eta populismoa, garapen sostengarria, gutxiengo hizkuntza eskubideak eta generoa.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukakleak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS

ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Oñatiko Udalak kontratatutako urpekariak putzua ikuskatzen bainu denboraldia hasi aurretik. JULEN IRIONDO

Igerilekuak eta ur parkeak, gertu

Uda gainean da eta beroari aurre egiteko ur instalazioak prest daude Debagoieneko herrietan. Eskaintza zabala da, gainera, igerilekuak, ur parkeak eta erreka baitaude aukeran; batzuk aurreratu egin dira, baina gehienak asteburuan zabalduko dituzte

Amaia Zabala Tolosa DEBAGOIENA
Uda denboraldiari asteburu honetan emango diote hasiera Arrasaten, bihar, larunbata, irekiko baitituzte Musakola kiroldegiko kanpoko igerilekuak, eta zabalik izango dira irailaren 15era bitarte. Orduetgia 09:00etatik 21:00etara izango da.

Orduetgiak salbuespenak izango ditu, ordea, sanjuanetan, ekainaren 23an kiroldegia 19:00etan itxiko baitute eta kanpoko igerilekua berriz, 18:30ean. Horretaz gain, San Juan egunez, ekainaren 24an, kiroldegia itxita egongo da. Bestalde, aurten, urpeko arkeologia egiteko aukera izango da igerilekuan uztailean.

Bergaran, ur txorrotak eta guzti
Bergaran, berriz, gaur zabalduko dituzte Agorrosingo kanpoko igerilekuak; aurten, gainera,

berrikuntza batekin datoz, igerilekuaren alboko belargunean ur txorrotak jarri baitituzte, txikienen gozamenerako. Orduetgiari dagokionez, ekainaren 14tik irailaren 8ra 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Irailaren 9tik 13ra, berriz, arratsaldez soilik, 14:00etatik 19:25era.

Oñatin, erreka eta ur txorrotak
Oñatin ez dute kanpoko igerilekurik, baina freskatzeko aukera zabala da, Ugarkaldeko ur uhinak eta Usako erreka baitaude aukeran.

Ur uhinak martxan dira dagoeneko arratsaldeetan, eta, haurrek eskola bukatzean, ekainaren 24an, goizez ere zabalduko dituzte. Orduetgia 11:00etatik 21:00etara izango da irailaren 9ra bitarte. Orduan, berriz ere arratsaldez soilik egongo dira zabalik. Larunbat, igande eta

jaiegunetan egun osoko zerbitzua eskainiko dute.

Usako errekarari dagokionez, ekainaren 8tik irailaren 8ra 15:00etatik 20:00etara izango du sorosle zerbitzua.

Zubikoa kiroldegiaren kanpoko belardian eguzkia hartzeko gunea, berriz, maiatzaren 15ean zabaldu zuten eta uztailearen 31ra arte egongo da zabalik, abuztuaren hasieran kiroldegiko lanekin hasteko asmoa baitute. Dena den, lanak atzeratu ere atzeratu egingo luketela jakinarazi dute.

IRAILAREN ERDIA DA ITXIERA DATA; BAINA GIRO ONAK SEGITZEN BADU, URRIRA ARTE LUZATUKO DUTE EPEA

Aretxabaletan, belar-gunea

Aretxabaletan ez da bainua kanpoko hartzeko aukerarik, baina barruko igerilekuan bainatu ondoren kanpoko eguzkia hartu daiteke. Belargunea urte guztian zabalik egoten da, baina duela pare bat aste, herritarrek hala eskatuta, ipini dute etzaulki eta eguzkitakoekin erabilgarri. Kiroldegiko arduradunek jakinarazi dute urria arte luzatzeko asmoa dutela, herritarrek eskatuta. Eguzkia hartzeko gunea kiroldegiko orduetgi bera izango du: asteleheneetik ostiralera 07:00etatik 21:30era, zapatuetan 08:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara eta domeketan 09:00etatik 02:00etara.

Eskoriatzan, kanpoko igerilekua

Eskoriatzan, kanpoko igerileku txikia eta eguzkia hartzeko gunea daude. Eguzkia hartzeko belargunea ekainaren 17tik irailaren 16ra egongo da zabalik eta igerilekuak denbora tarte laburragoa izango du, uztailearen 2tik irailaren 2ra arte, hain zuzen. Eguzkia hartzeko gunea kiroldegiaren ohiko orduetgia izango du eta igerileku txikia, aldiz, goizez soilik egongo da zabalik, uztailean 14:45etik 19:45era eta asteburuetan eta abuztuan 16:00etatik 19:45era.

Antzuolan, ur parkea

Antzuolan, ur parkea gaur bertan zabalduko dute, eta, momentuz, irailaren 15era arte egongo da zabalik; dena den, eguraldi

onak luzatuz gero, urria itxiko dute. Orduetgia 10:30etik 20:00etara da.

Aramaion, ur parkea

Aramaion, Bañerako ur parkea ekainaren 7an zabaldu zuten eta irailera edo urrira arte izango da zabalik, aste barruan 16:15etik 19:00etara eta asteburuetan 11:00etatik 19:00etara. Behin ikasturtea amaitzean, ordea, asteburuetako orduetgia izango du egunero.

Elgetan, igerilekua

Elgetan, haurren udalekuen ekintzen barruan plastikozko igerilekuak jartzen dituzte egun batzuetan, eta, oraindik egunak zehazteko badaude ere, aurten ere jartzeko asmoa dutela jakinarazi du Udalak. Gaur arte dute elgetarrek udalekuan izen emateko aukera. Igerilekua zein egunetan jarriko duten eguraldiaren arabera erabakiko dute.

Gatzagan, uraren eguna

Leintz Gatzagan ere udalekuen barruan antolatzen dute uraren eguna, eta etxeko txikiak urrezko globoekin jolasten dira.

Igerilekuen eta ur parkeen irekiera

ARRASATE

- **Kanpoko igerilekuak**
Bihar, ekainak 15.

BERGARA

- **Kanpoko igerilekuak**
Gaur, ekainak 14.

OÑATI

- **Usako erreka**
Ekainaren 8az geroztik, sorosle zerbitzua martxan.
- **Ur uhinak**
Ekainaren 1etik zabalik.

ESKORIATZA

- **Kanpoko igerileku txikia**
Uztailearen 1a.

ANTZUOLA

- **Ur parkea**
Gaur, hilak 14.

ARAMAIO

- **Ur parkea**
Ekainaren 7tik zabalik.

Ndank Ndank: pixkanaka, pixkanaka

MAMADOU SARR

NDANK NDANK ELKARTEKO
PRESIDENTEA
BERGARA

Eskerrik asko, Bergara!

Eskerrik asko Pentekoste jaietako larunbat arratsaldean antolatutako genuen Tonbola Solidariora hurbildu zineten guztioi eta baita bertan banatu genituen opariak eskaini zenizkiguten Bergarako eta inguruko komertzio, elkarte eta norbanakoei.

Erronka lortu dugu, Dionewarko Haur Hezkuntzako bigarren eraikina sortzeko 5.000 euro lortu ditugu.

Bergararik, Debagoienetik, Euskal Herriatik Senegalera zuzenean joango den elkarlanerako ezinbesteko laguntza.

Kulturartekotasuna gure helburu nagusi izanik, eta dantza munduko kultura guztietako alaitasunaren isla den aldetik, jarrai dezagun etorkizunean ere elkarrekin dantzatzeko.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen kantauak dioen bezala, *biok dantzan, biok hegan, elkarrekin, ni zurekin, zu nirekin, biok alai, elkarrekin...*

Eskerrik asko!
Diokondial! Dieredief!

Bidegabekeria urte eta kilometro pila

ANA LARRAZA ERDOCIA ETA AMAIA AMILIBIA SALGADO

ALTSASU GURASOAK: 'ALTSASU AUZIKO' GAZTEEN GURASOAK
ALTSASU

Izu-uneak bizi izan genituen berriz duela urte bat. Bigarren atxilotetaren bezpera eguna zen, astelehena. 2018ko ekainaren 4ko arratsalde hartan, kalez jantzitako agenteak gure seme-alabak jarraitzen eta izutzen ibili ziren. Gau beltz-beltza pasa genuen, simaren barrena bezain beltza. Hurrengo

egunean, Akzio Azkarreko 88 agente eta 27 ibilgailu Altsasura iritsi ziren, aske gelditzen ziren gure seme-alabetako lau atxilotzera. Halako despliega, zertarako? Nahikoa zen zitazio bat bidaltzea. Madrileran eraman zituzten, bridekin lotuta. Berriz ere espetxeko mundu zoroan murgildu ginen.

Kartzelan dauden zazpi gazteetako hiruk 900 egun baino gehiago daramatzate barruan. Beste laurek, berriz, 401 egun. Eta, bitartean, hemen gaude. Urtebete pasatu da eta egunetik egunera mingarriagoa zaigu egoera hau, gure seme-alabak errugabeak direlako kondenatuak izan diren inputazioengatik.

Hasieran, guztia zen terrorismoa. Bi urte eta erdi geroago, bi sententziak baztertu dute terrorismo delitua. Hala eta guztiz ere, Auzitegi Nazionaleko sententziek jipoi basati bateko erasotzaileak direla diote, baina eraso bortitz horren arrastorik ez dago mediku partean jasotako lesioetan, ez eta epaiketan 56 testiguk eta 11 perituk emandako azalpenetan. Eta, ez hori bakarrik, diskriminazio ideologikoaren astungarria aplikatu diete.

Diskriminazioa: nork nori?

Zer dela eta tematu dira hainbeste? Zer dela eta horrenbeste *fake news*? Zeinek ateratzen du etekina? Errugabeak kartzelaratuz zertan hobetu du gure gizarteak?

Gure seme-alabak ez dira heroiak, martiriak izatea ere ez dugu nahi, baina, dagoeneko, biktimak dira. Badakigu injustizia asko dagoela, ez gara bakarrik. Gure gizarteak asko hobetu beharra dauka, eta kasu zehatz honetan, gure mutilak aspaldi egon beharko lirakeke etxean.

Guztia bukatzean: lehen baino hobea eta ederragoa izango da. Ortzadarrarekin itzuliko zarete.

Eskerrik asko!

ALFREDO GONZALEZ CHIRLAQUE
BERGARA

Aurreko domekako kontzertuaz hitz batzuk idazteko eskatu didate; baina ez da erraza izan sentitu nuen guztia hitzez adieraztea.

Hasieran, banda eta ikusleak zutik zeudela ikusita, zera pentsatu nuen: gaurkoa oso kontzertu berezia izango da. Han batu ginen guztien aurpegiak ikusi besterik ez zegoen –familiakoak, lagunak eta musikari esker ezagutu dudak jende asko–.

Jo genuen lehen obra oso berezia da, bai Bandarentzat, bai niretzat: *Campo de rosas*.

Fliskornoak interpretatutako melodia hasi zenean, sentitu nuen Miguel –nire aita– gure artean zegoela. A ze emozioa! A ze musikariak! Musikak berriro batu gintuen guztiok.

Horren ostean, *Lago de los cisnes* ospetsuari ekin genion. Musikariak obrak jotzen zituzten heinean, ez neukan inongo zuzendariren inbidiarik.

1832 iritsi zen. Bihotz-bihotzez Bandari eskaini nion obra bere 175. urteurrengatik. 187 urte etenaldi barik.

Musikak ez dauka adinik, musikaren bidez komunikatzen gara, historiak kontatzen ditugu eta emozionatzen segitzen dugu.

Gero, Forrest iritsi zen, bere soiltasun, kalitate eta giza balioarekin. Musika horrekin, dagoeneko gure artean ez dauden musikari guztiak gogorarazi genituen; bai Bandako kideen artean eta baita ikusleen artean ere hutsune hori igarri egin zen: maitasun, adiskidetasun eta nostalgikoak isuri zitzaizkigun. Sekula ez ditugu momentu haiek ahaztuko.

Eta bukaerara iritsi ginen. 1987an Bandarekin zuzendu nuen lehen obra. Horrekin itxi dut ziklo hau. Banoa, baina Banda handi bat ixten dudak lasaitasunarekin, eta esku onetan, gainera.

Banda eta herria, herria eta Banda, duo bat –musikalki–, beti elkarrekin joan behar dutenak.

Agurtu aurretik, jakinarazi nahi dizuet ekainaren 29an –San Pedro– Orkestrak agur-kontzertu bat eskainiko didala; bertan parte hartuko dute Orkestrak berak, Bergarako Musika Bandak, Bergarako Orfeoia, Aritzeta Abesbatzak, Bergarako Musika Eskolak eta nire ibilbidean zehar ondoan izan ditudan bakarlariek, musikariek eta lagunak. Eta, momentu berezi hori baliatuz, opari musikal bat eskaini nahi diet guztiei, bihotzetik; guztiendako.

Euskara irakaslea eta homo pasmatua

LARRAITZ GOIKOETXEA ETA MALEN UGARTE

KURTZEBARRI BHI
ARETXABALETA

Irakaskuntzan urte gutxi daramagu. Irakasle lana gutxi ez, eta badirudi euskara irakasle izateagatik esfortzu estra bat dagokigula, baita sufritze estra bat ere.

Nerabeekin lanean dihardugu eta traba barik esan genezake krisi kultural baten erdian gaudela: sozializazio eredu berriak agertu dira eta botere zein aldaketa-abiadura izugarria da. Zer esango dugu, bada: hau da tokatu zaiguna.

Ikasturte amaiera honetan, UEUko Soziolinguistika Hiztegi Txikian Manex Agirrerri eta Josu Amezagari entzundakoak ekarri nahi genituen paperera.

Lehenak, Arabako gazteek hitza hartzeko

dituzten guneen inguruan hitz egin zigun. Ondorioa garbia izan zen: geroz eta gizarte bakartiago honetan, gazteek aukera gutxi dute hitza hartzeko, are gehiago euskaraz. Bertso eskolak hau bermatzen duten toki gutxietako bat dira.

Josu Amezagak beste ertz batetik heldu zion hitzaldiari eta arduraz mintzatu zen gure kultura kontsumoaren gaiaz. Datuak ez dira egun behar luketen bezain onak.

Etxetik euskara jasotzen ez duten hurrek bai, noski, ez dute beraien motibazioz izen-ematen euskarazko eskoletan. Garbi dago erabaki honen atzean gurasoak daudela, eta iruditzen zaigu ikasleak hezteko helburua duen eskolak gurasoei zein herriari gehiago erreparatu beharko liokeela. Baina zer gertatzen da txikitatik euskara jaso duten haur horiekin? Zein atxikimendu daukate gaur eta hemen euskararekin, herriarekin, kulturarekin? Zergatik?

Ttap aldizkariko kultura gile askori ere mezu antzekoak entzun dizkiegu: esku hartu beharra dago, eta guztiok eragin behar dugu. Unai Iturriagak esaten zuen bezala azkeneko elkarrizketan: "Hemen egin behar dena da: egin".

Selektibitateko euskarako proba ere hari bertik joan da. Andu Lertxundiren testuak amuen inguruan dihardu eta dio gaur egun ez duela ikusten aspaldi ohore gutxi baina erakarmen handia zuten produktu haiek bezalako amurik, umeei –eta gazteei ere– lilura pizteko modukorik.

Ahalegin estra hau gutxi batzuen eskuetan gelditzen ari den sentsazioa daukagu, eta ez, ezin dugu bakarrik. Euskara irakasleak ezin du bakarrik.



ZABALIK

BEÑARDO KORTABARRIA

Zorionak, Ainhoa eta Iñaki!

Ainhoa Intxarraundietak eta Iñaki Errazkinek ondo egin zuten erraustegia eraikitzeako proiektua geratzea erabaki zutenean. Bigarren aldiz iritsi da ondorio horretara Espainiako Kontu Auzitegia. Hau da, Gipuzkoako Hondakinen Kontorzioak bi pertsona horien kontra egindako salaketa eta zigor-eskaera, 46 milioi euro ordainaraztea, bidegabekeria hutsa izan zirela, eta biek hartu zuten erabakia ondo hartutakoa izan zela.

Berriak izugarri poztu nau.

Izan ere, tamaina horretako injustizia ikusita, behin baino gehiagotan egin dut Ainhoaren eta Iñakiren azalean sartzeko ariketa.

Ariketa horretan, izua sentitu dut askotan, langile soila izanik aurrera begiratu eta 46 milioi euroko isunari aurre egitea ezinezkoa izango delako.

Negargura ere eragin dit egoera horrek, norberarenaz gain, inguruko etorkizuna beltz ikusi dudalako.

NEGARGURA ERE ERAGIN DIT EGOERAK, INGURUKOEN ETORKIZUNA BELTZ IKUSTEN DUDALAKO

Eta amorrua ere sentitu dut. Nola liteke astakeria gelditzen saiatu ginenon kontra

modu bortitz eta zikin horretan jotzea? Nola, eta zergatik? Zer dago horren atzean?...

Hala ere, irudimenezko ariketa egin dudak bakoitzean, neure kontzientzia lasai aurkitu dut, bare, egin genezakeena egin genuen, egin behar genuena egin genuen, eta kitto.


Gizartearen, ingurumenaren, erakundearen eta lan publikoaren, geure pentsaeraren... alde egin nuen. Eta ariketa horretan, horrek indarra eman dit irauteko, irauteko eta aurrera jarraitzeko.

Eta jendartearen agerraldiek, manifestazio jendetsuek, han eta hemen guri elkartasuna erakusteko antolatu diren ekimenek, arindu egin dute bizkar gainean neukan zama.

Eta poza ere sentitu dut, pozezko malkoak isurtzeraino, herri txiki batean auziaren inguruko azalpena eman eta gero, gazte bat hurbildu eta "ez zaitut ezagutzen, baina besarkada bat eman nahi nizuke" esanez etorri zaidanean. Azken hau ez da irudimena, Antzuolan gertatu zen.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Erresilientzia

JAUME GELABERT

[HTTPS://LABUR.EUS/ZE8WR](https://labur.eus/ze8wr)

Nafarroako Tronu Demaren amaieraren zain gaude jarraitzaile asko. Ados, gurean ez dago ahotik sua botatzen duen herensuge hegaldunik –Ana Beltranek Madrilerira egin du hegan– eta egia da bertako zombiek ez dutela –oraingoz– negu etengabea ekartzeko asmorik, nahikoa baitute kontent egoteko –lerrook idazteko ulean– "persona normalak" sortuko dituen Erdi Aroko eskola-eredua ezartzea. Baina trama nafarrak ere baditu interesa pizteko hainbat osagai: esaterako, heroi foral ezkertiarren

jokabidea *Game of Thrones*-ekoena bezalakoa da. [...]

Oraindik ez dakigu nor izanen ote den irabazlea; zenbaki hotzek adierazten dute, ordea, nor diren galtzaileak. Kalkuluei men eginda, galtzaile litzateke, adibidez, eskolan kultura berdinazalea eta sexu indarkeriaren aurkako kontzientzia zabaldu nahi duena; sistema publikoan sinisten duen lagunak ikusiko luke –aritmetikaren arabera– turbokapitalismoaren morroi baten ipurdiak berotuko duela tronua. [...]

Hala ere, nahiz eta tarte asaldagarriak heldu diren, arnaguneak ere izanen ditugu. Iruñeko Karrikiri elkarteak, adibidez, garai ilunagoetan ere

erakutsi digu euskaraz bizitzea eta euskal kulturaz gozatzea posible dela. Karrikiriko militanteek-eta, besteak beste, Euskalerrria Irratikoeak, Zabaldikoeak, Sustrai Erakuntzakoek, Katakrakek, Sortzen-ekoek eta Iruñeko auzoetako zein Nafarroako herrietako hainbat eta hainbat kolektibotako kideek –zerrenda luzea baita– badakite posible dela egoera latzari aurre egitea, dagoeneko lehengo estualdiei aurpegi emana dietelako; ahalegin handiz, bai, baina egina. Zenbakiak zenbaki eta azken ataleko garailea zeinahi den ere, Nafarroako biztanleriaren zati handi bat ez dago galtzaile izateko prest.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEAwww.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarteak
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendaria komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kultura),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zero Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatikoko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Gobernu aurrerakoi, plural eta egonkorra nahi dugu"

KOLDO MARTINEZ GEROA BAI-KO BOZERAMAILEA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE Une erabakigarriak bizi ditu Nafarroak, duela lau urteko bolada amaitzean izan daitekeelako. Aldaketari eustea beharrezkoa dela dio Koldo Martinez eskoriatzarrak.

Maiatzaren 26an ez dituzue espektatibak bete. Zergatik?

Podemosen deskalabru ikaragarriagatik. 10.000 boto gehiago izan ditugu, nahiz eta 9 parlamentariarekin geratu.

Duela lau urte Nafarroan hasi zen aldaketa politikoa behin betiko bukatu da?

Ez, ez, inolaz ere ez. Orain dela lau urte aldaketa posible izan zen PSNren beharrik ez zelako, baina orduan ere esan genuen guretzako inportantea zela alderdi sozialistarekin ere kontaktzea.

Zerk ematen dizu pena handiagoa, Uxue Barkosek agintea utzi behar izatea ala Navarra Suma gobernatzeko ikustea?

Biek ematen didate pena, baina, batez ere, eskumak



Koldo Martinez. GOIENA

izan duen gorakadak eta Gobernu osatzeko daukan aukerak. Agintaldian, batzuek esan izan digute azeleragailua gehiago sakatu behar genuela aldaketak azkarrago edo sakonago egiteko, baina nik

esaten nuen Nafarroa erdibituta dagoela aurrerakoien eta atzerakoien artean. Zuhurtziaz aritzea inportantea zela. **Ikusten duzu aukerarik Maria Chivitek gobernatzeko?**

Gertu gaude Gobernu aurrerakoi, plural eta egonkorra ahalbidetzeko. Dena den, ez gaude oso pozik PSNren jarrerarekin.

Ikusi behar larunbatean gertatzen den...

Ribaforadan, Vianan, Zizurren eta Sarriguren-Eguesen alkatetza akordioak egitea proposatu diegu sozialistei: kasu bitan alkatetza Geroa Bairenak izango liriteke eta beste bitan PSNrenak. Ez daukagu erantzunik.

Benetan posible ikusten duzue Navarra Sumaren ordezkotza Gobernurik osatzea?

Bai, hori da gure helburua, ez bakarrik Parlamentuan, baita zenbakiak ematen duten udaletan ere. Garbi dugu Uxue Barkos ez dela izango presidentea. Maria Chiviteri dagokio Gobernu alternatiboak osatzeko ardurak hartzea; PSN da bigarren indarra.

EH Bilduk eta PSNk dute gobernagarritasunaren giltza?

Bai. Gobernu aurrerakoi, plural eta egonkorren aldeko apustu garbia da gurea eta hori ahalbidetzen duen indar aurrerakoiari emango diogu babesa, izan bata edo bestea eta izan han edo hemen.

Ze iruditzen zaizu sozialistek EH Bilduri betoa jarri izana?

Kontua da herri batzuetan sozialistak gertu daudela EH

Bilduren botoak jasotzeko; esaterako, Andosillan.

2007ko abuztutzarra berriro ez da gertatuko?

Espero dugu ezetz, baina gerta daiteke. Konfiantza dago jokoan hemen, ezer adosteko konfiantza behar da eta une honetan ahula da sozialisten eta bestelako indar aurrerakoien arteko konfiantza.

Navarra Sumako hautagai Javier Esparzak Pedro Sanchez egindako eskaintza ze iruditzen zaizu?

Javier Esparzak erabaki inteligentea hartu zuen Navarra Suma aurkeztu zuenean, baina, bestetik, berehala hasi ziren akordioa egin zutenen arteko eztabaidak. Bere kartak jokatu ditu Navarra Sumako hautagaiak Madrilen, UPNren estrategia balioan jarriz.

Uste duzu Iruñean aurkeztuko duela hautagaitzarik PSNk?

Gaur-gaurkoz, esan dezaket baietz. Horrek esango luke Enrique Maya Navarra Sumakoa izango litzatekeela alkate.

Asironi ikusten dizkiozu gobernatzeko aukerarik?

Ez dut ikusten EH Bildu PSN babesten, eta ezta alderantziz; hortaz, zail ikusten dut aukera hori, iruindarren zoritxarrerako.

ITURRI ONETIK

Mendiko lasterkarien taldea Elgetan

Elgetan taldea osatu guran dabilta mendiko lasterketetan aritzen diren hainbat herritar. Batzuk aurre-aurrean -Oihana Kortazar-, beste batzuk maila apalagoko karreretan, baina denak talde berean: Anartz Agirre, Iratxe Alonso... Dagoeneko batzar batzuk egin dituzte eta kamisetak ere ateratzekotan dabilta. Irailean egin nahiko lukete aurkezpena jendaurrean, Intxortako Igoeran. Eta izen batzuk ere badarabilte esku artean: Intxortako Ahuntzak izan daiteke.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-06-13

Reala eta 'Gontxa', berriro ere Lehen Mailara

Bigarren Mailara jaitsi eta hiru urteren ostean, berriro ere Lehen Mailara igotzea lortu zuen Realak, Celtari Anoetan 2-0 irabazita. Mikel Gonzalez *Gontxa* arrasatearra zen orduan Realeko atzeko lerroko nagusi, Labakarekin eta Ansoategirekin batera. Gipuzkoa osotik bezala, Debagoienetik ere jende pilo hurbildu zen txuri-urdinen ospakizun-festara Donostiara, eta domeka arratsalde euritsu hura gauera arte luzatu egin zitzaizen askori.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

'#Proces' epaiketaren azken eguna

Autodeterminazioaren aldeko politikari kataluniarren aurkako epaiketako azken egunak iruzkinak eta iruzkinak batu ditu sare sozialetan, eta *#proces* traola *trending topic* izan da txiolari euskaldunen artean:

@MikelArregiaska: "Listo. Heldu da bukaera. Bidean, 52 saio, zenbat korte, zenbat kronika #AgurProces".

@jatsu: "A ze maila daukaten Kataluniako liderrek, Jordi Cuixartena txapela kentzekoa da".

@Gari_Grand: "#Proces Zertarako entzun sententzia idatzi badute? #lotsa".



2015-2019 agintaldiko zinegotziak azken ezohiko bilkura egin ostean. XABI GOROSTIDI

Azken agintaldia guztiz itxita, eta berria hastear

Asteazkeneko bilkurarekin, guztiz itxita geratu da 2015-2019 agintaldia Arrasaten. Zapatuan, udalbatza berria osatuko da, maiatzaren 26an arrasatearrek emandako botoen arabera, eta alderdi bakoitzak aro berrirako dituen asmoak batu ditu GOIENAK

Xabi Gorostidi ARRASATE

Agintaldi berri baten aurrean dago Arrasate. Horri ekin aurretik, ordea, aurrekoa guztiz itxita uztea tokatzen zen, eta eguaztenean egindako ezohiko osoko bilkuran horixe bera egin zuten. Azken osoko bilkurako akta ontzat eman ostean, sailez sail eta batzordez batzorde ontzat

eman zituzten aktak. Era horretan, agintaldiko azken tramite administratiboak bukatu ziren.

Agintaldi berria aurretik

Zapatuan osatuko da udalbatza berria, 12:00etan, osoko bilkura gelan. Zinegotzien senide eta lagunek aretoa beteko dute, eta giro berezia biziko da.

Sorpresarik ezean, EAJk eta PSE-EEK osatuko dute Udal Gobernua. Irungo korapiloa askatu ostean, egintzat jo daiteke beste lau urtez Gobernua partekatuko dutela. Hala bada, duela lau urte zutena baino babes handiagoa izango dute, hamaika zinegotzitik hamabi izatera pasa dira eta. Behin

"Arrasateko testigantzak Servini epailearen esku daude jada"

JUAN LUIS MERINO EZKER ANITZA

Buenos Airesen egon da, kereila argentinarren harira

X. G. ARRASATE

Bederatzi egun egin ditu bertan, kereila argentinarreko Arrasateko Udaleko ordezkari gisa.

Espedizio zabala joan zarete Buenos Airesera?

CEACUA Espainia mailan frankismoaren krimenen inpunitearen aurka lan egiten duen elkarte da, eta bertako delegazio baten baitan joan naiz, Arrasateko Udaleko ordezkari.

Zein izan da zure helburua?

Dakizun bezala, Arrasateko Udalak kereila kriminala jarri zuen frankismoaren krimenak iker-

tzeko. Epaileek hau bertan behera utzi ostean, bi errekurto aurkeztu genituen: bata, Bergaran bertan, eta bestea, Espainiako Auzitegi Konstituzionalan. Espainiako justizian izan duen ibilbidea zein den ikusita, argentinar bidea bakarrik geratzen zitzaigun. Hala, Arrasaten batutako testigantzak Servini epailearen esku daude jada.

Epailea pertsonalki ezagutzeko aukera izan duzu. Nolako da?
Bada, 82 urte izan arren, energiaz beteta dago, eta Arrasateko Udalak *persona non grata* izendatu



Juan Luis Merino. XABI GOROSTIDI

duen Martin Villari kontu hartzeko gogo itzela duela esan dit. **Zer gehiago egin duzue bertan?** Manifestazioetan parte hartu dugu, eta maiatzaren 25 mugimenduko ikur den Nora Cortiñas ere ezagutzeko aukera izan dugu.

Agintaldia agurtzeko, luntxa

Alvaro Arregi alkate ohiari okurritu zitzaion agintaldiari amaiera emateko luntx bat egitea udal langile guztiekin eta politikatiekin. Ordutik –1987tik–, ohitura horri eutsi diote Arrasateko Udalean, eta eguaztenean ere halaxe egin zuten.



Zinegotziak eta Udal langileak osoko bilkura gelako luntxean. XABI GOROSTIDI

aginte-makila eskuan, hauteskunde kanpainan hitz emandakoak betetzen hasteko ordua izango da, eta horien artean izango dira, besteak beste, kiroldegia berritzeko prozesuan aurrera egitea, Grupo San Juanen oinezkoentzako espazioak irabaztea eta Erguingo igogailu sistemako lehen bi igogailuak egiten hastea. Ezin ahaztu ere aurreko agintaldian martxan jarri baina guztiz amaitu ez diren beste bi proiektu garrantzitsu: Juan Arzamendi Musika Etxea eta Kulturolaren birgaitzea.

EAJk bezala, pisu handiagoa hartu duen beste alderdi bakarra EH Bildu izan da. Ordezkarri bat gehiago izango dute, eta euren balioak eta proiektuak "defendatzeko" asmoz egingo du lan Maider Morras buru izango duen lantaldeak. Elkarrekin Podemosi dagokionez, Igor Urizar bakarrik arituko da, Eva Abuinek eta Juan Luis Merinok ordezkari galduta ostean. Emaitza kaxkarren analisia egin ostean, botoa eman dieten 881 arrasatearren interesak ordezkatzeko lan egingo du.

'Katearen Loturak' elkarteak sortu dute ustezko lapurren gurasoek

Udalak lokal publiko bat utzi die, eta eskerrak eman nahi izan dituzte euren babes adierazi dieten herritarrei

X. G. ARRASA

Pasa den astean konponbide eske gutuna argitaratu zuen guraso taldeak izen hori jarri dio euren seme-alabekin lotutako arazoa konponbidea jartzeko sortu duten elkarteari. GOIENAK jakin duenez, Udalak Jose Luis Iñarra kalean duen lokal bat utzi die, behin-behinean, euren batzarrak egiteko. Esker hitzak plazaratu dituzte, ohar bidez, prentsan argitaratu zuten gutunaren harira atxikimendua helarazi dieten herritar guztiei, eta elkartearekin harremanetan

jartzeko posta elektronikoko bat sortu dute: katearenloturak@gmail.com.

"Adikzioen mundua –bai drogen eraginarekin lotutakoa, edo ludopatía bezalako drogarik gabeko adikzioena– bailara honetako errealitate gordina da. Arazo honi aurre egin ahal izateko, denon energiak, ideiak eta indarrak bildu beharra daukagula jabetuta gaude: gurasoak, udalak, ikastetxeak, instituzioak... gizarteak, orokorrean; guztion artean koordinazioz beteriko lan integral bat eginik".

7ko nota du 65 urtetik gorako bizi-kalitateak

Arrasatearren %24,2k –5.590 lagun– 65 urtetik gora dituzte eta euren premiak eta bizi-kalitatea aztertzeko ikerketa egin du Hurkoa elkarteak, Udalaren eta Adinberri fundazioaren laguntzarekin; 218 lagunek pasa dute inkesta –laginaren %3,89k–.

Xabi Gorostidi ARRASATE

Gipuzkoako Aldundiaren Adinberri fundazioak adindunen bizi-kalitatea hobetzea du helburu. Iaz, diru laguntza programa bat abiatu zuten, eta bertan, Hurkoa elkarteak adindunen hauskortasuna neurtzeko planteatutako proiektua izan zen aukeratuetakoa. Hauskortasun maila neurtzeko, adindunen osasuna, harremanetarako gaitasunak, autonomia maila, irisgarritasun arazoak eta egoera ekonomiko zein afektiboak hartu dituzte kontuan. Gipuzkoa mailako hauskortasuna neurtzeko hiru udalerrri ikertu dituzte –Pasaia, Azkoitia eta Arrasate–, eta, bakoitzak bereizgarri propioak izan arren, denetan nahiko bizi-maila "onargarria" dutela ondorioztatu dute; hamarreko eskala batean zazpiaren bueltakoa.

Datuen aurkezpena

Azterlanaren emaitzak atzo aurkeztu zituzten. Han izan ziren Amaia Azpiazu –Gizarte Ongizateko jarduneko zinegotzia–, Jose Ignacio del Pozo –Hurkoako zuzendari-kudeatzailea–, Bakarne Etxeberria –Hurkoako hauskortasun programaren koordinatzailea–, Rakesan Sebastian –Adinberri Fundazioko zuzendari-orokorra– eta Laura Gallo –Ikeiko proiektu arduraduna–.

"Azterketa honi esker adinekoen egunerokotasunaren inguruko informazio gehiago jaso ahal izan dugu; beraz, aurrerantzean, gure helburua izango da Gizarte Zerbitzuak adinekoen egungo zein etorkizuneko beharrei erantzuna emateko egokitzea; modu horretara, guztien bizi-kalitatea bermatu eta hobetzea, noski", adierazi zuen Gizarte Ongizateko jarduneko zinegotzi Amaia Azpiazuk. "Datuek onak izan dira, orokorrean, baina bakardadean dauden horiek, edo irisgarritasun arazoak dituztenek, neurriak behar dituzte".



Hurkoako, Udaleko eta Adinberriko ordezkariak, atzoko prentsa agerraldian. X.G.

Ikerketako datu esanguratsuak

ADINDUNEN PROPORZIOA

- **65 urtetik gora** Arrasatearren %24,2k 65 urte edo gehiago.
- **75 urtetik gora** 65 urtetik gora dituzten biztanleen %12k 75 urte edo gehiago dituzte –Gipuzkoa mailan datua %10,6koa da–.

BAKARRIK BIZI DIRENAK

- **%66** Inkesta egin duten 218 lagunetatik 152 bizi dira bakarrik. Beste era batera esanda, hiru adindunetatik bi.
- **Erorikoak** Bakarrik bizi diren %19,5 jausi izan dira behin, gutxienez, eta zailtasunak izan dituzte altxatzeko.
- **Osasun arazoak** Bakarrik bizi diren %15,4k maiz dituzte osasun arazoak eta horrek euren kabuz moldatzea eragozten die.
- **Kalera irten gabe** Bakarrik bizi diren %10,6k diote osasun arazoek kalera irtetea galarazten dietela.
- **Zailtasun ekonomikoak** Bakarrik bizi diren %10ek dituzte.
- **Irisgarritasuna** Bakarrik bizi diren %35ek diote euren atariko irisgarritasuna ez dela ona.

BESTE DATU BATZUK

- **Zailtasunak** Ekonomia jardueretarako %31k dituzte zailtasunak, eta lege-jarduerak egiteko, %30ek.
- **Eguneroko jardueretarako gaitasunak** %70ek gaitasun ona dute eta %9k, aldiz, gaitasun txarra edo oso txarra.
- **Familiarekin harremanak** %84k egunero dituzte harremanak hurbileko familiarekin.
- **Familiaren babesa** %95ek nahiko babes jasotzen dutela diote eta %5ek, aldiz, ez; %3,3k ez dute nora jo laguntza eskatzeko.
- **Bakardadea eta tristura** Inkesta egin dutenen %15ek sentitzen dute bakardadea edo tristura.



AITZIBER ARANBURUZABALA

Manifestazioa eta geldialdia

Astelehenerako elkarretaratzeak hasi zituzten bi urte pasa dira. Uda aurreko azkena astelehen honetan egin dute, eta ostean geldialditxo egingo dute. Hala ere, datorren astelehenean manifestazioa egingo dute elkarretaratzearen ordean –19:00etan, Herriko Plazan–, eta gazte zein helduei parte hartzeko dei egin diete.

Arizmendi Ikastolaren urte amaierako jaia, gaur, Biteri plazan

Olarte guneko ikasleen danborradarekin hasiko da festa, 10:30ean. 17:00etatik aurrera, ordea, Biteri plaza izango da jaiaren epizentro. Hamar ekin-tzako egitaraua lotu dute, eta horien artean daude, besteak beste, txalaparta erakustaldia, haurrentzako ikuskizuna, Serge eta Ekiñe Casadoren zuzenekoak eta *parkour* ikuskizuna.

Zapatuan irekiko dituzte ateak kiroldegiko kanpoko igerilekuak

Ekainaren 15etik irailaren 15era arte erabilgarri egongo da Musakolako kiroldegiko kanpoko igerilekua. Orduetgia aurreko urteetako bera izango da: kiroldegia 09:00-21:00 eta igerilekuarena 10:00-20:30. Horrez gain, aisialdia eta zientzia batoratzeko urpeko arkeologia egiteko aukera izango da Kirol Sailaren eskutik.

OHARRAK

1965koen kintada, urriaren 19an

Urte hartan jaiotakoek eguna erreserbatzea da asmoa, eta ostean jakinaraziko dituzte izen emateko kontu zenbakiak.

Ekaineko baserritarren azoka, bihar

09:00etatik 14:00etara azoka itxura hartuko du Seber Altubek, gazta, ogia, ezta eta sasoiko barazkiekin, besteak beste.

Arrasate Herri Eskolako zenbaki sarituak

Pasa den barrikuko jaietan, zozketa egin zuten; zenbaki sarituak, hauek: 1. saria 531 –ordezkoa 1.630–; 2. saria 195 –ordezkoa 1.559–; 3. saria 3.675 –ordezkoa 2.072–.

Astelehenean, klima aldaketari buruzkoak

Josefina Frailek eta Marcos Alonsok gai horri buruzko hitzaldia egingo dute; hitzordua, 18:00etan, Kulturaten.

Esteban Garibai eta Udala-Besaide PRA

Bi gai horiei buruzko ibilbide gidatuak antolatu ditu Udalak astebururako. Idazle historikoari buruzkoa zapatuan egingo dute –11:00etan, Herriko Plazan–, eta bigarrena, aldiz, domekan; 09:00etan Udalako aparkalekutik abiatuta.

"Ez da urte ona izan, eta ez emaitzengatik soilik"

JORGE DAVILA MONDRAKO ENTRENATZAILEA

Talde zuri-moreko entrenatzaile izaten jarraituko du arrasatearrak; urtearen erreposoa egin du Arrasate Irratian, eta izan beharreko helburuen gainean hausnartu

Xabier Urzelai ARRASATE

Jorge Davilak Mondrako entrenatzaile izaten jarraituko du. Zuri-moreek laugarren amaitu dute liga, aspaldian ez du taldeak ikasturtea horren aurrean amaitu, baina aste barruan entrenatzaile arrasatearrak Arrasate Irratian aitortu du ez dela urte ona izan, batez ere, bigarren itzulian izan dituzten zailtasunengatik.

Ze balorazio egiten duzu?

Niretako, ez da urte ona izan. Betikoa da, sailkapenari begiratu gero ez dirudi horren txarra izan denik, baina bigarren itzulian arazo asko izan dugu, denetarik gertatu zaigu. Partidu batzuetan ez dugu neurria eman, nahiz eta egia den liga amaieran denboraldiari itxura txukuna eman diogula.

Akaso, helburu zorrotzgia ezarri zenuten iaz? Hirugarren Maila da Mondraren tokia?

Hori da herrian historikoki zaleek behin eta berriro nabarmendu dutena, biztanle kopuruagatik, klubak duen historiagatik... taldeak hirugarren mailan egon beharko lukeela. Baina egia da hori ondo egindako lan baten ondorioa izan behar dela, esatea ez dela nahikoa. Lehenengo, lana; gero, helburuak. Ekaineko emaitzak



Mondrako entrenatzaile Jorge Davila. GOIENA

"TALDEARI ERREGULARTASUNA FALTA IZAN ZAIO GOIKOEN BORROKAN EGOTEKO"

urrun daude, egunerokoan lanik egiten ez bada.

Laugarren amaitu duzue.

Eta horixe merezi dugu, ez gehiago. Urte amaieran sailkapenak egia asko esaten du, bakoitzak merezi duena jasotzen du, eta

egia da, esaterako, gu ez garela Eibarren [liga txapelduna] maila berean egon. Akaso, lehen itzulian bai, partidu onak egin genituen, baina ondoren, ez dugu asmatu erregularrak izaten. Sailkapeneko erdiko taldeen artean onenak izan gara, baina aurretik hiru talde hobeak izan dira.

Taldea indartuko duzue?

Horretan ari gara, ikusiko dugu. Denboraldia amaitu da eta gutxiago gustatzen zaigun bulego lanean dihardugu, baina lan garrantzitsua da hori ere.

"Gimnastek egunero ematen digutena bai dela sari potoloa"

ARANTZAZU ZUBIA ARRASATE DRAGOI TALDEKO KIDEA
Joan den egunean jaso zuen Arrasate Kirol Saria

X.U. ARRASATE

Arrasate Kirol Sarien barruan Ibilbidearen Saria jaso du Dragoi Gimnasia Taldearen hazietako bat ipini zuen Arantzasu Zubiak. 1980an, 18 urte zituela, Euskadiko txapeldun izan zen, eta ordutik darama gimnasia erritmikoari lotuta. Kirol horrek Arrasaten izan duen bilakaeraz egin du berba arrasatearrak.

Sari banaketa ekitaldian zeundela, espero zenuen irabazterik?

Lasai joan nintzen, baina ekitaldia hastearekin batera ondoko lagunak barrezka ikusten nituen, eta hor hasi nintzen susmoa hartzen...

Emozio handiko momentua izan zen.

Momentu polita izan zen, oso polita. Urte hauetan egindako lanari saria izan zen.

Izan ere, askotan, musu-truk egiten den lan horrek ez du txalo handirik jasotzen.

Bueno, ez pentsa, beste modu batera jasotzen dugu errekonozimendua. Gure kasuan, gimnasten eskutik jasotzen dugu egunero saririk potoloena.

Talde moduan ere Dragoiko neskendako izan zen saria. Aspaldian, txapelketetan oso emaitza onak batzen ari zarete, ala?

Bai, eta hor boladak izaten dira, batzuetan emaitzak aldeko izaten direlako, eta beste batzuetan ez. Izan ere, txapelketak ondo prestatzen ahalegintzen gara, baina besteek ere beste horrenbeste egiten dute. Emaitzetatik harago, baina, guretako, sari



Arantzasu Zubia. GOIENA

handia da gimnastak pozik dabilzala ikustea.

Zuk ze oroitzen dituzu zure gimnasta sasotik?

Oso oroitzen onak ditut. Jende mordoia ezagutzen genuen, kanpora joaten ginen txapelketetan esku hartzera, eta kanpotik gurera ere gimnasta asko etortzen ziren. Lagun handiak egin nituen sasoi hartan, eta oraindik batzuekin harremana mantentzen dut, hona etortzen zirenean gimnastak etxera etortzen zirelako...

Gimnasia erritmikoa diziplinarekin lotu izan dugu beti.

Bai, baina hori pertsonaren arabera da, eta baita taldean egon daitekeen edo entrenatzaileak izan dezakeen dinamikaren arabera ere. Guk ez diegu gimnastei presiorik sartu gura izaten, beti esaten diegu saiatzeko, baina gauzak lasai hartzeko.

Mondraren urte amaierako jaiak

Ohiturari jarraituz, Mondrak denboraldi amaierako jaiak egin zuen zapatuan. Ekitaldia Mojategin egin zuten, eta jokalaria, entrenatzaile eta talde nabarmenenak saritu zituzten.

Talde moduan, esaterako, kadeteek eta Ohorezko Mailako gazteek nabarmentzeko moduko urtea egin dute. Garrantzitsua da, zalantza barik, harrobi sendoa datorrela ikustea.



Gazte mailako taldea izan da urteko protagonistetako bat. MONDRA FUTBOL TALDEA

Parte hartze libreko probak egingo dituzte bihar Mojategin

Zapatu arratsaldean, 17:00etan hasita, egingo dituzte parte hartze libreko atletismo probak, Mojategin. Eta bertan batuko dituzten atleten helburua izango da txapelketa ofizialetan esku hartu ahal izateko gutxieneko markak eskuratzea.

Hala, atletismo jardunaldia luzera-saltoko probekin hasiko dute (17:00). Eta ordu berean

egingo dituzte luzera-saltoak, pertika-saltoak pisu jaurtiketak eta emakumezkoen 300 metroko lasterketak. Ondoren (17:30) etorriko dira 400 metroko lasterketak, eta baita 100 metroko finalerdiak ere (17:30 eta 18:10) –gizonezkoen eta emakumezkoen kategorietan-. 18:40an hasita, 600 metroko lasterketak egingo dituzte, 19:00etan izango dira 100 metroko finalak, 19:15ean 300 metrokoak, eta saioa 5.000 metroko probarekin amaituko dute, 20:00etan.



Julen Errasti, Peru Atxa, Gari Arsuaga eta Urko Perez, Libertad Condicional taldeko kideak. POLIKARPO

Punk-rock eszenaren desertuan, oasi txiki bat

Libertad Condicional taldeak 'Bizimoduaren jabe' izeneko lehen diskoa grabatu berri du. Nahi baino kontzertu gutxiago jotzen dituzte, eta "aukerak oso murriztak" direla diote: "Trapa, rapa eta reggaetona bogan daude, baina guk gureari eutsi nahi diogu"

Xabi Gorostidi ARRASATE

Libertad Condicional taldea 2015ean sortu zen, eta ez zuten denbora alferrik galdu, urte hartan bertan eman baitzuten lehen kontzertua. "Institutuan taldeko bi gitarra joleak ezagutu nituen, Aramaiokoak baitira. Musika talde bat sortzeko ilusio itzela nuela esan, eta baiezkoa eman zidaten. Aramaion hasi ginen entseatzeko, eta, urte beroko azaroan, Gazte Egun batean, egin genuen debuta. Gazte Txokoetako erabiltzaile ginen sasoi hartan, eta Never Surrender taldeko abeslari den Pottokok animatu gintuen lehen zuzeneko jotzera", azaldu du taldeko abeslari eta baxu jole Peru Atxak.

'Bizimoduaren jabe' diskoa

Euren lehen diskoa grabatu berri dute eta jada salgai dago Jai-zale tabernan eta Txukun dendan. Hasiera batean, Arrasateko *Shot!* estudioan grabatu behar zuten, baina grabatzeko gutxi falta zitzaizkenez heldu zen

estudioa kiskali zuen sutea. *Shot!*-en berriz grabatzeko denbora asko itxaron behar zutela ikusita, Drop taldeko batera jole zen Alex Regañok Legazpiko Su Beltza estudioa gomendatu zien, eta hantxe grabatu dute euren lehen diskoa.

Estudioan lehen aldiz sartzeko arazo askotariko zailtasunak izaten dituzte musikariek, eta Libertad Condicionaleko lagunen kasuan ere halaxe izan da. "Aho-tsekin izan ditugu buruhausterik handienak. Gogoratzen dut lehen abestiko ahotsa sartu nuenean, taldekideak barrezka eta negarrez ari zirela kristalaren beste aldean. Grabatutakoa entzun nuenean, konturatu nintzen emaitza oso urrun zegoela

"PUNK-ROCKA ETA ROCKA, OROKORREAN, GERO ETA GUTXIAGO ENTZUTEN DIRA GAZTEEN ARTEAN"

guk nahi genuenetik. Baina, kostata izan bazen ere, lortu genuen gustura geratzea".

Musika panorama "zaila"

Arrasate askotariko rock taldeen iturburu izan da, baina gaur egun iturri horrek ez dauka duela 15 urte bezainbesteko urik. Hala ere, iturri zahar horretako ura edateko egarria duten gazteak badaude, eta Libertad Condicional taldea da horren erakusle. "Gure estiloko bi musika talde bakarrik daude belaunaldi gazteen artean. Egoera ez da erreza. Punk-rock musika gero eta gutxiago entzuten da gazteen artean. Ez bakarrik punk-rocka: rock musika, orokorrean. Rapak, trapak eta reggaetonak jan egiten dute rock-and-rolla. Horren aurka egitea zaila da, baina gu ahalagindu egiten gara". Kontzertuak lortzeko zailtasuna dagoela diote: "Jendeak ez du talde hasiberrien alde egiten, eta gure erreferente izan diren taldeak jada ez dira hain aktiboak".

Sara Vitoriaren liburu aurkezpena, arrakastatsu

Kulturateko areto nagusia jendez gainezka zegoela aurkeztu zuen Sara Vitoria psikologo arrasatearrak *No entiendo a mamá* liburua, eguaztenean. Liburuak dakarren ipuina kontatu zuen Vitoriak berak, eta, bukaeran, aleak erosi zituzten han batu ziren denek, edo ia denek. Ilara luzea sortu zen; baita beste bat ere, egileak liburuak sina zitzaizkion.



Sara Vitoria, liburuarekin. SERGIO AZKARATE

Ballet eta hezkuntza bereziko taldeen emanaldiak gaur

Ballet taldekoen erakustaldia 19:00etan hasiko da, Amaia antzokian, eta Jana Fuentek zuzenduko du saioa.

Hezkuntza bereziko ikasleena, ordea, 18:00etan hasiko da, eskolan bertan. Olaia Ramosen eta Domentx Ucinen gidaritzapean arituko dira ikasleak eta urtero bezain hunkigarria izatea espero dute.

Hilaren 20an, aire akrobazia ikuskizuna Monterronen

Arte diziplina hori hedatzeko asmoz Arizmendiko ikasleekin lanean aritu da Agurtzane Telleria. 43 laguneko taldea gidatu du, eta horiekin batera hamazortzi koreografiako emanaldia taularatuko dute, uztaiekin, trapezioekin eta oihalekin. Hala, urtean zehar ikasitakoak Monterongo oholtzan taularatuko dituzte, ekainaren 20an, 18:30ean.

330 dantzari domekako Haur Dantzarien Egunean

Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrosaitz taldeen eskutik, Haur Dantzarien Eguna egingo dute domekan. Goizez eta arratsaldez euren trebeziak erakutsiko dituzte Ermuko, Soraluzeko, Antzuolako, Oñatiko, Aretxabale-tako, Oiartzungo eta Aramaioko dantzari gazteek, eta ostean, Gaurgi taldearen dantzaldia egingo da Herriko Plazan.



Dantzariak, iazko edizioan. I. SORIANO

Zuzendari berria estreinatuko du bihar Txorbela Otxoteak

Xabier Barriolak Mikel Arregiren lekukoa hartu du otxotearen zuzendaritzan, azken horrek 10 urteko ibilbidea egin ostean. Hala, zuzendari berriaren lehen kontzertua izango da biharkoa; 19:30ean izango da, San Frantzisko elizan. Hamahiru kantaz osatutako errepertorioa abestuko dute, eta aro berri baten hasiera izango da.



Xabier Barriola, ezkerrean. I. SORIANO



Azken lau urteotan udalbatza osatu duten kideak, eguaztenean egindako azken osoko bilkuraren ostean. MIRARI ALTUBE

Batzuen agurra eta beste batzuen ongietorria

Azken osoko bilkura egin zuen udalbatzak eguaztenean; elkar agurtzeko eta oroigarriak jasotzeko ekitaldia izan zen. Bihar, ostera, zinegotzi berriek hartuko dute lekua osoko bilkuren aretoan, datorren agintaldiko udalbatza eratzen denean

Mirari Altube ARETXABALETA

Agintaldiko azken osoko bilkura egin zuen udalbatzak eguaztenean. Aktak onartzea bakarrik zuten gai zerrendan, eta azken dokumentuak sinatzeko eta elkar agurtzeko ekitaldia izan zen. Lau urteotan egindako lanaren trukean oparixoa jaso zuten guztiak: Aretxabaletako armariaren urrezko intsignia. Egun-

go zinegotziarekin batera agintaldian zehar kargua utzi dutenak ere gogoan izan zituzten; hala, intsignia hori jaso zuten orain dela bi urte hil zen Hector Prietoren gurasoek eta Nerea Etxabek –Oihane Etxebarriak ezin joana agertu zuen–. Oraingo udalbatzako zortzi kide ez dira izango hurrengoan, eta giro onean agurtu ziren guztiak.

Alex Seiler, kanpoan

Bihar, ekainak 15, udalbatza berriak eratuko dituzte herri guztietan; Aretxabaletako ekitaldia 12:00etan izango da. Orain dela lau urte Arkupen egin bazen ere bilkura hori, aurten udaletzeko osoko bilkuren aretoan elkartuko dira kargua hartuko duten guztiak; EAJko kideak izango dira: Unai Elkoro, Kar-

mele Uribarri, Xabier Otxoa, Ainhoa Cabero, Koldo Zubillaga, Alex Seiler eta Pili Leanizbarrutia. Eta EH Bildukoak: Ion Albizu, Jasone Garcia-Etxabe, Mikel Uribeetxebarria, Ione Ojea, Gorka Gabilondo eta Irati Pagaoga. Horien artetik bat ez da izango ekitaldian, Alex Seiler, hain zuzen ere, aurrez hitzartutako bidaia bat dela-eta Alemanian egon beharra duelako.

Edadeko Mahaia osatuko dute, lehenengo; nagusienak, Pili Leanizbarrutia, eta gazteenak, Ione Ojeak, gidatuko dute; zinegotzi kargua hartuko dutenei Hauteskunde Batzordetik bidalitako egiaztagiria eskatuko dizkiete, horiek ziurtatzen dutelako zinegotzi izan daitezkeela. Behin hori eginda, kargua hartuko dute banan-banan; horretarako zein esaldi erabiliko duten ez dutela pentsatuta adierazi dute bai EAJkoek, bai EH Bildukoek.

Ondoren, alkate aukeraketari ekingo diote. EAJk Unai Elkoro aurkeztuko du horretarako. EH Bilduk, ostera, ez du izenik emango: "Ez dut nire burua aurkeztuko alkatetzarako eta abstenitu egingo gara Unai Elkoren aukeraketa uanean", adierazi du Ion Albizuk. Bigarren agintaldiari ekingo diote orduan: "Lehenengo alkate izendapena berezia izan zen; eta bigarrena, ilusioarekin, baina ezberdin biziko dut", dio Elkoro, eta gaineratu du: "Orain dela lau urte inork ez zidan eman alkate-makila eta oraingoan neuk eroango dut bilkurara, erretraturako bakarrik bada ere".

Albizuk lasai hartuko duela ekitaldia adierazi du: "Akordatuko naiz azken lau urteotan zinegotzi izan diren guztiekin, Oihane Etxebarria eta Hector Prieto zenarekin, bereziki", eta

gaineratu du: "Ilusio berezia egiten dit bigarren honek; agintaldi honetako esperientziarekin beste begirada bat ematen dit hurrengo lau urterako lanari ekiteko".

Harremanetan jarrita

Bi alderdi bakarrik izango dira hurrengo lau urtetan Udalean. Elkorok ez dio aparteko garrantzirik eman horri: "Ikusiko da zelan doan agintaldia. Gure asmoa da orain arteko lan dinamikarekin jarraitzea eta bi alderdiak egotea Gobernu Batzordean". Albizurentzat, ostera, ez da aberasgarria bi alderdi bakarrik egotea: "Azken honetan lau egon gara, eta horrek beste dinamika bat ematen dio. Dena den, gakoa dago kudeaketa erduan. EAJk gehiago absolutuarekin jardun du azken agintaldian ere PSE-EEren doako botoarekin, askotan esan dugun moduan; hortaz, praktikan ez da askorik aldatuko".

Bi alderdien arteko hartu-emaña egon dela onartu dute biek ala biek. EAJk proposamen bat egin dio EH Bilduri eta bilera bat izan dute horren bueltan. "Hilabeteko epea dugu erabakiak hartzeko. Ikusiko da zelan doan agintaldia, eta oposizioak zein bide hartzen duen", dio Elkorok, eta Albizuk adierazi du: "Ez dakit zein emaitza emango duen, baina bagabiltza lanean. Elkarren arteko lankidetzak bultzatu izan dugu beti eta honetan ere horrela izango da".

ALKATE-MAKILA EROATEKO ASMOA DU UNAI ELKOROK BIHARKO OSOKO BILKURARA

Basotxoko kideak Elizondora joango dira ekainaren 28an

Izena emateko epea zabalik dago hilaren 25a arte; elkartearen egoitza pasatu behar da horretarako

M.A. ARETXABALETA

Nafarroara, Baztan aldera, joango dira Basotxo erretiratu elkarte kideak ekainaren 28an, egubakoitza. Izena emateko epea zabalik dute hilaren 25a arte; dena den, lehenbailehen emate-

ko gomendatu dute zuzendaritza batzordeko kideek. Izan ere, autobusean 55 lagunendako dute lekua. Bidaiaren prezioa –autobusa eta bazkaria– 38 euro da bazkideendako eta 48 euro gainerakoendako. Argibideak gura

dituenak, edo izena eman, Basotxoko egoitza pasatu behar du (11:00-12:00).

Baztango bazterrak ezagutzera

Baztan bailarako parajeak ezagutuko dituzte irteera horretan; bereziki, Elizondo herria eta Bertizko Jaurerria natura parkearen hainbat txoko.

Goizean goiz, 08:00etan, abiatuko dira Aretxabaletatik, eta 19:00 inguruan itzuli. Bazkaldu, ostera, Elizondon bertan dagoen Baztan hotelean egingo dute.

Musika eskolako matrikulatze epea zabalik dago

Datorren ikasturtean musika ikasketak egin gura dituzten herritarrek, eta instrumenturen bat jotzen ikasi, Leizarra musika eskolan dute aukera. Matrikulatze epea hilaren 21a arte dute zabalik; interesatuak bertara gertura daitezke (Arkupeko hirugarren solairua–, argibideak eskatzera, astelehenetik egubakoitzera bitartean (17:00-19:00).

Eskulanetan diharduten ikasleen lanak ikusgai Arkupen

Rosa del Aguila irakaslearen gidaritzapean lanean jardun duten ikasleek urtean zehar egindako eskulanak jarri dituzte ikusgai Arkupeko erakusketan aretoan; besteak beste, kutzak eta panpinak. Hilabete guztian egongo dira ikusgai; astelehenetik egubakoitzera bitartean goizez eta arratsaldean eta zapa-tuetan, goizez.

"Aztarna handiegia uzten gabiltza munduan"

LAURA PEREZ ETA OIER ETXEBARRIA 'PLASTIKOA BURUAN' TALDEKO KIDEA
Plastikoaren erabilera murrizteko eta horren eraginaren gainean hausnartzeko asmoarekin herritar talde bat elkartu eta lanean hasi da oraintsu

Mirari Altube ARETXABALETA

Plastikoa Buruan izena jarri diote Aretxabaletan sortu berri den taldeari; izan ere, plastikoa- ren erabilerearen gainean hausnartzea dute helburu.

Zerk bultzatuta sortu duzue taldea?

Laura Perez: Zero Waste astea zirela egitekoak mundu mailan jakinik eta komunikabide askotan agertu diren datuak ikusita, hainbat lagunekin berba egin nuen, eta talde bat eratzea adostu. Ekintza handirik egiteko astirik ez dugu izan, baina pozik gaude lanean hasi garelako.

Ekintza handirik ez, baina plastiko bilketa bat egin duzue dagoeneko kalean; herritarrek zelako harrera egin dizuete?

L.P.: Horren iragarpen handirik ez genuen egin, eta, eguraldi ona ere ez zuenez egin, kalean ez zebilen jende askorik. Zabor bilketa bat egin arren, hurrengo baterako utzi genuen ekintza handiago bat egitea.

Oier Etxebarria: Dokumental emanaldi batzuk ere antolatu ditugu, baita bideo motzagoak egin ere herriko hainbat gunetan botatzeko. Helburua da plastikoa- ren erabilera murriztu beharra dagoela kontzientziatzea; izan ere, aztarna handiegia uzten gabiltza mundu honetan.

Gehiegizko erabilerearen ondorioak agerian daude dagoeneko?

O.E.: Biodegradagarria dela plastikoa esaten digute, baina desagertu ez da egiten; apurka-apurka, txikitzen joaten da, baina pilatzen eta pilatzen doa. 40 urtetik gora gabiltza plastikoa erabiltzen eta nahikoa dela esateko ordua iritsi da. Laster hasiko dira agintariak erabakiak hartzen, baina, bien bitartean, geuk hasi behar dugu ohiturak aldatzen.

L.P.: Norbanakook, gutako ba-koitzak, egindako ekintza txikiak eragin globala dutela adierazi gura diegu herritarrei. Pentsa, Espainia mailan sortutako plastikoa- ren %40 ontziak dira; hor-



Oier Etxebarria eta Laura Perez. MIRARI ALTUBE

"ZEIN PLASTIKO DIREN BERRERABILGARRIAK ETA ZEINTZUK EZ EZAGUTARAZTEN LANA DAGO EGITEKO"

taz, hori kenduz gero, asko murriztuko litzateke.

Eta ontzi horiek zelan murriztu?

O. E.: Plastikoa barik ezin gara bizi, ados, baina badaude alternatibak: jatekoa era soltean, kristalezko poteetan... Badaude aukerak, eta kontsumitzaileon presioak lagunduko du supermerkatuetan produktuak eskaintzea plastikoa barik edo, behintzat, gutxiagoarekin. Plastikorik erosi gura ez dugun jende kopuruak gora egin behar du, presio hori handitzeko.

Kostaldeetan pilatutako plastikoen irudiak sarri zabaldu izan dira, baina ez dago hara joan beharrik...

L.P.: Gure Herriko Plazan botatutako plastikoen urrun buka dezakete, eta hori erakusten gabiltza bideoen bitartez.

O.E.: Kalean lurrera botatzen duguna gero kale garbitzaileek eroango dutela uste dugu, baina

haizea dela, euria dela, errekan bukatzen dute, eta handik itsasoan. **Plastiko guztiak ez dira berdinak.** **O.E.:** Ez, lan handia dago egiteko plastikoa ezagutarazten, zeintzuk diren berrerabilgarriak eta zeintzuk ezin daitezkeen berrirori erabili jakiteko, eta horiekin zer gertatzen den ezagutu. Botilen tapoiak, adibidez; oso ondo ordaintzen dituzte; hortaz, berrirori erabili daitezke. Gure asmoa bada horien bilketa bat egitea, bide batez, taldeak ere diru-iturri bat izan dezan. **Erakundeekin jarri zarete harremanetan?**

O.E.: Jakin dugu datorren ikasturtean Agenda 21 barruan landuko dutela gaia ikastetxeetan. Pauso polita da, alde horretatik. **L.P.:** Harremanetan jarri gura dugu Udalarekin, dendeekin eta ikastetxeekin. Eta kontsolidatzen garenean, Mankomunitatearekin ere bai. Izan ere, birziklatzea garrantzitsua da, baina garrantzitsuagoa ez erabiltzea eta ez sortzea, eta, horretarako, gorago daudenekin lan egin behar da. Era berean, gure taldea irekia da; edozeinek gerturatu gura badu, hemen bidea: plastikoa-buruan@gmail.com.



IMANOL SORIANO

Euskara eskutik hartuta lanean

Auzoko egitasmoaren VI. jaia hainbat jatorritako lagun topagunea izan zen joan den domekan. Aretxabaletoarekin batera, Oñatiko, Arrasateko, Gasteizko eta Eskoriatzako taldeak elkartu ziren, eta euskara ardatz hartuta jolasez, janariz eta dantzaz zipiztindu zuten jaialdia. "Benetan ederra izan zen", dio Paloma Martinez antolatzaileak.

Batzar orokorra egingo du Loramendik hilaren 20an

Loramendi elkarteak ohiko batzar orokorra egingo du ekainaren 20an, eguena, udaletxe zahar- rrean (18:15), eta bertara gonbi- datu ditu bazkide guztiak.

Iaz egindako jarduerak aurkeztuko dituzte, lehenengo, eta diru kontuak azaldu. Ondoren, 2019rako zehaztutako plangintzaren berri emango dute, eta diru kontuak aurkeztu. Bukatze- ko, galderak eta eskaerak izango dira. Ildo horretatik, bazkideei jakinarazi diete alde aurretik edozein ekarpen egin gura izanez gero udaletxe zaharrean aurkezteko; hona hemen ordutegia: astelehen eta eguaztenetan 16:00-19:00 eta martitzen eta eguaztenetan, berriz, 09:00-12:00.

Patrioiak egiten eta josten irakatsiko du Katalin Antxiak

Katalin Antxia Abasolo gazte aretxabaletoarekin, Modu Bat markaren sortzaileak, patrioiak egiten eta josten irakatsiko du uztailean, beste urte batzuetan egindako legez. 18 orduko ikas- taro trinkoa izango da eta hiru astelehenetan emango du, Ar- kuden (09:00-12:00 eta 15:00-18:00): uztailean 1ean, 8an eta 15ean.

Talde txikia sortuko duela aurten eta plaza gutxi daudela iragarri du; hortaz, lehenbailehen eman behar da izena. Helbidera honetara idatzi behar da: info@modubat.fr. Prezioa 190 euro da, eta horren barruan sartzen da materiala: patrioiak egiteko materiala, prototipoak egiteko oihala eta josteko makinak.

Jou Diaz
Karakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



UDAKo entrenatzaile berriak, Ibarra futbol zelaian egindako aurkezpenean, talde argazkian. MIRARI ALTUBE

UDAKo entrenatzaileak aurkeztuta, lanerako prest

Mikel Larburu zumaiarra izango da UDAKo Ohorezko Erregionaleko taldearen entrenatzailea. Larburuk alboan izango ditu Dabid Zaitegi bigarren entrenatzailea, Andoni Etxagibel atezainen entrenatzailea eta Alvaro del Blanco prestatzaile fisikoa

Imanol Beloki ARETXABALETA

Astelehenean aurkeztu zituen UDAK datorren denboraldira begira izango dituen entrenatzaileak. Ekitaldia Ibarra futbol zelaian izan zen, eta bertan, zuzendaritzako zenbait kiderekin batera, Agurtzane Elkoro presidentea eta Adrian Merino presidenteordea izan ziren, besteak beste. Denboraldia hasteko hainbat aste geratu arren, gogotsu agertu ziren guztiak, eta aurrez aurre duten erronkari heltzeko gertu.

Nobedade handiena Ohorezko Erregionaleko taldearen gidaritza hartu duen Mikel Larburu da. Gaztea izan arren, badu eskarmentua entrenatzaile lanetan: lehenengo, Ermuan jardun zuen, Euskal Ligan; gero, Zumaiakon, Preferentean, bi urte; eta azken denboraldia Ordizian egin du, Hirugarren Mailan jokatzeko duen taldearen bigarren entrenatzailea izan da. "Aretxabaleta plaza oso polita da eta erabakia hartzea erraza izan da. Nik sa-

rri jokatu izan dut hemen; jende asko gerturatzeko da ikustera eta badakit klub garrantzitsua dela herritarrentzat. Hortaz, erabakia erraza izan da, gauza on asko eskaintzen dituelako".

Larburuk alboan izango ditu Dabid Zaitegi bigarren entrenatzailea, Andoni Etxagibel atezainen entrenatzailea eta Alvaro del Blanco prestatzaile fisikoa. Entrenamendu saioekin uztailearen 8an hasiko dira, sei edo zazpi saio egiteko asmoa dute, eta gero, abuztuaren 19an denboraldiaurreari ekingo diote.

Talde berria Erregionalean

Beste berrikuntzetako bat da talde berria izango duela UDAK, Lehenengo Erregionalean; hain

IBAI ZANGITUREN GIDARITZAPEAN, LEHENENGO ERREGIONAL MAILA IZANGO DU AURTEN

zuzen ere, Ibai Zangituk gidatuko du hori, eta berarekin batera Joserra Prieto izango da.

Beste mailetako entrenatzaileak

Preferente mailako entrenatzailea Alvaro Del Blanco izango da, eta berarekin batera, Ibai Paramo. Ohorezko gazte maila Unai Calzonek eta Jokin Badillok gidatuko dute; lehen gazte A taldea, Ibai Paramok eta Aitor Perezek. Lehen gazte B taldea, berriz, Jonan Jakak eta Jon Gonzalezek; ohorezko kadete maila, Alvaro del Blancok eta Danel Uribealgok; lehen kadete A maila, Igor Altubek eta Ander Martinezek; lehen kadete B maila, Asier Urtzelaik eta Jon Azarolak; infantil mailako parte hartze lehen taldea, Josu Letonak eta Ricardo Suarezek; eta bigarren taldea, Antxon Isasisasmendik eta Jokin Isasisasmendik; azkenik, infantil txiki mailako entrenatzaileak Beñat Illaramendi eta Iago Zuazua izango dira.

Bandaren emanaldia izango da gaur, Santa Ritako lorategian

Ekaina girotzeko asmoz antolatutako '7x7 kultura kalean' egitasmoko hiru hitzordu geratzen dira

I.B ARETXABALETA

7x7 kultura kalean ekimena bere fruituak ematen ari da. Dagoeneko lau hitzordu izan dira herriko zenbait txokotan, eta herriarren erantzuna ona izaten ari da. Hala ere, ez da amaitu ekainerako prestatutako egitaraua, eta beste hiru hitzordu izango dituzte aurretik aretxabaletarrek.

Gaur, Leizarra Musika Eskolako ikasleek osatutako bandaren emanaldia izango da, 19:00etan, Santa Ritako lorategian. Honez gain, beste bi hitzordu geratuko dira *7x7 kultura kalean* egitasmoari amaiera emateko. Ekainaren 18an, martitzenean, plazan izango da musika eskolakoen kontzertua, 18:00etan, eta ekainaren 19an, eguaztenean, berriz, Jaiki Elkartearen eta Altraste Danza-ren ikuskizunak Durana kalean izango dira, 19:00etan.

Jaiki elkartearen ikuskizuna

Aretxabaletako Jaiki Elkartek *Gorputza gogoan* izeneko dantza ikuskizuna eskainiko du Durana, eta, elkartekideek adierazi dutenez, ikuskizun "xumea" izango da: "Hilaren 19an, Jaiki elkartekook kalera aterako dugu *Gorputza gogoan* ikastaroan landu duguna; hau da, bat-bateko konposizioa. Zuriñe Benavente Claverasen gidaritzapean, agerpen xumea eskainiko diegu bertaraten direnei".

Herriko taldearen saioaren ostean, berriz, Altraste Danza konpainiaren *Qué tienen las Flores* ikuskizuna ere izango da. "Feminitatearen eta bere mugen inguruko gogoeta bat da, ikusleekin barru-barruko egoera hurbil batetik egin, eta eszenografiak, testuak, dantzak eta musikak bat egingo dute, gure presentzia harrapatuko duen giro bat sortzearren".



Voces Ribera taldearen kantaldia, eguaztenean, Santa Rita lorategian. MIRARI ALTUBE

Gazte udalekuetan izena emateko azken eguna, ekainaren 23a

Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztelekuek elkarlanean antolatu dute udako aisialdi programa, eta bertan izena emateko azken eguna ekainaren 23a izango da.

Udaero bezala ezagutzen den udako aisialdi eskaintza honako egun hauetan gauzatuko da: uztailearen 4an, 5ean, 8an, 10ean eta 12an. Hala, egun bakoitze-

rako irteera bat antolatu dute uztaileko lehen hamabostaldi horretarako.

Horrekin batera, uztailearen 16tik 19ra bitartean, *Gaztekonkis* abentura eta misterio lehiaketa izango dute nerabeek Lexargaraten. *Udaero* gazte udalekuetan bakarrik, *Gaztekonkis*-en bakarrik edo bietan eman daiteke izena. Udalekuetako eskaintzan parte hartu nahi duenak 40 euro ordaindu beharko ditu eta *Gaztekonkis*-en parte hartu nahi duenak, berriz, 20 euro.

Elkartasuna helburu, egitarau zabala aurten

Eskoriatzako Aste Zapatista ekainaren 17tik 22ra bitartean izango da. Urtero moduan, EskoZap elkarteak egitarau zabala antolatu du, beste mundu bat posible dela adierazteko mezua lau haizetara zabaltzeko asmoarekin

Imanol Beloki ESKORIATZA

19 urte beteko ditu aurten Eskoriatzako Aste Zapatistak. EskoZap elkarteko kideek antolatuta, elkarlana eta ilusioa oinarri izaten dute urtero, beste mundu bat posible dela adierazteko helburuarekin. Hala, Chiapasekin elkartasuna adierazteaz gain, mundu justuago baten alde kontzientziak pizteko helburu du asteak. Hori horrela, aurten ere egitarau zabala prestatu dute; astelehenean, esaterako, Emakumeak Ametsak Ehuntzen ekintza egongo da eta martitzenean aldaketa klimatikoaren gaineko solasaldia eskainiko dute Guardacielos plataformakoek.

Taldearen babesarekin

Udalaren babesaz gain, hainbat taldek eta norbanakok beraien ekarpena egingo dute Aste Zapatistan. Herrikoak direnek zein beste hainbat lekutatik bertaratu direnek. Ekainaren 19an, esaterako, buztzingintza saioa eskainiko dute, plazan, Buztinate elkarteko kideek. Ekainaren 21ean, *Gorputza gogoan* dantza ikuskizuna eskainiko dute, plazan, Aretxabaletako Jaiki elkartekoek. Zapatuan, Inkernu tabernan Puro Chile taldearen kontzertua izango da, Atxorrotx



EskoZap-eko hainbat kide Aste Zapatistako aurtengo kartelarekin. ESKOZAP ELKARTEA

Kultura Elkartekoek lagunduta... "Urtero jasotzen dugu besteen-gandik laguntza, eta hori txalotzekoa da. Gutzirekin asko egiten saiatzen gara, eta aurten prestatu dugun egitarauko ekintzak ere harrera ona izatea espero dugu. Hala, jendeari parte hartzeko eskatu nahi diogu...", adierazi dute EskoZap elkarteko kideek.

Puro Chile taldea Inkernun

Egun handia zapatua izango den arren, egubakoitzean, ekainaren 21ean, Puro Chile taldea-

ren emanaldia izango da Inkernu tabernan, motorrak berotzeko. Izen handiko musikariekin osatzen duten taldea da; hain zuzen ere, Mamen Rodrigo abeslaria (Vulpes), Urko Igartiburu gitarra-jolea (Tiananmen), Cesar Tejada baxu-jotzailea (EH Sukarrak), eta Josu Korkostegi bateria (Parabellum) izango dira oholtzan.

Ekintza bereziak artisau azokan

Ekainaren 22an izango da egun handia. Aste osoko ekintzei bukaera emateko, herri bazkari

mexikarra izan ohi da urtero, eta aurten ere ez du hutsik egingo. Hori horrela, dagoeneko salgai daude txartelak, 15 euro-tan. Eskoriatzan: Inkernu, Naira, Hotela eta Goxo Txiki tabernetan; eta Aretxabaletan: Txiki-barren. Hala ere, bazkari egunean bertan ere erosi ahal izango dira txartelak. Bazkariaren aurretik, aldiz, artisau azoka izango da; bertan, Whitling tailerra eta *El Process* izeneko liburuaren aurkezpena izango dira berezitasun. "Whitling tailerra Sergio Aldayk eskainiko du, eta labana batekin tailatzeko teknikaren berri emango die bertaratzen direnei. Ondoren, Jorge Arzuagak *El Process* liburuaren aurkezpena egingo du. Arzuagak, 2013an, 41 eguneko gose greba egin zuen, Madrilgo Puerta del Sol-en, sistemaren kontrako protesta bakezalea irudikatzeke eta Espainiako Gobernuaren dimisioa eskatzeko...".

Bazkalondoa, Iñaki Bizkai akordeoilariak girotuko du, eta D'Capricho Habanako bikotea ere igoko da oholtzara. Azken hauek euskaraz zein gazteleraz abestuko dute.

Bestelako ekintzak

Aste osoko egitarauaz gain, aurten, bi gazta porra solidario egingo dituzte; ataratako dirua, Buztinate eta Gu Haziak Gara elkarteetara bideratuko da.

Honekin batera, kultura etxean Lumaltik elkartearen eskutik, *11 Eskakizun Zapatista* erakusketak izango da aste osoan ikusgai, eta Fernando Eskoriatza plazan, Jose Mari Legorburuk egindako tako mexikarrek ere ez hutsik egingo. Edizio guztietan izan den moduan, haurrentzako piñata mexikarrak ere izango dira aurten, beti bezala.

Aste Zapatistako egitaraua

ASTELEHENA, 17

- **19:00** Eskoriatzako eta Chiapasko emakumeak ametsak ehuntzen. Emakumeen plazan, Inkernu aurrean.

MARTITZENA, 18

- **19:00** *Manipulación climática* hitzaldia. Kultura etxean.

EGUAZTENA, 19

- **16:45** *Eraldatzearen magia* buztzingintza tailerra. Plazan.

EGUENA, 20

- **19:00** Biolontxelo kontzertu didaktikoa. Plazan.
- **22:00** *Revueltas* film independentea. Zaldibarren.

EGUBAKOITZA, 21

- **11:00** *Beste mundu bat posible delako* hitzaldia. Luis Ezeizan.
 - **18:00** Alaitzen taldearen emanaldia. Zaharren egoitzan.
 - **19:30** *Gorputza gogoan* dantza ikuskizuna. Plazan.
 - **22:30** Puro Chile taldearen kontzertua. Inkernun.
- ### ZAPATUA, 22
- **10:00** Artisau azoka. Plazan.
 - **14:30** Herri bazkari mexikarra. Plazan.
 - **ondoren** Iñaki Bizkai akordeoilaria.
 - **00:00** Margu disc jockeya. Nairan.

Torrebasoko autobus geltokiak martxan daude astelehenetik

Batez ere, Fagor-Ederlan enpresako langileek eta Almen-Arizmendiko ikasleek erabili ditzaten jarri dituzte

I.B ESKORIATZA

Fagor-Ederlan parean, Torrebasoko zonan, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako oinezkoentzako proiektuarekin batera, Arizmendi Ikastolako eta Fagor-Ederlan enpresako ikasleek eta

langileek garraio publikoa erabiltzeko aukera izan dezaten, noranzko bakoitzean autobus geltoki bana jarri dute, trafikoa baretzeko uhartetxoarekin eta semaforoarekin batera. Hori horrela, astelehena ezkerera

bilgarri daude Eskoriatza eta Aretxabaleta arteko bi geralekuak. Lurraldebus zerbitzuko DG05 Eibar-Gasteiz, DG05D Eibar-Gasteiz-Uribarri Ganboako urtegitik datorrena- eta DG10 Bergara-Eskoriatza lineetan.

GI-627 errepideko 29,6. puntu kilometrikoan dauden autobus geltoki berri hauei honako izen hauek jarri dizkiete: Eskoriatzarako noranzkoko geralekua: *Ederlan*; eta Aretxabaletarako noranzkokoari, berriz: *Almen*.

Badena bidegurutzean

Abiadura murrizteko badena jarri dute Arbiñoste kaleko bidegurutzean. Herriguneko errepide zentralera, Aranburuzabala 11 parera irteteko stop seinalea dute ibilgailuek, eta, aldi berean, oinezkoentzatz zebra-bidea dago. Hala, ibilgailuek bidegurutze horretara iristen direnean abiadura moteltzeko asmoz jarri berri dute badena.



Udalbatza berria eratuko dute zapatu honetan

Bihar, zapatua, 12:00etan, udalbatza berria eratzeko osoko bilkura egingo dute. Hautetsi berriek kargua hartuko dute, eta alkatea ere izendatuko dute. Ez da sorpresarik aurreikusten; hala, Joserra Zubizarreta izango da alkate beste lau urtez

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzan ere datozen lau urteetara begirako udalbatza berria eratuko da zapatu honetan, osoko bilkura aretoan egingo den ekitaldian. 12:00etan hasiko da, eta bertan, udalbatza berriaren osaketa eta alkatearen hautaketa egingo da.

Hamaika zinegotzik jasoko dute kargua: alderdi jeltzaleko sei zinegotzik –Joserra Zubizarreta, Maite Uribe, Antonio Regaño, Puri Regidor, Josu Ezkurdia eta Ana Castro–, EH Bilduko lauk –Eluska Irazu, Nestor Arana, Dorleta Sologaitoa eta Ander Errarte– eta Eskoriatzako Elizateen Elkarte batek –Iñaki Kerexeta–.

Protokoloa jarraituz

Lehenengo eta behin, zinegotzi zaharrenak eta gazteenak Adinekoen Mahaia osatuko dute, osoko bilkuraren buru izango direnak. Zaharrena, Joserra Zubizarreta, jarduneko alkatea da, eta gazteena, berriz, EH Bilduko Ander Errarte, eta beraiek izango dira kargua hartzen duten lehenak.

Adinekoen Mahaia osatuta, euren ardura izango da kargua hartuko duten zinegotzi guztien kredentzialak hartzea eta ondo daudela ziurtatzea. Ondoren, udalbatza eratuko duten beste zinegotzi guztiek kargua hartuko dute, eta, hala, udalbatza osatuta geratuko da. Hurrengo pausoa izango da 2019-2023 agintaldirako alkatea hautatzea, eta hori bozkatu egingo du udalbatzak.

EH Bilduko Nestor Arana faltan

EH Bilduk lau zinegotzi izango ditu datorren agintaldian. Laurek aurkeztu dituzte euren kredentzialak, baina zapatuko ekitaldian ez da Nestor Arana egongo; beraz, udalbatza berriak egiten duen lehen osoko bilkuran hartuko du zinegotzi kargua.



2015ean, Joserra Zubizarreta zumitzezko uztai eskuetan duela. GOIENA

ADINEKOEN MAHAIA JOSERRA ZUBIZARRETA ETIA ANDER ERRARTEK OSATUKO DUTE

Udalbatza osatuko duten hamaika zinegotzitik lau izanda, oposizioetik lan egitea tokatuko zaie.

Elizateen botoa, EAJrentzat

Eskoriatzako Elizateen Elkarte Iñaki Kerexetak adierazi duenez, beraien boza alderdi jeltzalearendako izango da: "Udal hauteskundeetan boto kopuru gehien jaso zituen alderdiari emango diogu gure botoa; hau da, EAJri. Agintaldi berrira begira, gehiengo osoa izango du, baina elkarlanerako prest agertuko gara, pasa den agintaldian moduan Elizateetako proiektuen alde egiten".

Zumitzaren ohiturari eutsita

Duela bi agintaldi berreskuratutako ohitura zahar bat da zumitza –uztai formako egurra– alkate batetik bestera pasatzea. Pasa den agintaldian, Beñat

Herce alkate ohiak Joserra Zubizarretari pasa zion zumitzezko uztai. Aurten, aldiz, erabaki barik dute nola egingo duten. Ez da sorpresarik espero, udal hauteskundeetan alderdi jeltzaleak gehiengo lortu zuelako. Hala, Joserra Zubizarretak hartuko du alkate berriaren kargua, eta Adinekoen Mahaia edo alkateordeak pasako dio zumitzezko uztai berari.

Alkateak hitza hartuko du

Joserra Zubizarretak bere sentimendu pertsonala ardatz hartuta prestatu du osoko bilkura aretora gerturatuko diren herritarren aurrean irakurriko duen testua: "Sentimendu guztiaz prestatu dut esan beharrekoa. Dena den, aldaketa batzuk egingo ditut, agian, azken orduan, eta ez nuke ezer aurreratu nahi. Momentu honetan bizitzen ari naizena ardatz hartuta idatzi dut esan beharrekoa...", adierazi du Joserra Zubizarretak.

Gaineratu du aginte-makila San Pedro egunean, ekainaren 29an, aterako duela udaletxetik, San Pedro parrokiarako bidea egingo dutenean; hau da, Elizbiran.



Ikasleak, Santa Marinaran errekan batutako zaborrekin. ARIZMENDI IKASTOLA

Zabor bilketa izan dute erronka Almen guneko ikasleek

DBHko maila guztietako ikasleek 'Trashtag challenge' izeneko erronka abiarazi dute proiektu moduan

I.B ESKORIATZA

Sare sozialetako erronkak oso hedatuta daude nerabeengan. Batzuk absurdoak dira, baina Arizmendi Ikastolako Almen gunean *Trashtag challenge* izeneko proiektua jarri dute martxan. Erronka honek zabor bilketa egitea du helburu; lehen ekintza nagusia eguaztenean gauzatu zuten DBHko ikasleek.

Arizmendi-Almen gunean iraunkortasunarekin loturiko lanketa bat egin zuten lehenbizi, eta ondoren, txoko ezberdinak zaborrez garbitzeko aprobetxatu zuten.

Taldeetan banatuz, garbiketa

DBHko 1. mailakoek ikastolako inguruetan eta Torrebasoko industrialdean egin zuten zabor bilketa. DBHko 2. mailakoek, berriz, bidegorria Aretxabaletarantz hartu, eta Urkulu urtegirako bidea aprobetxatu zuten zabor bilketa erronka egiteko.

DBHko 3. eta 4. mailakoak, berriz, Eskoriatzara joan ziren, taldeetan banatuta, tarterik handiengan erreka garbitzeko. Goizean zehar jasotako zabor guztia Santa Marina plazan bildu zuten, eta Eskoriatzako Udalak jarritako zaborrontzietara bota.



IRATXE ARRESE

Ikasturte amaierako ekitaldia

Mikel Markezen eta Eñaut Elorrietarekin agurtu dute ikasturtea Eskoriatzako Berbalagunek. Eskoriatzako Berbalagunen taldeak bukatu du aurtengo ikasturtea, eta, hura borobiltzeko, Mikel Markezen eta Eñaut Elorrietaren *Baga, biga, higa* hitzaldi musikatuaz gozatzeko aukera izan zuten, bai taldeko kideek, eta baita gainerako herritarrek ere Zaldibar antzokian.

Gazte udalekuetan irteerak izango dute protagonismoa

Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztelekuetako nerabeei zuzendutako uztailleko 'Udaero' programa osatu dute dagoeneko. Horretarako, izena eman beharko dute, eta azken eguna ekainaren 23a izango da. Prezioa, berriz, 20 eurokoa izango da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Udaero Aretxabaleta eta Eskoriatzako gaztelekuak elkarrekin antolatzen duten udako aisialdi eskaintza da. 12 eta 17 urte bitarteko nerabeei zuzenduta dago, eta bertan izena emateko azken eguna ekainaren 23a izango da.

Egitasmoa bi zatitan banatuta dago, eta gazte udalekuetan bakarrik, *Gaztekonkis* abentura lehiaketan bakarrik edo bietan eman daiteke izena. Azken hilabeteetan, Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztelekuetan zein ekintza egin pentsatzen jardun dute, eta dagoeneko osatuta dute programazio osoa.

Gazte udalekuak

Uztailaren 4an, 5ean, 8an, 10ean eta 12an gauzatuko dituzte gazte udalekuak. Prezioa 40 eurokoa

izango da, eta egun bakoitzean irteera bat egingo dute. Uztailaren 4an, Oñatiko Usako presara joango dira bizikletan, arratsalde-pasa; uztailaren 5ean, Zarautzera joango dira egun-pasa, eta bertan surf ikastaroa egiteko aprobetxatuko dute; uztailaren 8an, berriz, Urkulu urtegiara joango dira eta bertan ginkana egingo dute; uztailaren 10ean, aldiz, hockey partida erraldoia jokatuko dute, eta gero, parrilada egingo dute nerabeei; azkenik, uztailaren 12an, inguru abentura egingo dute Garaionen, eta ostean, Landara joango dira arratsaldea pasatzera.

'Gaztekonkis' abentura

Bestalde, Eskoriatzako eta Aretxabaletako nerabeei uztailaren 16tik 19ra abentura eta misterio

ugari izango dituen *Gaztekonkis* lehiaketa izango dute. Mendian barrena lau egunez arituko dira, eta askotariko probak gainditu beharko dituzte.

Antolatzaileek adierazi dutenez, aurtun, duela bi urte moduan, Lexargaraten izango da abentura lehiaketa, beste urteetan egin duten moduan. "Lexargarateko txaboletan izango dugu kanpaleku nagusia, eta hortik mugituko gara. Izen-emateen ostean, guraso bilera ere deituko dugu", adierazi du Jone Ojea koordinatzaileak.

Izena ematea ekainaren 23a arte egongo da zabalik, gaztelekuetan, eta plaza mugatuak daude. Informazio gehiago nahi duenak Eskoriatzako eta Aretxabaletako gaztelekuetara joanda lor dezake.



Libe Ramila eta Jon Errasti, Gatz Museoko arduradun berriak. IMANOL BELOKI

Produkzioa handitzeko eta turismoa erakartzeko, berrikuntzak museoan

Gatz produkzioa handitzeko eremu berria atontzen hasita, Santa Columba ermitan harrera berria egingo dute

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Libe Ramilak eta Jon Errastik hartu dute Gatz Museoko lanen ardura. Gatz produkzioa eremu berrira tresneria eta makineria eramaten duten bezain pronto, han hasiko dira gatz ekoizten, eta urtea amaitu aurretik, berriz, harrera Santa Columba ermitara bideratu nahi dute.

"Eremu berrian, gatz produkzioa eta botiletan sartuko dugu. Hala ere, momentu honetan, eraikin zaharrea produzitzen dugu eta eremu berrian botiletan sartu. Asmoa da aurrera begira dena eremu berrian egitea", adierazi du Jon Errastik.

Aldaketak produkzioan

Berrikuntza hauekin, gatz gehiago produzitu ahaliko dute, eta hori dela asmoa adierazi du Errastik: "Bailarara eta bailararik kanpora hedatu nahi dugu

ekoizpena. Dorla kopuru bera mantenduko dugu; hala ere, instalazio berrietan jarritako lehortegi berriarekin gatz gehiago produzitzeko aukera izango dugu. Ura berotzeko sistemak orain arte gasaren bidez funtzionatu du, eta etorkizunean biomasazko galdara bat jarriko da. Hasiera batean, bi dorlarekin hasiko gara, baina sei jartzeko egokituta dago". Honekin batera, Gatz Museoko denda eta harrera Santa Columba ermitan joango dela gaineratu dute arduradunek. Espero dute urte bukaerarako izatea lanak eginga.

Aldaketak bisitetan

Libe Ramilak adierazi du ekainean ordutegi berarekin jarraituko dutela, baina uztailan eta abuztuan, 11:30ean euskaraz eta 13:00etan gaztelaz izango direla bisita orduak.



Iaz, *Gaztekonkis* lehiaketa amaitu osteko talde argazkia. ESKORIATZAKO GAZTELEKUA

Nerea Pavo elite mailan arituko da datorren denboraldian

'Play-off'-etan, joaneko eta bueltako partiduak irabazi dizkio Bilbo FS areto futbol taldeak Preconte Telderi

I.B ESKORIATZA

Nerea Pavo eskoriatzarrak lehenengo mailan jokatuko du datorren denboraldian Bilbo FS areto futbol taldearekin.

Play-off-a jokatu dute Preconte Telde talde kanariarraren

aurka. Etxean 1-0 irabazi zuten partidua eta kanpoan, berriz, 1-2 garaituta, lehen mailako taldea da Bilbo FS taldea, eta, beraz, Nerea Pavo Eskoriatzako atezainak elite mailan jokatu du datorren denboraldia.

Bueltako partidua irabazi arren, asko sufritu zuen Bilbo taldeak. Lehen zatian, bi taldeek izan zituzten aukerak, baina partiduaren gakoa bigarren zatian egon zen. Izan ere, bilbotarrek dominatu zuten jokoa. Aurkariak aurretik jarri ziren markagailuan lehenengo zatian, baina, bigarrenetan, Bilbo FS taldekoek berdintzea lortu zuten, eta bigarren gola ere sartzea lortu zuten; horrenbestez, lehenengo mailako txartela lortu zuten.

Andramari jaiak begirako kartel lehiaketa martxan da

Andramari jaiak irailaren 7an, 8an eta 9an ospatuko dituzte, eta, horretarako, kartel lehiaketa jarri dute martxan. Parte hartzaileek hainbat oinarri bete beharko dituzte, eta *Leintzgartzaga.eus* webgunean ikusgai daude; lanak entregatzeko azken eguna uztailaren 5a izango da, eta 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira.

Honekin batera, jai batzordea hasi da lanean aurtengo Andramari jaietarako egitaraua prestatzen, eta, Joannes Mendizabal Kultura zinegotziak adierazi duenez, ia guztia prest daukate: "Jai batzordeko lehenengo bileta pasa den egunean egin genuen, eta, urtero moduan, gazte jendea hurbildu zen, batez ere. Egitaraua, gutxi gorabehera, eginda dago, baina gauza batzuk lotzea falta zaigu. Hala ere, oporrak hartu aurretik dena lotuta uztea da asmoa".



Luis Zabala, Cuatrovientos baserrirako bidetik errepide nagusira irteteko bidegurutzean. JULEN IRIONDO



Lugarategi baserriko Antonia Bergaretxe, bide berria nondik egingo duten adierazten. J.I.

Hamarkada oso bat borrokan

Hamar urte dira Cuatrovientos baserri inguruan AHTaren lanak hasi zirela; ordutik, makina bat buruhauste izan dute eta dute –errepide nagusiko bidegurutzearekin, adibidez– bertakoek. Lugarategiko eta Bolinburuko bizilagunekin ere izan da GOIENA

Julen Iriondo ARAMAIO

Arrasate eta Aramaio lotzen dituen errepide gaineko zubibidera ematen duen tunelaren gainaldean dagoen Cuatrovientos baserrikoek hamaika buruko min izan dute urteotan Abiadura Handiko Trenaren lanen kontura; besteak beste: euren etxerako pista zihonan mendi magalean 2010ean gertatutako lur-jausia, pitzadurak etxean... eta, etxerako bidea eta lur-jausiak erasandako gunea egokituta, errepide nagusirako lotunearen eragozpen eta arriskuak. Eta azken horrekin bueltaka jarraitzen dute oraindik, inguru hartan AHTaren lehen lanak egiten hasi zirenetik hamar urtera.

Eragozpenei dagokienez, errepide nagusira irten eta Arrasate aldera joan nahi izanez gero, zuzenean joan ezina; arau hausterik egin gabe, behintzat, Iba-

rraraino joan eta han buelta hartu beste erremediorik ez dute. Arriskua, berriz, bidegurutzeara bihurtuaren erdian egoteak dakar; irteten hasi eta beste ibilgailu batek aldamenetik edo atzetik ematekoa, eta berdin norberak legezko maniobra egin gabe edo eginda –ordu 50 kilometroko muga dago errepide zati horretan, baina, oro har, ez da errespetatzen, eta bizkorrago joaten dira automobilak–.

Cuatrovientoskoek ez dute aukerarik galtzen tartean-tartean eragozpen eta arriskuok gogorarazteko eta konponbide bat

BERE BASERRIRAKO BIDEA BEHARRIK GABE KENDUKO DUTELA DIO ANTONIA BERGARETXEK

eskatzeko, orain artekoa baino arrakasta handiagorik izan ezean –eta bide ofizialeatik egin dute hainbat saiakera–, lehengoan jarraitu beharko dutenaren jakitun izan arren. "Nik esaten dudana da: Eusko Jaurlaritza dago AHTaren atzean, eta lanon proiektuak behar den moduan egitekotan egin beharko zuketena da parean harrapatu dituztenak –eta ez dut esaten parean inor harrapatu behar ez zutenik– errespetatu eta behar den bezala tratatu", dio Luis Zabalak: "Baina nola hor bizi dena baserriar familia bat den, hor konpon; hemen bizi dena politikari bat balitz, honezkeru dena konpondu zatezke".

Konpontzeko, hainbat izan litezke aukerak; Cuatrovientoskoen gustukoena, egungo bihurtu aurreko zuzenera ateratzea euren etxerako bidea, baina

beste batzuk dira biribilgune bat egitea edo semaforoa jartzea, Zabalaren esanetan. Eta behin betiko konponbidea jarri artean, behintzat seinaleztapen bereziarekin beste gidariak ohartaraztea eskatzen dute. Ze, tonu larriz dio gizonak: "Bidegurutze horretan, bizitza jokoan jartzen dugu egunero!"; eta litekeena da, bihurtuak, batetik, eta bazter-babesek, bestetik, eragin-dako ikuspen murriztaren aurrean adibidez emazteak darabilen sistemak –irratia ere itzali eta inor datorren edo ez ebazteko entzumena erabiltzea– halako batean huts egitea.

Lugarategiko kasua

2016ko otsailean gertatu zen Untzillako Lugarategi baserria eta azpitik pasatzen den trenaren bidea arteko euste-horma apurtu eta neurri batean behera etortzea. Iragarritako gertaera izan zen: "Lurra mugitu egiten da; ez nuke hemen bizi nahi" esan ei zion behin euste-horma ingurua ikuskatzera joandako teknikari batek baserriko bizilagun Antonia Bergaretxeri: "Hori magal hori josterakoan egin zituzten gauzak gaizki. Hauek egiten dutena da lanak

HALA AGINDU ARREN, HONDATUTAKO UR ITURBURUA EZ ZIETEN KONPONDU BOLINBURUKOEI

azpikontratatu, merkeenera, baina nola lan egiten duten inork ez du zaintzen". Gertatu behar zena gertatu zen, eta kalbarioa Bergaretxerentzat: "Diru asko gastatu dut abokatutan", dio.

Zenbait hilabetez etxetik kanpo ere egon behar izan zuen, segurtasunagatik; pitzadura handiak agertu ziren apurtutako euste-hormaren eta baserriaren arteko zelaietan. Lurrak egonkortzeko hainbat lan egin dituzte –etxearen oinetara erakitako beste euste-horma bat, besteak beste–, eta hilabete haiek pasata, berriz ere etxera itzuli zen arren, gurutze-bidea ez zaio amaitu, etxe inguruan AHTaren lanak hasi zituztenetik hona bizi duen gurutze-bidea.

Bideen kontura borrokan ibili da eta dabil, esate baterako: Lugarategi azpian, trenaren bidearen beste aldean dagoen Bolinburu baserri ingurutik pista bat zihonan, adibidez, Antonia Bergaretxeren baserrira –"geuk egin eta ordaindutako bidea"–; pista hori moztu egin zuen trenaren bideak, eta handik Lugarategira iristea ezinezko bihurtu zen, ondorioz. Konpentsazio gisara, eta etxera iristeko bide hura soilik utzi ziotenez, Untzilla auzogunetik Lugarategira doan bidea konpontzerako orduan zorua zementuzkoa egitea eskatu zuen Bergaretzek –"eta hala onartu zidaten, sinatuta daukat"–; *todo-uno*-arekin egiten hasi ziren, ordea, eta berak kexa, eta erantzuna, han



Bolinburu baserriko Luis Mari Eriz, segurtasun tunela egin behar duten lekua atzean dela. J.I.

behetik, Bolinburutik, biderik –ganorazkorik, behintzat– ez zela trenbidearen aurretik ere egon –konpentsaziotarako arrazoirik ez, beraz–: "Baina nik banituen bide hori bazela frogatzen duten agiriak". Azkenean lortu zuen bidea zementuz egitea.

Orain, berriz, bide hura ere kendu egin behar diote: euste-hormarekin izandako arazoari behin betiko irtenbidea emateko asmoz, goiko aldeko malda leuntzekoak dira, eta bidea ere harrapatuko dute lanek. Atzeragotik egingo dute bide berria,

eta baserri inguruko lur gehiago galaraziko dizkiote. Gainera, inguruko malda leunduta, etxea babesik gabe –haizearekiko, adibidez– geratuko dela dio Bergaretxek, maldotako arbolak desagertu egingo direlako ere bai, lehen bota zituztenez gain.

Ez du uste obraren ardura dutenek garbi jokatzuten dutenik: lanak era eraginkorrenean egiten ez dituztenaren ustea du, eta nahita egiten dutela; lanetarako azalera handiagoak hartuz, esate baterako, kostua handitzeko eta irabaziak gehitzeko.

"Iruzurgile negargarri batzuk dira hauek. Enpresak goseak dabilta, eta enpresa buru horiek lagunak dituzte hor goian, eta majo defendatzen dute elkar". Hori da, bere esanetan, orain bidearekin egingo diotenaren kasua; alternatibarik badela uste du, aurkako iritzia agertu du, baina...: "Azkenean, bada-kizu zer egin diguten? Gobernutik sartu dute papera, desjabetzeko". Eta haserre dio: "Hemen ez dago justiziarik!".

Bolinburun, berriz,...

Bolinburu baserriko Luis Mari Erizek ere badu AHTaren lanengatik zertaz kezatu: "Baserriko bidea kristo bat eginda dago, aberietarako ere ez dugu egiten! Esan ziguten brea botako zutela bukatutakoan, baina gero ezer ez. Bestetik, baguen baserriko iturburu bat, eta esan ziguten: 'Obra bukatutakoan konponduko dizuegu'; gaur arte. Orain herriko ura dugu, baina orturako-eta ez da gauza bera, kloroa-eta izatera, hobea da iturburukoa. Eta, gero, basoetarako sarbideak-eta: anaiak, adibidez, badu atera nahi duen pinudi bat, baina ezin du, horma handi bat egin diote-eta". Eta, orain, beldur dira berriro, etxe ondoan segurtasun tunela egin behar dutela-eta: "Bakarririk pentsatzea berriz ere lehengo mugida izan behar dugula...: kamioiak aurrera eta atzera abiadura bizian –makilarekin egoten ginen zaintzen–; hautsa eta lokatza...".

Udalak dio segituko duela eskean

Cuatrovientosko Luis Zabalak erakunde askorekiko du kexa, bidegurutzea dela eta: Jaurilaritzarekiko ez ezik, baita Aldundiarekiko, Arartekoarekiko eta Adif-ekiko ere. Udalak ere gehiago egin behar duela uste du: "Lehendakariari idatzi behar badiote, idatzi diezaiotela". "Ba, hori egitea bakarrik falta zaigu", dio Lierni Altuna alkateak: "Ulertzen dut euren frustrazioa, baina Diputazioarena da bidea, eta hori da arazoa. Lur-jausiaren ostean, Diputazioak eta Adif-ek adostu zuten horrela egitea; guk hamar mila aldiz esan diegu, baina... Batzar Nagusietako eta Legebiltzarreko hainbat batzordetan egon gara, Espainiako Kongresura ere eramanean zuten EH Bilduk zerrenda handi bat...". Dena dela, eskatzen jarraituko dutela dio Altunak: "Geu ere oso inpotente sentitzen gara; baina jarraituko dugu gaizki ikusten duguna konpontzeko eskatzen".

Diruaz gain –baserriko pitzadurak konpontzeko, adibidez–, urteotan osasuna ere joan zaiola dio Luis Zabalak: "Bihotza daukat gaizki [bihotzekoa izan zuen duela urte batzuk]; bihotzarentzat pozoia dira gauzak, eta nik botika beharra dut orain. Eta gauza hauek eragiten dituztenak horrexetan ari dira, pertsona bizirik hiltzen". Honekin guztiarekin, nola sentitzen diren galdetuta, hauxe dio: "Abandonatuta; AHTaren lanek zapaldu eta txikituta!".

Apurketak eta bestelakoak salatu ditu Udalak

Harriak jaurtita eskolako kristalak apurtu izana salatu du Udalak. Horrekin batera, "Ibarako lore gehienak" apurtu dituzte, jarri berri ziren denboraldiko lore berriak. Bestalde, Pedro Ignazio Barrutia kaleko "grupo elektrogenoan" ere sartu dira, eta barruan saltoka ibili. Hori oso arriskutsua dela ohartarazi du Udalak.



Kristala apurtuta. ARAMAIOKO UDALA

Bihar izendatuko dute Lierni Altuna agintaldi berrirako alkate

12:00etan hasiko da inbestidura ekitaldia, bihar, zapatua. Adinekoren mahaia osatuko dute aurrena, eta udalbatzako kideek kargua hartuko dute ondoren. Alkatea izendatzeko bozketa egingo dute azkenik. Lierni Altunak jarraituko du alkate, eta EH Bilduko beste sei zinegotzi izango ditu ondoan; EAJk bi izango ditu.

Rule of Trees taldea, Sastiñako Musika Festibaleko bigarrena

Gaur, barikua, 20:00etan hasiko da folk, pop eta rock doinuak –era akustikoan– jorratzen dituen taldearen emanaldia. Kantu ezagunen bertsiok joko dituzte. Hiru musikariek osatzen dute taldea, eta bigarren abeslari bat ere sartzen dute batzuetan. The Coors, Michael Jackson, U2, Elvis, Hevia, Zaz, eskoziako musika eta abar jotzen dituzte.

Euskadiko kirol jokoetan lehen postua Eider Vazquezentzat

Santurtzin izandako Euskadiko kirol jokoetan parte hartu zuen Eider Vazquezek, Arrasate dragoi taldeko beste gimnasta batzuekin batera. Alebin mailan lehiatu zen, eta lehen postuan sailkatu zen. Horrez gain, Nira Cid bigarren postuan sailkatu zen, eta infantil mailan, berriz, Zihara Etxeberria izan zen kategoriako onena.



Sariuak, podiumean. GOIENA

Herriarteko finalik gabe geratu dira Aramaioko pilotariak

Guardiak kanporatu du Aramaio final erdietan. Arabako Errioxako pilotariak hiru partiduetan irabazi zizkieten aurreko asteburuan aramaioarrei. Kadete mailakoa izan zen lehiatuena; 20-22 irabazi zuten kanpokoek. Gazte mailan, 10-22 izan zen emaitza, eta, nagusietan, 6-22; dena dela, egindako txapelketa-ekin gustura amaitu dute.

OHARRAK

'Girl' pelikula

Ekainaren 28an sexu askapenerako eguna dela-eta, *Girl* pelikula emango dute bihar, zapatua, 21:00etan kultur-etxean. Elena Gonzalez, zine eta giza eskubide aditua, izango da filma aurkezten.

Oinarrizko Internet

Ikastaroa izango da uztailaren 1etik 16ra. Izena, ekainaren 17ra arte, liburutegian.



Eskolako umeak, Asentzión, eguaztenez egin zuten irteeran. Hiru hiletik behin egiten dituzten irteerak. ELGETAKO ESKOLA

Denak elkarrekin ikasturteari agur esateko

2018-2019 ikasturtea ondo amaitzeko, jaialdia egingo dute eskolan gaur, barikua. Hainbat tailer egongo dira, eta baita bi erakusketa ere: argazki erakusketa eta eskulanean erakusketa. "Familiantzako zabalik" egongo den jaialdia izango da

Arantzazu Ezkibel Galdos ELGETA

Ikasturte amaierako jai egingo dute gaur eskolan. Urteroko ohiturari utsiz, baina formatua aldatuz: "Zabaldu egin nahi izan dugu, eta gurasoekin elkarlanean egingo dugu. 16:00etatik aurrera, testigua pasako diegu eurei jaiarekin jarrai dezaten", azaldu dute zuzendaritzakoek.

Askotariko ekintzak antolatu dituzte gaurko jaialdirako, eta horiek guztiak "familiei zabalik" egongo dira.

Ipuin kontaketa

Haur Hezkuntzako 3 urtekoen gelan egingo dute ipuin kontaketa; ipuinak kontatzera bi ama joango dira. Saio hori HH3 eta HH4 gelei zuzenduta egongo da, 14:45etik 15:20ra.

Ordu berean, baina liburutegian, Lehen Hezkuntzako bigarren mailako ikasleek antzerkia egingo dute: saio horretara gonbidatuta egongo dira HH5 urtekoak eta LHko 1. mailakoak. Gainontzeko ikasleak -LH 3, 4,

5 eta 6. mailakoak- tailerrak egiten ibiliko dira. Gainera, ikastetxeko ganbaran, Izar Han Xue Irazabal Gillegik egindako marrazkia margotzen ibiliko dira 5. eta 6. mailako ikasleak. Horma bat gaur margotuko dute eta bestea, udalekuan.

Askotariko tailerrak

Jolasen txokoa izango dute gaztetxoek gaur, kirol eta jolas ezberdinak ezagutu eta praktikatzeko. Jolastokiko belarretan izango da hori. Horrez gain, Haur Hezkuntzako jantokian fruta-burruntzi tailerra egingo dute -gurasoek lagunduta-; eskolako sarreran *henna*, aurpegi margotze eta tatuaje txokoa izango dute; jolastoki gaineko

IKASTURTEAN ZEHAR ATERATAKO ARGAZKIAK IKUSGAI JARRIKO DITUZTE LIBURUTEGIAN

plazan xaboizko burbuilen tailerra egingo dute; eta jolastokian patin zirkuitua izango dute.

Bi erakusketa ere egongo dira: liburutegian jarriko dituzte ikasturtean zehar ateratako argazkiak eta frontoian eskulanean erakusketa egongo da.

'Erre zenituzten sorginen'

15:20an, tailerrak geratuko dituzte eta eskola kanpoan elkartuko dira dantzarako: guztiek elkarrekin *Erre zenituzten sorginen* dantzatuko dute. 16:00etatik aurrera, haurrak gurasoen ardurapean geratuko dira eta jaiak jarraitu egingo du.

Barikuan, bazkaria

Bestalde, ikasturtea amaitzeko astebete falta den honetan, kurtso amaierako irteerak egiten dabilta gaztetxoak. Orion, Seguran, Getarian eta Elorrioren izan dira eskolako ikasleak. Hurrengo barikuan, ekainak 21, bazkaria egingo dute frontoian irakasleek eta ikasleek.

Bihar eguerdian da udalbatza berria izendatzeko ekitaldia

Aurreikusitako hautagaiek hartuko dute kargua, eta, botoen gehiengoarekin, Lazkano irtengo da alkate

L.Z.L. ELGETA

Gainerako herrietan moduan, bihar, ekainak 15, egingo da Elgetako udalbatza berriaren eratze-ekitaldia.

412 boto eskuratuta, sei zinegotzi izango ditu Lazkanoren taldeak agintaldi berrian, eta 205 botorekin, berriz, hiru ordezkari izango ditu Aintzane Oiarbide buru duen EAJren hautagaizak. Alderdi biek baieztatu dute aurreikusitako hautagaiek hartuko dutela zinegotzi kargua bihar.



Lazkano, alkate-makilarekin, 2015ean. L.Z.L.

Ekitaldiko formalitateak

Ekitaldiari dagokionez, udalbatza berria eratzea izango da lehenengo egitekoa. Horretarako, hautetsi nagusienak eta gazteenak Adineko Mahaia osatuko dute. Gotzon Goikoetxea idazkariak jakinarazi beharko du hautetsi guztiek aurkeztu

dutela eskatutako kredentziala, eta, horrela bada, eratuza eman go da udalbatza berria.

Ondoren, alkatea hautatzeko bozketak egingo dute zinegotziek. Bederatzi bototik sei ziurtatuta, Iraitz Lazkanok hartuko du aginte-makila, bigarrenez.

60 bat lagun elkartuko dira gaur Beheko kaleko auzo-afarian

Atzo hasi ziren festak, eta gaurko, Amaia DJren disko festa eta Gauargi taldearen erromeria daude iragarrita

L.Z.L. ELGETA

Jai giroa da nagusi Torrealdean; izan ere, atzo bota zuten Beheko kaleko jaietako txupina. Seigarren urtez ospatzen dituzte, eta hasieratik arrakastatsuak izan diren bizikleta lasterketak egin zituzten atzo. Neska-mutiko mordoa ibili zen nor baino nor gehiago. Unai Cantabranaren kontzertua ere izan zen.

Gaurko ere, askotariko ekintzak daude iragarrita. Buruhandiekin hasiko da festa, 18:00etan, eta tonbola ere izango da Beheko kaleko jaietan. Amaia DJk 18:30ean emango dio hasiera urteroko disko-festari, eta neska-mutikoendako afari-merienda 21:00etan izango da.

Auzo-afaria eta erromeria

Urteroko auzo-afaria 21:30erako dago iragarrita. Ondotik, Gauargi erromeria taldeak girotuko




Neska-mutikoen afaria, 2017an. L.Z.L.

du afalostea. Amaia Txintxurretaren ordezkari Laura Cantarinok egingo ditu abeslari lanak, Asier Kastro lagun duela.

Mojito-zaleek gauerditik aurrera izango dute Torrealdeako auzotarrek gertatutako mojito goxoak dastatzeko aukera.

ARRASATE
JAIETAN!

SANJUANAK 2019



- Egitaraua
- **Txosnak**
- Makalaren igoera
- Danborradan, 'Herrikoia' talde berria
- Errementari dantza
- **Kartel eta esaldi lehiaketak**
- 'Artgazki'-ko txapeldunari elkarrizketa

- Zezen-plazako hitzorduak
- 'Street boulder' txapelketa
- **Nolakoak ziren lehengo sanjuanak?**
- Haurrentako jokoak
- Onintza Enbeitari elkarrizketa
- Musika eskaintza
- **Jaietarako hainbat plan**

IMANOL SORIANO



ESKORIATZA • T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiaketak.com
hemen@hemen-garbiaketak.com

Gora San Juan jaiak!

ZURE
 KONFIANTZAKO
**GARBIKETA
 ENPRESA**






Etxe-Lan

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAK

MANTENTZE-LANAK / BERME-LUZAPENAK
ORDEZKO PIEZEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 89 97

RED sare teknika

FAGOR 

 ARISTON

CANDY

Whirlpool 



OSTALARITZA

PROIEKTUAK, EKIPAMENDUAK ETA
OSTALARITZARAKO, GARBITEGIETARAKO
ETA HOTZ INDUSTRIALERAKO MAKINEN SALMENTA.

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 12 30

Banatzaille Ofiziala

FAGOR 
FAGOR INDUSTRIAL

GURE BEZEROAK:



35 urte^{tik}
gora LTZ ofizial gisa

Etxe-Lan

www.etxe-lan.com

*San Juan jai
zoriontsuak!*

etxe-lan@etxe-lan.com
Torrebaso industrialdea 14
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)

SANJUANETAKO EGITARAUJA



GOIENA

Haurren danborrada

Sanjuanetako egun handien aurrerapen moduan, haurren danborrada izango da. Biteri plazatik Herriko Plazaraino, 19:00etan

EGUBAKOITZA 14

19:00 Uarkape frontoian ESKU PILOTA PARTIDAK. San Juan txapelketaren finalak jokatuko dituzte.

19:00 Amaia antzokian Arrasate Musikalen ikasturte bukaerako BALLET IKUSKIZUNA.

ZAPATUA 15

09:00 Seber Altube plazan hileroko III. larunbateko baserriarren azoka.

19:30 Txorbela Otxotearen KONTZERTUA San Frantzisko elizan.

19:00 HAURREN DANBORRADA, Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin. SUDCek antolatuta. Ibilbidea: Biteri plaza, Zerkaosteta, Garibai etorbidea, Maalako errebala, Erdiko kalea, Herriko Plaza.

DOMEKA 16

10:00 Zaldibar pilotalekuan batuko dira haur dantzarien taldeak. Ondoren, txistulariekin KALEJIRA.

11:15 Herriko kaleetan zehar DANTZA ERAKUSTALDIA.

13:30 Herriko talde guztiak plazan elkartuko dira.

17:15 Herriko Plazan dantza talde guztien JARDUNA eta AGURRA. Gero, DANTZALDIA GAUARGIekin. Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz dantza taldeek antolatuta.

EGUENA 20

18:30 Aire akrobazia ikuskizuna Monterron parkean Agurtzane Telleriaren eta bere ikasleen eskutik.

EGUBAKOITZA 21

18:00 Amaia antzokian Arrasate Musikalen ikasturte bukaerako IKUSKIZUNA.

19:30 HERRIXA DANTZAN Seber Altube plazan Portaloi elkarteak antolatuta.

21:30 KANTU AFARIA Jose Letona plazan SEI PISTOLS ETA TRABUKO BAT taldearekin.

ZAPATUA 22

18:00 Txosnen irekiera.

19:00 Trikitixa Eskolako en diskoa aurkezpena Monterron parkean.

21:00 Herriko Plazan DRAGOI-JANA. Plazan erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera.

22:00 Txosnagunean KONTZERTUA: Tremenda Jauria eta Kunbia Queers.

DOMEKA 23

San Juan jaien V. argazki lehiaketa jaietan zehar –ekainaren 23tik 26ra bitartean–. Artgazki elkarteak antolatuta.

12:00 Txosna batzordeak antolatuta TXUPINAZOA. Ondoren, triki-poteoa.

14:30 Herri BAZKARIA Uarkape pilotalekuan. Txosna batzordeak antolatuta.

16:00 Buenuena jatetxean 23. MUS TXAPELKETA.

16:30 ETXAFUEGOAK Herriko Plazatik. Ondoren, Seber Altube plazan POTXIN ETA PATXIN taldearen ZIRKUKO IZARRAK izeneko haurrentzako emanaldia.

17:00 TXOPO-POTEOA INCANSABLES txarangaren laguntzarekin.



San Andres Auzoa 10-D
Tel.: 943 77 30 10

18:00 Herriko Plazan MAKALA jasotzea.

18:30 ERREKORTADORE GAZTETXOEN TXAPELKETA (8-15 urte) eta ondoren gaztetxo guztientzako zezentxoak eta poneyak. Antolatzailea: Bergarako Zezenak.

19:30 San Juan Bataiatzailearen parrokian SALBE SOLEMNEA.

21:00 ERREMENTARI DANTZA Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek parte hartuko dute.

22:30 SAN JUAN SUA Herriko Plazan.

23:00 Erromeria txosnagunean Gora Herria taldearekin.

23:15 Biteri plazan hasita eta herriko kaleetan zehar, NAGUSIEN DANBORRADA. SUDCEk antolatuta.

00:00 Solstizioari akelarrea txosnagunean Pottogorriren eskutik.

ASTELEHENA 24

08:30 DIANA, Arrasateko gaiteroekin.

08:30 Arbolapetatik lizenbarikuak



GOIENA

Errementari dantza

Herriko euskal dantza taldeek eta musikariek parte hartuko dute Sanjuanetako ekintza maitatuenetakoan. *Herriko kaleetan zehar, 21:00etan*

txarangak girotuta zezenketei alternatiba. Uluak-ek antolatuta.

09:00 ENTZIERROA. Ibilbidea: Erdiko kalea, Kanpantorpea, Zerkaosteta eta J.M. Arizmendiarieta plaza. Gero,

zaleentzat bigantxak zezen plazan.

11:00 San Juan Bataiatzailearen parrokian, MEZA NAGUSIA.

11:00 Arrasateko Erraldioen eta Kilikien KONPARTSAREN KALEJIRA.

11:00 Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN KALEJIRA. 11:30ean Seber Altube plazan elkartuko dira Konpartsa eta Gaiteroekin.

12:00 Herriko Plazan ohorezko aureskua eta San Juan zortzikoa.

12:30-14:30 eta 16:30-19:00 Puzgarriak Biteri plazan Real Sociedad Fundazioak eskainita.

12:30 Etxaluzen (Abaroa) OMENALDIA 80 urtetik gorakoei.

13:00 Monterron parkean KONTZERTUA, Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN. EGITARAUA: *La Millor Terra del Mon*, Ernesto Rosillo; *La leyenda del Beso*, Soutullo eta Vert; *The Saint and the City*, Jacob de Haan; *Mecano*, Cano; *Mexico*, Francis Lopez. ZUZENDARIA: MIKEL MARKIEGI.

17:00 Herriko kaleetan zehar STREET BOULDER txapelketa txosna batzordeak antolatuta.

19:00 Txosnagunean kontzertua: EKIÑE CASADO eta TXERRIKUMEA.

19:30 ERREKORTADOREEN ERAKUSTALDIA zezen-plazan.

19:30 KALEJIRA erdiguneko kaleetan zehar Arrasateko gaiteroekin eta Arrasate Musikaleko haize-taldearekin.

23:00 Santa Barbaratik SU ARTIFIZIAL ikusgarriak, Astondoa piroteknaren eskutik.

Jai herrikoi,
parte hartzaile eta
parekideen alde

GOZATU
SANJUANAK!

ehbildu



GOIENA

Eguzkilaruri ongietorria

Ongietorria egingo diote Eguzkilaruri; ondoren, makal txikia igoko dute. *Biterin, 12:45ean*

23:15 Monterron parkean TARTEAN taldearen ikuskizuna: EZ DOK HIRU. EUSKAL MUSIKAREN BENETAKO ISTORIA.

23:15 Herriko Plazan OIHAN VEGAREkin, DISKO-FESTA.

01:00 DJak txosnagunean: The Big Mac.

MARTITZENA 25

08:30 DIANA Arrasateko gaiteroekin.

09:00 ENTZIERROA. Aurreko egunetako ibilbide bera.

11:00-14:00 JOLAS PARKEAK Biteri plazan, Monterronen eta Otalora kalean –Aspacerekin eta Auzokorekin elkarlanean–. Biteriko plazan, ikusmenarekin jolasten, bizitza eskuetan, gurpil aulkiaren magia, sormen gunea, puzgarriak, aurpegi margotzea... Monterronen, ipuin kontalariak, Saharako jolasak, oihaletatik zintzilik, ur zirkuitua...

12:00-20:00 Gazteen gunea Kulturateko plazan: karaokea, eskuter erakustaldia, DJak, tailerrak, irrati saioa, kontzertuak.

12:00 Azokan, *Zeuk iñ, zeuk jan* BAZKARIAren prestaketa.

12:00 Karaokea Biterin.

12:30 Arrasateko Trikitixa Eskolarekin KALEJIRA herriko kaleetan zehar.

12:45 EGUZKILARUri ongietorria eta makal txikiaren igoera Biterin.

13:00 APAR FESTA Biterin.

13:00 Seber Altube plazan TRAPU ZAHARRA taldearen SEFINI antzezlan.

13:00 KALEJIRA HERRIKOIA txistulariekin.

14:30 *Zeuk iñ, zeuk jan* kuadrillen arteko HERRI BAZKARIA Azoka Plazan.

17:30 Txosna batzordeak antolatuta poteo girotua.

19:00 PIRRITX, PORROTX eta MARIMOTOSen *Musua* ikuskizuna Monterronen.

20:00 BERTSO JAIALDIA Seber Altube plazan, AEDK antolatuta. Partaideak: Maider Arregi, Onintza Enbeita, Jokin Uranga eta Iñaki Viñaspre. Gai jartzailak: Oihana eta Haizea Arana.

20:30 Herriko Plazan PURO RELAJO mariatxien KONTZERTUA.

23:00 Kontzertuak txosnagunean: Wood Strings, Los WC eta Egurra Ta Kitto.

EGUAZTENA 26

08:30 DIANA Arrasateko gaiteroekin.

08:00 Txosnak antolatuta, SOKASALTO gaupaseroa.

09:00 ENTZIERROA. Gero, zaleentzat bigantxak izango dira zezen-plazan.

11:00 Arrasateko Erraldioen eta Kilikien Konpartsaren KALEJIRA.

12:00 Herriko Plazan EUSKO LABELEKO PRODUKTUAK DASTATZEA Goikobalu abesbatzaren laguntzarekin.

18:00 *Dirt jump* eta trialsineko FREESTYLE BIKESHOW ikuskizuna Zaldibar frontoian.

19:00 Seber Altube plazan Lore Gazteak taldearen DANTZA EMANALDIA.

20:00 KONTZERTUA Herriko Plazan: KOBAN.

ALDEDI

Ondo pasa jaiak!

Biteri 8 · ARRASATE · Tel.: 943 79 13 05 · Faxa: 943 79 13 84

Egitarau zabalaren alde txosnetako ekintzetan

Ekitaldiz eta aldarriz beteta dator aurtengo txosnaguneko eskaintza. Musika estilo ugari entzuteko aukera egongo da, baita lagun artean aritzeko ekintzak ere. Txosna batzordeak egitarauan parte hartzera animatu ditu herritar guztiak

Jone Olabarria ARRASATE

Ekainaren 22tik 25era egongo dira zabalik Arrasateko txosnak. Ikasle abertzaleak, Mirentxin Gidariak, Ttak!, Askapena eta Euskal Herrian euskaraz taldeek, elkarlanean, "gune askea" sortu nahi izan dute, baita egitarau zabala osatu ere.

Hala, gazte olinpiadak, herri bazkaria, kaleko boulder txapelketa, bertso saioa eta kontzertuak izango dira: "Herritar guztiak euren gustuko ekintzaren bat izan dezaten, ahalik eta egitarau anitzena sortzen saiatu gara", azaldu dute txosna batzordeko ordezkariak. Genero berdintasunarekin bat egiten dutela



Gazteak olinpiadetan. GOIENA

diote, eta, hortaz, txosnagunean ez dutela inongo eraso matxista edo homofoborik onartuko. "Preso politikoen, euskararen, independentziaren, sozialismoaren eta feminismoaren aldeko" aldarria egin nahi izan dute.

Parte hartzeko deia

Eguneko egitaraua bultzatzeko asmotan antolatzen dituzte urtero herri bazkaria eta kuadrillen arteko olinpiadak. Hain zuzen ere, horietan parte hartzeko dei egin du txosna batzordeak. Herri bazkarirako txartelak Jaizalen, Iluntzen eta Iratin daude salgai, 18 euroren truke.

Txosnaguneko egitaraua

Txosna batzordeak egitarau zabala prestatu du San Juan jaietarako, eta, txupin ofiziala domekan jaurtiko duten arren, zapatutik zabalik egongo dira txosnak. Hainbat musika estilo entzuteko aukera egongo da, baita ekintza ugari egitekoak ere. Herriko eragileekin batera, arduretan edota festan "genero berdintasunarekin bat" egin dutela gogorarazi du txosna batzordeak.

ZAPATUA 22

- 18:00 Txosnagunearen irekiera.
- 22:00 Kontzertuak: Kumbia Queens eta Tremenda Jauria.

DOMEKA 23

- 12:00 Txupina txosnagunean.
- 12:30 Triki-poteoa.
- 14:30 Herri bazkaria. Txartelak salgai Jaizalen, Iluntzen eta Iratin, ekainaren 3tik aurrera.

- 17:00 Txopo-poteoa.
- 18:00 Makala jasotzea plazan.
- 23:00 Gora Herria erromeria.
- 00:00 Solstizioaren akelarrea, Pottogorriren eskutik.

ASTELEHENA 24

- 08:30 Izenbarekuak txaranga, Uluak-en eskutik.
- 17:30 Street Boulder Txapelketa eta txosnagunean olinpiadak.
- 19:00 Ekiñe Casado eta Txerrikumeak txosnagunean.
- 01:00 DJ Bull.

MARTITZENA 25

- 14:00 Zeuk ein zeuk jan bazkaria.
- 17:30 Poteo girotua.
- 19:30 Presoen aldeko manifestazioa.
- 20:00 Bertso saioa.
- 23:00 Wood Strings, Los WC eta Egurra Ta Kitto.
- 08:00 Sokasalto gaupaseroa.

SAN JUAN

Igaz ere Sain Juan, Sain Juan zanetan
aurten ere Sain Juan Bautista.
Jesukristoren lehengusua zan
Sain Juan, Sain Juan Bautista.

Hau da egia da Nagusia
kontsolatutzeko mundu guztia.

Ibai guztiak agortu dira
arrain gaixoak egarri
datorren urtean mutikotxuak
nun egingo dute igari

Hau da egia da Nagusia
kontsolatutzeko mundu guztia.



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

zure
zerbitzura

Morez jantziko da plaza makalaren igoerarako

Urtero bezala, makala altxatuko dute arrasatear gazteek San Juan bezperan. Aurten, kolore moreko kamiseta eramango dute, Ttak!-ek sortutakoa. Aurretik, herri bazkarian indarra hartuko dute eta kaleetan zehar txopo-poteoan arituko dira

Jone Olabarria BERGARA

Urteko egunik luzeenarekin batera iritsiko dira jaiak Arrasatera. San Juan sua piztu eta nahi ez direnak bertan erretzeko uea izan ohi da askorentzat, baita arrasatearrentzat ere. Herrian, baina, suarena soilik ez, Euskal Herriko ohitura ugari jarraitzen dira; makalaren igoera, esaterako.

Herriko Plazan landare bat sartzeko ohitura adierazgarria izan da betidanik nekazaritza munduan. Gerora, kristautasunak ere data konkretu hura baliatu zuen San Juan Bataiatzailearen jaia egiteko. Beste leku askotan bezala, makalaren

igoerak jaiaren hasiera irudikatuko du. Hala, Arrasateko plazan, urtero bezala, makala ipiniko dute aurten San Juan bezperan. Ohikoa den moduan, 17:00etan abiatuko dira makala soinean hartuta herriko gazteak, txosnagunetik plazarainoko bitartean.

Txopo-poteoa egingo dute bitartean, eta 18:00etan, plazan

KAMISETEN IRUDIA BI SILUETAZ OSATUA DAGO: HERRITAR BAT ETA BERE ATZEAN SAN JUAN SUA

altxatuko dute enborra. Hala ere, segurtasun falta sumatzen zuten ahotsak areagotu egin dira azken aldian, eta, ondorioz, duela urte batzuetatik hona, mugatu egin da makala igotzeko unean parte hartzen duen jende kopurua. Horrela, igoeran egiten den indarra orekatuagoa da, eta, hain zuzen, makalaren igoera seguruagoa.

Kamiseta moreak aurten

Makalaren igoera, urtero kolore bat izan ohi da protagonista eta aurten moreari egokitu zaio *ardura* hori. Izan ere, kolore horretakoak egingo dituzte ekainaren 23an herriko gazteek



Gazte talde bat makalaren igoeran, iaz sanjuanetan. GOIENA

jantziko dituzten kamisetak. Makalaren igoerarako soinean eramango duten diseinua bi siluetaz osatutako irudia izango da aurten: alde batetik, pertsona bat ageri da, buruan sorginen zapi bat duela eta ahoa beste zapi batekin estalita; pertsonaren atzean sua irudikatu dute.

Aurtengo diseinua egiteko, Ttak! gazte taldeak ideia batzuk bildu zituen eta horien artean aukeraketa bat egin ostean. Libe Argoitia arduratu da diseinua egiteaz. Herri bazkariko txartelekin batera erosi ahalko dira kamisetak, Irati, Jaizale eta Iluntz tabernetan, 18 euroren truke.

30 urte baino gehiagoko esperientzia daukagu

Gorputz eta Aurpegi tratamenduak, Solariuma, Laserra, Medikuntza estetikoko kontsulta...

Deitu, konpromiso barik; zuri laguntzeko gaude!

Erdiko kale 54, behea 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • www.amagaraestetikazentroa.es • facebook.com/amagara

AMAGARA
Estetika Zentroa

San Juan
jai zoriontsuak
guztioi!



IRIS: 21/4/15

LIZARRALDE
KIROLAK
Ondo pasau jaixak!



ARRASATE
Foruen Enparantza
San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47

OÑATI
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86

LEGAZPI
Patrizio Etxebarria 2
Tel.: 943 08 28 46

"Gizarte kohesioan tresna izan nahi dugu"

MELINA LOPEZ 'HERRIKOIA' KONPAINIAKO ANTOLATZAILEA

Arrasate Herri Eskolako guraso elkarteak bultzatuta, konpainia berri bat izango da aurtengo danborradan. 'Herrikoia' izena jarri diote eta "herritar orori irekita" daude

Jone Olabarria ARRASATE

Begia San Juan bezperan jarrita, buru-belarri aritu dira lanean azken hilabeteetan Herri Eskolako gurasoak. Hala, ekainaren 23an, alkandora zuria, zapia eta txapel morea jantzita, *Herrikoia* konpainiako 16 kideek lehen aldia izango dute aurtengo Arrasateko nagusien danborradan jotzen.

Arrasate Herri Eskolako guraso elkartearen ekimenetik sortutako taldea den arren, "izaera irekia" dutela diote, eta interesa duen herritar oro animatzen dute proiektura batzera, herriaren aniztasunaren ispilu eta lanerako tresna izateko asmotan.

Nola erabaki zenuten zuek ere danborradako parte izango zinetela?

Iaztik buruan bueltaka genuen proiektu bat zen. Danborradako parte izan nahi genuen, herriko ohitura polit bat dela iruditzen zitzaigun, baina zaila da jada sortua eta urte pila bat dituen konpainiaren batean sartzea;



Melina Lopez, *Herrikoia* konpainiako bultzatzaileetako bat. MELINA LOPEZ

askotan ez da lekurik egoten, eta ez da erraza hutsetik bakarrik hastea. Horretaz gain, eta are garrantzitsuago iruditzen zaiguna, Arrasate Herri Eskolako kideen parte hartzea bultzatzea izan da. Eskolatik herriari lo-

tutako ekintzak sustatuz eta gure eskolaren izaera publiko eta herrikoia azpimarratuz, hain zuzen ere.

Talde irekia izan dadin jarri diozue ere, apropos, *Herrikoia* izena taldeari...

Hala da, gure filosofiari jarraiki, edozein gurera batzeko askatasunez sortu nahi izan dugu konpainia. Eskolaren egunerokoan ere hori da gure erronka; espazio anitz eta integratzailea eratzeari. Azken batean, gure lanaren isla izan dadin eta orain arte egin bezala, gizarte kohesiorako tresna bat sortu nahi izan dugu. Danborrada herriarena den zerbait da, herritarrena, eta guk ere konpainia herriarena egin dugu. Pixkanaka hasi gara, lehenengo gure komunitatearen barnean mezua zabalduz eta edozein pertsonari gonbidapena luzatuz. Dena den, oso pozik gaude, lehen urtea izanda helburuetako bat bete dugu, eskolako parte ez diren kideak ere batu zaizkigulako.

Nolako bidea izan da taldea eratzekoa?

Egia esanda, administrazioaren aldetik oso ondo portatu dira. Ez digute inongo arazorik jarri konpainia sortzeko eta eskertzeko da. Baldintza bakarra eskatu ziguten: gutxienez, hamabost kide beharko genituela taldea eratu ahal izateko. Behin zifra horretara iritsita, lanean ibili gara orain arte. Dena den, lehen aldia izanda, pixka bat proba bezala hartu dugu, guk geuk ere ez dakigu nola irtengo den, ea zer moduz doan dena.

Azken entseguetan murgilduta ibiliko zarete egun hauetan...

Hala da; denak gara hasiberriak eta, hortaz, ikasteko asko dugu

oraindik ere. Erritmoa, abestiak, pausoak... gauza asko hartu behar dira kontuan, eta, bueno, moldatzen garela esan daiteke. Kanpotik ikusita erraza dirudien arren, badu bere zailtasuna danborraren aurrean jarri eta erritmoa jarraitzeak. Gainerako taldeen lana ikusita goaz ikasten, eta bai eskolatik, baita danborradako kideen aldetik babes handia jaso dugu.

Zer espero duzue hemendik aurrerako?

Momentuz, urduri gaude, baina oso gogotsu. Asteleheneretan elkartzeko gara, asteleheneretan eta eguaztenetan, eta ordu bateko entseguak egiten ditugu. Gainerako taldeekin entseutzea ere oso aberasgarria da, betere nola egiten duten ikusita asko ikasten dugu, eta, zentzu horretan, oso pozik gaude. Ekainaren 23ra begira, entsegu gutxi geratzen dira eta azkena plazan egingo dugu. Espero dugu balorazio positiboa egin ahal izatea, eta, datozen urteetan konpainiak jarraipena izaten badu, jendea animatu, eta denok batera, elkarlanean, gure herriko aniztasuna ere danborradan integratzeko gai izan nahiko genuke.

"ESKOLAN EGITEN DUGUN MODUAN, ESPAZIO ANITZ ETA INTEGRATZAILEA SORTU NAHI DUGU"

**SANJUANAK 2019
ARRASATE**

**ITURRIOTZ
ITZALA
MONTE
OKORETEGI
RUMBA
TXOKO II**

*Ondo
pasa
jaixetan!*



Kaleak jendez gainezka iazko errementari dantzan. GOIENA

Errementari dantza, herriari biziki lotutakoa

1993. urtean sortua, herritar ezberdinen arteko elkarlanetik jai zen errementari dantza: gaiteroak, txistulari eta trikitilariak, Arrasate Musikaleko musikariak, Goikobalu abesbatza eta dantza taldeak. Egun, jaietako ekintza kuttunenetakoa da

Jone Olabarria ARRASATE

Orain dela 26 urte egin zuten lehenengo aldiz errementari dantza Arrasateko kaleetan zehar. Musikatik, dantzatik eta herriaren historiatik sortutako ikuskizuna da, eta, antzinakoa dela uste daitekeen arren, 1993. urtean dantzatu zuten lehenengo aldiz.

Hutsune bat betetzeko sortutako ikuskizuna izan zen Jose Ramon Vitoria arrasatearrak sortutakoa. Izan ere, ekainaren 23an salbea eta danborrada egiten ziren, baina bien artean denbora tarte luzea zegoen. Jendeak afariak egiteko erabiltzen zuten tarte hura, eta, gauzak horrela, jende gutxi ibiltzen

zen herriko plazan dantzariak eta sua ikusten.

Hala, gaur egun arrasatear askorentzat sanjuanetako egun kutunena den horretan, garai batean suaren bueltan "giro gutxi" izaten zela diote herritarrek.

Errementari dantzan parte hartzen duen dantzarietako bat da Maite Elkoro, Lore Gazteak

dantza taldekoa. Urte ugari daramatza errementari dantzan parte hartzen, eta "ilusioz" bizi ohi duela azaldu du: "Dantza berezia den arren, eguna eta jai giroa oso garrantzitsuak dira". Publikoari "asko" gustatzen zaion ikuskizun bat dela dio, eta jende ugari gerturatzen dela "dantzaren zatitxo bat, behintzat," ikustera. "Dantzariontzat oso berezia da jendeak norberaren lana miresten duela ikustea", aitortu du Elkorok.

Urtean behin baino ez ditu kaleak hartzen errementari dantzak, eta hori ere ez da ohikoa. Elkorok azaldu duenez, "urte batzuk daramatzagunontzat berezia den arren, ezin da lehen urteetako ilusioarekin alderatu. Lehen aldietan urduri egoten zara, dantzara irten eta nahastuko ote zaren beldurrez. Urteen poderioz, baina, konfiantza irabazten duzu".

Hain zuzen ere, lau piezak osatzen dute errementari dantza: aurreko paseoa, alkate dantza, ingurutxoa eta polka. Aurreko paseoaren dantza egiteko, egurrezko makilak erabiltzen dituzte dantzariak, baina hasiera batean burdina erabiltzeko proposamena egin zuten Jose Ramon Vitoriak.

Dantzariak "zail samar" ikusten zuten horrela dantza egitea, eta kontuan izanda burdina egiteko sua behar dela eta sua egiteko egurra, egurrezko makilen aldeko apustua egin zuten.

Gainerako dantzak, alkate dantza, ingurutxoa eta polka, plazan egiten dira, eta beste dantza batzuen pausoetatik sortuak dira. Duela 26 urteko prozesu hura ez zuten Elkorok bizi izan; bai bere taldekide askok: "Ilusioz eta gogotsu ibili ziren, eta, gaur egun zer bilakatu den ikusita, are gogotsuago bizi dute. Gainera, sortzaileetako hainbat dantzari egun ere errementari dantzan parte hartzen dute".

Elkarlanaren adibide

Ikuskizuna errealitate bilakatzeko, koordinazio-lan handia beharrezkoa izan zen, urtebetez. Egun ere, entsegu ordu asko behar dituen dantza dela azaldu dute: "Urtero bikote berriak gehitzen dira errementari dantzara. Lehen aldiz egiten dutenei, beraz, erakutsi egin behar zaie eta beterano garenok ere gogoratzeko beharra izaten dugu". Ehun dantzari inguruk parte hartzen dute ikuskizunean, baita musikari ugari ere. Ekainaren 23ko hitzordua ondo irten dadin, bihar, zapatua, egingo dute entsegu orokorra, Jokin Zaitegi plazan, goizeko hamaika eta erdietan.

**"BETI UNE BEREZIA
IZATEN DEN ARREN,
LEHEN URTEETAN
ILUSIO HANDIZ BIZI
OHI DA DANTZA"**

Paraje eder baten kokatua

Razio hotzak ardo bereziarekin dastatzeko aukera bikaina

Bazkaria hasteko beste motu berezi bat

- Menu bereziak aukerant: 19,5€
- Karta

Arteaga

Landetxea

Arteaga basorria
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel.: 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82

Ondo pasa sanjuanetan!

Itsaso Diegoren diseinua, San Juan jaietako irudi

Herriko ikur diren errementari dantzari eta sanjuanetako suari eman nahi izan die garrantzia Diegok, "beste ikuspuntu bat" landuta. Hala, hamaika lanen artean harena aukeratu du epaimahaia jaietako kartelen irudi izateko

Jone Olabarria ARRASATE

Urtero bezala, jaiak ilustratzeko irudia lehiaketa bidez aukeratu du Udalak. Hamaika lan aurkeztu dira, eta *San Juanak goian behean* izeneko Itsaso Diegoren lana izan da irabazlea.

Epaimahaia bost kide hauek osatu dute: Juan Ramon Mendieta (Euskara eta Kultura sailletako burua), Amaia Bengoa (Kulturateko margo tailerreko irakaslea), Itsaso Garai (Txatxilipurdi), Marta Izagirre (Arrasate Musikal) eta Antonio Murrillo (ArtGazki).

"Arrasateko San Juan jaiak identifikatzen dituen errementari dantzari eta dragoiak pizten

duen suari eman nahi izan diet garrantzia", azaldu du Diegok. Aurtengo diseinua sortzeko, aurreko urteetan egin denetik aldendu eta beste ikuspuntu bat eman nahi izan dio Diegok: "Esperimentatzen hasi nintzen, eta, hala, eszena goitik nola ikusiko zatekeen imajinatzen saiatu naiz, dantzariak erama-

"ESZENA GOITIK NOLA IKUSIKO ZATEKEEN IRUDIKATZEN SAIATU NAIZ, DANTZARIEN GONETAN OINARRITUZ"

ten dituzten gona eta motiboekin jolasten".

Sortze prozesuaz galdetuta, hauxe dio: "Zirriborro antzeko bat egin ohi dut eskuz, gidalerro gisa, baina azken emaitza digitala da".

Diseinu Grafikoko ikasketak egin ditu Itsaso Diegok eta ilustrazioa eta argazkilaritza ditu gustuko. Badu esperientzia halako sariketetan: "lehiaketetan parte hartzea gustatzen zait, kartelak egiteko prozesua oso librea delako eta honek esperimentatzeko eta teknika berriak ikasteko aukera ematen didalako". Hain zuzen ere, 750 euro jasoko ditu.



Diegoren diseinua aurtengo jaietako kartelean.

'Euskeraz goza, herriaren poza'

Era berean, Gorka Etxaberena da jaietako esaldia. AED elkarteko, Arrasateko EHEko, Deba-goieneko AEK-ko eta Udaleko Kultura eta Euskara sailletako ordezkari osatutako epaimahaia haren *Euskeraz goza, herriaren poza* esaldia aukeratu du.

Urtero bezala, jaietako zapi eta pegatinetan agertuko da Etxa-

beren esaldia eta 100 euroko saria jasoko du.

Udalak 8.000 esku-programa banatuko ditu etxerik etxe eta beste 500 kartel, kalean eta establezimendu publikoetan. Horretaz gain, 500 zapi, more kolorekoak, esaldi irabazlearekin, tabernetan salgai jarriko dituzte, 3 eurotan, eta beste 500 pegatina, lehiaketako esaldi irabazlearekin.



epele
Calderería

activa
MÁS QUE UN COMERCIO

Jose Aranzabal

Garbitzeko behar duzun laguntza

Iturriotz 15 - Tel.: 943 79 15 16 • www.tiendasactiva.com

"Ezin da jakin zer nahiko duten ikusi epaileek"

IÑIGO SAN VICENTE IAZKO SANJUANETAKO ARTGAZKI LEHIAKETAKO IRABAZLEA 'San Juanen magia' lanarekin lortu zuen IV. Sanjuanetako Artgazki lehiaketan lehen postua San Vicentek. Ia 50 irudiren artean berea aukeratu zuen epaimahaiak

Jone Olabarria ARRASATE

San Juan apostoluari atera nahi izan zion argazkia iaz Iñigo San Vicentek (Arrasate, 1963). Eguzkia arkupean sartu eta irudia argizatzen duen une zehatza aukeratu zuen betikotzeko. Hala, herriko patriari eman nahi izan dio garrantzia, eta *San Juanen magia* izenburuarekin izendatu du bere lana. Izan ere, San Vicentek azaldu duenez, sanjuanek irauten duten bitartean baino ez omen da posible, eguzkiak bere "magia" egin ostean, irudia argizatuta ikustea.

Iaz lehen saria eskuratu zenuen, baina ez da parte hartzen duzun lehen aldia.

Hasiera-hasieratik ibili naiz Artgazkik antolatutako lehiaketetan, ez bakarrik sanjuanetakoan. Elkarteko kide ere banaiz eta urtean zehar egiten diren etara aurkeztu ohi ditut lanak. Jaietako edizioan, iaz ez ezik, 2017 eta 2016an ere neure argazkiak saritu zituen epaimahaiak. **2018an saritutako lanari dagokionez, nola erabaki zenuen argazki hori aurkeztea?**

Ez dut ondo jakiten zein argazki aurkeztuko dudan azken unera arte. Iazko kasuan, buruan bueltaka nuen irudi bat zen, baina faktore zehatz batzuek bat egin behar zuten; hasteko, sanjuanetan baino ez da sartzen argia arkupean, ordu jakin batean soilik, eta, gainera, oskarbi egon behar du. Iaz izan nuen aukera.

Hortaz, argazkien bila joaten zara edo kalean, ezustean, topatzen diren uneak nahiago dituzu?

Momentuaren arabera da; aurreko urtean bila joan nintzen, baina, adibidez, duela bi urte, argazkiarekin topo egin nuela esango nuke. Orduan, haurrak erraldioen artean zebiltzan jolasean, polita iruditu zitzaidan eta haur bat harpatu nuen, gaiztakeriaren bat egiten ibiliko balitz bezala,

erraldoi barnetik irteten zen unean.

Nola definituko zenuke zeure estiloa, argazkilaritzari dagokionez?

Ez dakit estilo finko bat dudan. Naturako elementuak betikotzea gustatzen zait; perretxiko eta onddoak, esaterako, gauza txikiak. Paisaiekin ere ibili nintzen denboraldi batez, gustatzen zaizkit. Dena den, denboraldiaren arabera izaten da. Horretaz gain, ez nuke esango beti berdina ateratzen ditudanik argazkiak, momentuak eskatzen didanaren arabera egiten ditut.

Lehiaketa abian dagoen bitartean kamera eskuan ibiltzen zara kalean; gero, etxean azken ukituak ematen dizkiozu argazkiari...

Bai; San Juan jaietan argazkien bila ibiltzen naiz, handik eta hemendik, ea zerk harritzen nauen edo une hunkigarriren baten bila. Gero, etxean, argazkiaren beharren arabera ematen diot ukituren bat edo beste, baina ez gehiegi, naturalak gustatzen zaizkit. Apostoluaren kasuan, ia atera zen bezala aurkeztu nuen epaimahaiaren aurrean.

Zer baloratzen du gehien epaimahaiak irabazlea aukeratzekoan?

Zaila da jakitea. Urtero lau kide ezberdinek osatzen dute, eta ez dute zertan argazkilaritza munduarekin zerikusirik izan. Nire esperientzian oinarrituta, lan oso ezberdinak aurkeztu izan ditut eta epaileek saritu egin dituzte. Zalantza barik, argazkiak originala behar du, freskoa. Nire ustez, egilearentzat gustukoa den lanaren aldeko apustua egin behar da, hor dago gakoa. Gainerakoa ez dago gure esku.

"SAN JUAN JAIETAN BAINO EZ DA SARTZEN ARGIA ARKUPEAN, OSKARBI BADAGO, ETA IAZ, HALA IZAN ZEN

Aurten V. edizioa izango da; baduzu aurkezteko intentziorik?

Pila bat urte daramatzat argazkilaritzaren mundu honetan sartuta eta aurten ere lanen bat aurkezten saiatuko naiz. Momentuz, ez dut ezer pentsatu. Sanjuanek irauten duten bitartean arituko naiz une polit baten bila.



Iñigo San Vicente, iazko argazkia atera zuen tokian. GOIENA

EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIEK GABE

geurriak geurrea



IRATI-TAUPA-OSORIK BASATI-ILUNTZ-JAIZALE



Aukera ugari zezenen aurrean aritzeko

"Tradizio luzea" du zezen-plazak San Juan jaietan, eta aurten ere ez du hutsik egingo: entzierroak, errekortadore txapelketa eta erakustaldiak. Entzierroari alternatiba bezala, txaranga antolatu du ekainaren 24rako Uluak Debagoiena talde animalistak

Jone Olabarria ARRASATE

"Jendez gainezka" egon ohi da Arrasaten zezen-plaza. Hala azaldu du Iñigo Almortza Bergarako Zezenak ganadutegiko kideak. Guztira, 1.400 pertsonarentzako lekua du eta egunero "beteta" egoten da: "Gure herriko afizioaren seinale da. Egunero-egunero jendeak bere sarrera ordaindu eta plaza betetzen du, hori ez da beste ekintzekin gertatzen".

Entzierroa "betidanik" egin izan da Arrasaten, eta zezen-plaza duela hogeita hamar urte baino gehiago iritsi zen Jose Mari Arizmendiari plaza. Hain zuzen ere, Portaloitik zezen-plazarako bidea ziztu bizian egiten dute bigantzek, eta herriar asko animatzen dira haien aurretik korrika egiten. Hori izan ohi da, eta izango da, aurten ere entzierroak izango duen ibilbidea: Erdiko kalea, Kanpatorpea, Zerkaosteta eta J.M. Arizmendiari plaza.

Goizeko entzierroak soilik ez, ekainaren 23rako, errekortadore gazteen txapelketa antolatu dute eta San Juan egunerako, errekortadore erakustaldia, 18:30ean hasita. Goizetan, ekainaren 24an, 25ean eta 26an, entzierroaz gain, bigantzak ere egongo dira, gupasa egin duten askok edo goizean jaiki berri direnek errekorreak egin ditzaten.

Entzierroan edo zezen-plaza barruan, beti izaten dira kol-

peak; edozelan ere, segurtasun neurri zorrotzak hartzen dituztela azaldu du Almortzak: "Ez dago arriskurik. Segurtasun neurriak hartzen ditugu; adarrak moztuta dituzte bigantzek, anbulantzia izaten da eta zezen-plazak aurretik ikuskatua eta teknikari batek onartua egon behar du. Baina beti izaten dira kolpe txarrak; batez ere, kaleko ibilbidean. Eta kontuz ibili behar da".



lazgo entzierroetako batean. GOIENA



Zezen-plaza jendez gainezka ekainaren 24ko entzierroan. GOIENA

Alternatibak eraiki

Ekainaren 24 goizeko zezenen alternatiba prestatu nahi izan die Uluak talde animalistak. Hala, 08:30erako txaranga antolatu dute herriko kaleetan zehar. "Iaz egin genuen lehen aldiz eta harrera ona izan zuen, ez genuen hainbeste jende espero", azaldu du taldeko Maitane Uribe. Jendea "gustura" egon zela ikusita eta "herriarrek hala eskatuta", aurten berriz ere antolatzea erabaki dute.

Iazko esperientzian oinarrituta, hauxe diote: "Zezenetara joan ohi diren pertsona asko txaranga batu ziren iaz. Giro polita sortu zen, taberna guztiak ixtean jendeak festarekin jarraitzeko aukera izan zuen".

"Horretaz gain, arratsalderen batean elkarretaratzea egingo dugu zezen-plaza aurrean, eta informazio puntu bat jartzeko intenzioa ere badugu".

Uluak Debagoiena taldearen ustetan, "animalien presentzia duten ikuskizunak amaitu beharoko litzateke", baina, horretarako, pausoz paso joan beharra dagoela azaldu dute: "Alternatibak eraikiz eta kontzientziazioa landuz, poliki-poliki, animaliak erabiltzen dituzten ekitaldiak desager daitezzen nahiko genuke".

Uribe azaldu duenez, neurri bortitzak hartzea ez da soluzioa: "Debeku baten aurrean herriak ez luke ondo erreakzionatuko; beraz, gutxinaka, entzierro egunak murriztea nahiko genuke".

EUSKERAZ GOZA, HERRIAREN POZA!!

Ederto pasau!



arrasate
euskaldun
dezagun



txatxilipurdi



Iazko street boulder txapelketan. GOIENA

'Street boulder'-a eta 'bike freestyle'a, nagusi kirolean

Herriko kaleak epaile bihurtuko dira 'street boulder' eskalada txapelketan, baita bizikleta akrobaziak lantzen dituen 'freestyle bikeshow' diziplinan. Antolakuntzakoek bi ekintzetan parte hartzeko dei egin diete herritarrei

Jone Olabarria ARRASATE

Urtero bezala, hainbat eta hainbat kirol ikuskizunekin dator San Juan jaietako egitaraua. Ohiko kirol eskaintza baino gehiago, arrasatearrek arrisku puntua duten kirolak ezagutzeko aukera izango dute, baita, animatuz gero, horiek probatzea ere.

Beste behin, Arrasateko kaleak rokodromo bilakatuko dira kaleko eskalada txapelketarako. Ekainaren 24an egingo dute, eta arratsaldeko bostetatik aurrera herriko paretetan gora ibiltzeko aukera izango dute ausartenek. Txosna batzordeak antolatuta, hamar urte beteko ditu ekintzak San Juan jaietan, eta urtez urte

"arrakasta handiagoa" duela azaldu du Kepa Bruña antolakuntzako kideak. Aurreko urteetan, parrokiari, Portaloian, Monterron jauregian eta Zurgin kantoian dauden blokeak erabili dituzte eskalatzailerak, eta, oraindik guztiz zehaztuta ez duten arren, antzerako ibilbideren bat prestatuko dutela

azaldu dute. "Ahalik eta saiake- ra gutxien eginda bloke guztiak egiten dituen izango da txapel- duna", azaldu du Bruña, eba- luatzeko metodoaz galdetuta. Izen ematea librea izango da eta egunean bertan egin beharko da, txosnagunean.

'Dirt jump'-a: airean akrobaziak Bizikleta modu ikusgarrian erabiltzen duten kirolarien akrobaziak ere egongo dira ikusgai aurten, ekainaren 26an, 18:00etan hasita, Zaldibar frontoian. *Ryder*-ek modalitate ezberdinak uztartuko dituzte: trialsin eta *dirt jump* estiloak, hain zuzen ere.

Trialsin modalitatean, modulu ezberdinak antolatuko dituzte eta jauziak egiten zirkuitu bat osatu beharko du bizikleta gainean doanak, dena lurrean hankarik jarri gabe. *Dirt jump* estiloa, berriz, ikusgarriagoa izango da; izan ere, airean jauzi eta akrobazia arriskutsuak egingo dituzte. Bi espezialitateetan, BMX motako bizikleta espezifikokoak erabiltzen dituzte *ryder*-ek.

Horretarako, arrapala handi bat eta zirkuitu berezia jarriko dute Zaldibar frontoian. Jendearen gainetik ere pasako dira, eta, hortaz, erakustaldia ikustera doazen herritarren laguntza beharko dute. Iaz egin bezala, boluntarioak eskatuko dituzte, lurrean etzan daitezkeen, bizikletan gainetik pasatzeko.

Haur eta gazte errekoradore txapelketan

Ekainaren 23an, 19:30ean, kaleko maisu gazteen txapelketa izango da zezen-plazan. Herriz herri ibiltzen diren Euskadiko errekoradore txikiak (8-15 urte) arteko txapelketa jokatu da. Jauzi, errekorde, eta abarrez gozatu ahalko da, eta trebetasun handia erakutsiko dute zezenaren aurrean jartzen direnak. "Gaztetxoak diren arren, oso ondo ibiltzen dira. Hamabi bat gazte arituko dira, herri askotatik etorriak, eta taldetan banatuta. Talde bakoitzeko bat finalera helduko da. Espero dugu eguraldi ona izatea, baina dena den arrakasta handia izaten duen ekintza da". Txapelketaren ostean, zezentxoak eta poneyak egongo dira.

Ekainaren 24an, berriz, 18:30ean, Bergarako Zezenak elkarrekin antolatuta ere, ibilbide oparoa izan dute hainbat errekoradorek erakustaldia egingo dute.

JMA

GORA ARRASATE, GORA SAN JUAN!!

Belaunaldiz belaunaldi herriko sena landuz

IFAM

Oroimenean ondo gordetako jaiak

Arrasateko Udalak 80 urtetik gorako herritarrak omenduko ditu jaietan. Ekitaldia ekainaren 24an 12:30ean Etxaluzen izango da; gizon eta emakume nagusienei lore sorta bana emango die alkateak

Amaia Zabala Tolosa ARRASATE

Ekitaldia Maria Ubarretxena Arrasateko alkatearen agur hitzekin hasiko da eta, ondoren, erretiratuen elkarteko abesbatzaren emanaldia izango da. Jarreraian, herriko emakume eta gizon nagusienei lore sorta bana oparitutako diete, Maria Ubarretxena alkatearen eta Amaia Azpiazu Ongizate zinegotziaren eskutik.

Amaitzeko, ekitaldira gerturatu diren adinekoek bazkaria egingo dute. Izena BAZen bulegoan eman daiteke ekainaren 17ra bitarte.

Iraganeko jaiak

Omenaldi hau dela eta, GOIENA Arrasateko Iturbideko adinekoen egoitza-

koekin jarri da harremanetan eta gazte garaiko jaien inguruan dituzten oroitzapenez mintzatu dira.

Batzuk festazaleagoak izan dira besteak baino, baina guztiek dituzte oroitzapen "politik". Erromeria eta eguneko giroa azpimarratzen dituzte eta orduko jaiak oraingoekin alderatuta "oso ezberdinak" direla ere badiote. Gehiengoak dio, gainera, ordukoak "hobeak" zirela, jende gehiago ibili ohi zela eta ondorioz "giro hobeak" egon ohi zela.

Egun, Iturbide egoitzan bizi dira, baina osasunak laguntzen badie, behintzat, badute egunez San Juan jaietan buelta-txo bat emateko asmoa. Iturbiden, ordea, ordutegiak errespetatu beharra dauzkaitela diote, barrezka.



Carlos Olabe, Iturbideko egoiliarra. A.Z.

"San Juan bezpera dut gustukoan"

CARLOS OLABE BARRENA
SARRAILAGILEA, 82 URTE

Olabe Zumarragarra da izatez, baina urte pila daramatza Arrasaten bizi izaten eta bertako jaien oso zalea da: "San Juan bezpera eta jaietako hirugarren eguna izan ditut beti gustukoan. Lehenengo, meza nagusira joan ohi ginen, eta ondoren, lagunartean txikiteora; dantzarako lotsati samarrak ginen gu. Gero, etxean bazkaldu ohi genuen, ohikoa baino bazkari hobeak; legatza edo txuleta, ahal bazen".

"Dantzazale amorratua nintzen"

ALBINA ARANA ORTIZ DE ZARATE
DENDARIA ETA JOSTUNA, 90 URTE

Arana arrasatearra da, baina "familia ugaria eta txiroa" zirenez ez zutela festarako aukera handirik izaten azaldu du; hori bai, dantzatzea "izugarri" gustatzen zitzaioala argitu du: "Sueltoa egiten genuen, gehienbat, eta lotua ere bai, noizean behin. Elkarri oina zapalduz ikasi genuen, gainera; kar kar kar...".



Albina Arana, Iturbideko egoiliarra. A.Z.

Comfort Class
SUV

Ondo ibili
sanjuanetan!



19.490
EUROTIK AURRERA

SUV BERRIA CITROËN C5 AIRCROSS

Motelgailu progresibo hidraulikoko suspentsioa

*IKUS LEGE-BALDINTZAK ETA FINANTZAKETARI LOTUTAKO GASTUAK

DEBAGOIENEN KONTZESIONARIO OFIZIALA: TALLERES CHAPIME S.C.L. San Andres 5 Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE



Andres Gabilondo, Iturbideko egoiliarra. A.Z.

"Bertsolari onak etortzen ziren"

ANDRES GABILONDO ALBERDI
MAKINEN KONPONTZAILEA, 90 URTE

Gabilondo Elosuarra da izatez, baina gazterik joan ziren Soralezera lanera. Ondo gogoan du lanetik atera eta autobusean nola joaten ziren sanjuanetara, Arrasatera: "Lagunartean eta lagun bila etorri ohi ginen, egun aproposak baitziren neska gazteak ezagutzeko". Bertso-irakaslea izana da, eta Arrasatera jaietan bertsolari onak etorri ohi zirela dio: "Uztapide, Baxerri, Lopetegi, Xalbador eta Mattin, esaterako".

"Jaia egunean zehar zen gehiago"

ROSARIO ZILAUURRE ASTOLA
BASERRITARRA, 87 URTE

Zilaurre Aramaioko Astola auzokoa da eta, batez ere, hango jaietan ateratzen zirela dio, eta ez zutela Arrasateko jaietara hurbiltzeko ohiturarik: "Erromerian ibiltzen ginen gustura, dantza saio ederrak egiten genituen. Egunean zehar izaten zen jaia, batez ere; gauean, parranda gutxi. Orain, berriz, alderantziz da".



Rosario Zilaurre, Iturbideko egoiliarra. A.Z.



Juliana Egiguren, Iturbideko egoiliarra. A.Z.

"Jaietan egunero irten ohi ginen"

JULIANA EGIGUREN ALBERDI
BASERRITARRA, 91 URTE

Egiguren bergararra da, eta, "oso festazalea" izana den arren, ez zuten Arrasatera joateko ohiturarik: "Bergarako jaietan, ordea, egunero ateratzen ginen, bost egunetan, handiak baitira. Gainera, berandu erretiratu ohi ginen, gauerdi aldera. Erromeriazaleak ginen; almendrak erosi eta plazako bankuan jateko ohitura ere bagenuen. Pastelak ere ohikoak ziren, gozotegi bikainak baititugu Bergaran".

"Sanjuanak ez ditut inoiz galdu"

BERNABE ARRESE ORBEGOZO
KOOPERATIBISTA, 92 URTE

Udala auzokoa da Arrese, eta jaietako oroitzapen "oso onak" dauzkala dio; hori bai, lehen, jaiak "hobeak" zirela eta jende gehiago ibiltzen zela dio. Orain, aldiz, "asko" kanpora doazela: "Dantza pila egiten genuen eta entzierroan atera ohi nintzen. Tabernetan konbinatu batzuk ere hartzen genituen".



Bernabe Arrese, Iturbideko egoiliarra. A.Z.

mn
Mondragon
Unibertsitatea



Learning from reality



BERRITZAILEA

Mundu osora zabalku den hezkuntza eredu propio eta berritzailea eraiki duen unibertsitatea.



PRAKTIKOA

Enpresari, errealitateari, atxikitako unibertsitatea. Gurean, «learning by doing» ez da slogana, geure DNAn txertatuta dugu, eta ondorioz, formazio dualean liderrak gara.



HURBILA

Lankidetzan aritu, batera sortu, elkarrekin jardun eta konfiantza giroan prestatzen diren pertsonak dira unibertsitateko protagonistak.



KONPROMETITUA

Herrialde-proiektuarekin konprometituriko jende ekintzailea eta langilea ardatz duen kultura.

Ume eta nerabe, jaiez gozatzeko prest

Ohi bezala, sanjuanetako ekintza sorten artean dira Txatxilipurdik antolatutakoak. Haur eta gaztetxoek festa eguna ekainaren 25ean egingo dute. Aurten, nerabeen parte hartzea sustatzeko ekintzak ere izango dira egun horretan

Jone Olabarria ARRASATE

Egitarau oparoa osatu nahi izan du aurten Txatxilipurdik, baina haurrak soilik ez, gaztetxoak ere izan dituzte gogoan ekintza guztiak prestatzeko orduan.

Etxeko txikiaren kasuan, 10:00etatik 14:00etara, Biteri plazan, Otalora kalean eta Monterronen antolatu dituzte haurren jokoak. Aurten, Aspacerekin eta Auzokorekin elkarlanean hainbat ekintza egingo dituzte; esate baterako, saskigintza ikastaroa Biterin.

Gune bakoitzak jolas mota bati emango dio garrantzia; Biteriko plazan ikusmenarekin jolasteko ekintzak egingo dituzte, Bizitza

Eskuetan ekimena, gurpil aulkiaren magia, puzgarriak eta aurpegi margotzea. Monterronen kasuan, naturarekin harremana "indartu" egin nahi izan dute eta jolasen gune bilakatu dute herriko naturagunea: "Ipuin kontalariak, Saharako jolasak, oihaletatik zintzilikatzeko aukera, ur zirkuitua eta tirolina egongo dira, kirola naturan bultzatzen dutenak".

Eguzkilaruk ere ez du hutsik egingo, eta 12:45ean makal txikiaren igoera irudikatuko dute umeei Biteriko plazan. Jarraian, apar festan freskatzeko aukera egongo da. Arratsalderako, Monterronera bueltatuta, Pirritx,

Porrotx eta Marimototsen *Musua* ikuskizuna antolatu dute.

Gaztetxoek gunea

Kulturate atzeko plazaratxoan leku bat eskaini die Txatxilipurdik gaztetxoenei, eta eguerditik hasita ekintzaz beteriko egitaraua prestatu dute bertan. "Iaz bezala, nerabeentzat eskaintza handitu nahi izan dugu, jada hain txikiak ez direnentzat hutsune bat nabari genuen".

Hala, *Zeuk in, zeuk jan* bazkariaren prestaketarekin hasiko dute eguna, 12:00etan elkartuta. Bazkalosterako, karaokea, DJ emanaldiak, irrati saioa eta kontzertuak antolatu dituzte.



Haur bat, iaz, Biterin antolatutako jolasetan. GOIENA



San Juan Jai Zoriontsuak!!



ARETXARGI

aretxargi@aretxargi.com

BELORRIETA, 15 BEHEA 20550 ARETXABAETA - GIPUZKOA

☎ 943 532 628 📞 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK

Sora sanjuanak



"Edozein unetan galdu daiteke lortutako guztia"

ONINTZA ENBEITA BERTSOLARIA

AED elkarteak antolatuta, ekainaren 25ean bertso saioa izango da txosnagunean, 20:00etan hasita. Bertan arituko da Onintza Enbeita, egungo Bizkaiko txapelduna

Jone Olabarria ARRASATE

Kazetari ofizioz, bertsolaritzari lotuta egon da betidanik Onintza Enbeita Maguregiren egunerokoa (Muxika, 1979). Iaz, abenduan, jantzi zuen Bizkaiko txapelketa nagusiko txapela; lehenengo aldiz emakumezko baten buruan. **Familia kontua izan da bertsolaritza zuenean. Nolakoa izan da zure erlazioa mundu horrekin?**

Kontzientzia handi barik, jolasean bezala hasi nintzen umetan, aitonaarekin. Gerora, bertso eskolan ibili nintzen, eta esango nuke lagun giro ederra dela bertsolaritzak eman didan one-takoa, aurkari direnak adiskide izatea. Askotan diot, ber-



Onintza Enbeita bertsolaria. ONINTZA ENBEITA

tsolaritzak egin nau; une on eta txar guztietan, elkarlanaren balioa erakutsi dit.

Frankismo garaian, aurrerapauso bat eman eta euskara plazara itzul zedin lan egin zuen zure aitona. Egun, lan horretan jarraitzen dugu?

Zalantza barik. Erne egon behar dugu, ezin dugu ahaztu behin lortutako guztia, egun duguna, une batetik bestera desager daitekeela. Irabazten diren espazioak ez dira betirako, historia ez da lineala. Hizkuntza gutxitu eta zapalduok lanean jarraitu behar dugu, etengabe.

Lehenengo emakumea izan zara Bizkaiko bertso txapeldun izaten; mugarri bat izan dela esango zenutenuke?

Aurrerapauso sinboliko bat dela esango nuke, baina beharrezkoa eta oso garrantzitsua. Bizkaiari falta zitzaion zerbait zen emakume txapeldun bat; plazan urte asko daramatzagu, baina bigarren planoan egon gara. Aginte-makila hartu eta boterea izan dezakegula erakusteko unea zen. **Zein da egun emakumeen egoera bertsolaritzaren barnean?**

Askio dago oraindik egiteko. Egia da neska ugari, gero eta

gehiago, dabiltzala eskoletan. Plazara salto egiteko unea iristen denean, ordea, gutxi batzuek baino ez dute pausoa ematen. Gizartearen isla baino ez da bertsolaritza; bide zaila egin dugu orain arte, askatasunez hezten duen sistema bat sortu behar da, emakume bat plazara irten eta protagonista izatean ez dadin horren txiki sentitu. Horrekin batera, entzuleei ere erakutsi behar zaie bertsotan dabilen emakume hori eta bere diskurtsoa onartzen.

Arrasateko saioan lau bertsolari arituko zarete: bi gizon eta bi emakume. Gai jartzaileak ere emakumezkoak izango dira...

Bai; saioa parekide izateaz gainera, emakumeon presentzia indartuz, garrantzitsua da gai jartzaileek ikuspuntu feminista bat izan dezaten ere. Izan ere, horrek gai berriak eskaintzen ditu. Orain arte, gai unibertsalei kantuan ibili gara, futbolari, esaterako, eta ez hilerokoari. Ez dakit futbolak gizartearen zer ehunekori eragiten dion bere egunerokoa, baina gizartearen erdia gutxienez hilerokoarekin bizi izan da.

ekidegroup

DISEINUA · INGENIARITZA · PROTOTIPOAK · SERIE MOTZAK
KONTROL TRESNAK · IKUSMEN ARTIFIZIALA

Ondo pasan Sanjuanak!

www.ekide.es

Telleria kalea 2, Arrasate · 943 71 25 43

EGUBAKOITZA 21

Sei Pistols Eta Trabuko Bat
Jose Letona plazan, 21:30ean.

Iaz bezala, kantu afaria egingo dute aurtengo San Juan jaietan. Tripa ondo bete ostean, euskal kanturik onenak abesteko aukera paregabea izango da Sei Pistols Eta Trabuko Bat-en eskutik Jose Letona plazan.

ZAPATUA 22

Tremenda Jauria
Txosnagunean, 22:00etan hasita.

Madrialdik datorren taldeak cumbia-punka, rapa, reggaetona eta musika elektronikoa fusionatzen ditu. Taldearen letrek gai sozialak lantzen dituzte, ikuspuntu antipatriarkal, feminista eta antikapitalistatik. Zuzeneko emanaldiak dira euren espezialitate, eta ziur ikuskizunik ez dela faltako Tremenda Jauria taula gainean dagoen bitartean.



Gora Herria erromeria taldea. GORA HERRIA



Kumbia Queers argentinarrak. KUMBIA QUEERS

Musika aukera zabala eta askotarikoa jaietan

Urtero bezala, musikaz beteta datoz aurtengo sanjuanak. Udalaren eta txosna batzordearen egitarauetan presentzia nabaria du musikak, adin guztientzako aukerekin eta herriko txoko ezberdinetan kokaturik

Kumbia Queers

Txosnagunean, 22:00etan hasita.

Kumbia Queers 2007an Argentinan sortutako taldea da. Ordutik hona, mundu osoan zehar ibili dira punk-rocka, cumbia eta musika tropikala nahasten dituen euren estiloa zabaltzen.

DOMEKA 23

Gora Herria erromeria
Txosnagunean, 23:00etan.

Erromeria taldeak ere ez du hutsik egingo aurtengo sanjuanetan. Euskal musika onena entzuteko aukera, txosnagunean, Gora herria taldearen eskutik.

ASTELEHENA 24

Arrasate Musikaleko Banda
Monterronen, 13:00etan.

Sanjuanetako kontzertua joko du Mikel Markiegi buru duen taldeak. Kalejira egingo dute, Seber Altubetik abiatuta. Behin

*Komaren 20. urteurrenean,
eskerrik asko zuen konfiantzagatik,
eta ondo ibili jaietan!*



**2019-2020 ikasturterako
aurrematrikula
zabalik daukagu;
*Animatu zaituz!***

Koma Arrasate | Iturriotz kalea 35 - behea | Tel.: 943 71 26 31

Koma Oñati | Olakua 7 - behea | Tel.: 943 71 82 08

Monterronera iritsita, bost piezako emanaldia egingo dute. Hona hemen egitaraua: *La Millor Terra del Mon*, Ernesto Rosilla; *La leyenda del Beso*, Soutullo eta Vert; *The Saint and the City*, Jacob de Haan; *Mecano*, Cano; *Mexico*, Francis Lopez.

Oihan Vegarekin, disko-festa Herriko Plazan, 23:15ean.

Esatari bergararraren ikuskizuna klasiko bilakatu da dagoeneko. Beste behin, gaztetxoak dantzan jarriko ditu dantzalekuean arrakasta handiena lortu duten kantuekin.

DJak: The Big Mac Txosnagunean, 01:00etan.

Jon Ander Alberdi eta Eñaut Zubizarreta aretxabaletarrek osatutako DJ bikoteak musika elektronikoz beteko du txosnagunea San Juan jaietako egun handian. *Gazteek House*, *drum-and-bass* eta *db* estiloetako abesti dantzagarriak jarriko dituzte.

MARTITZENA 25

Karaokea Biterin, 12:00etan.

Haurren eta gaztetxoek festa eguneko ekintzetako bat izango da karaokea. Hurrek eta gurasek dantzan eta abesten aritzeko aukera paregabea izango dute.

Puro Relajo mariatxiak Herriko Plazan, 00:00etan.

Nafarroatik datorren Puro Relajo taldeak kontzertua eskainiko du martitzenean. Betiko mexikar doinuez gain, euskal bertsoak jotzen dituen taldearen musikaz gozatzeko aukera izango da San Juan jaietan.

Wood Strings Txosnagunean, 23:00etan hasita.

Aretxabaleta eta Arrasatetik datorren musika taldeak 2016an ekin zion bideari. Bere bost kideek rock doinuz beteko dituzte Arrasateko txosnak eta giro ona izango da nagusi emanaldi osoan.



Wood Strings. GOIENA



Koban taldeko kideak. KOBAN



Puro Relajo mariatxiak. PURO RELAJO



Los WC arrasatearrak. LOS WC

Los WC

Txosnagunean, 23:00etan hasita. Arrasateko taldeak punk-rock doinuak eta letra gordinak eramango ditu San Juan jaietara.

Egurra Ta Kitto

Txosnagunean, 23:00etan hasita.

Ska eta rock doinuak ekarriko ditu 2008an Azpeitian sorturiko taldeak. Lokal txiki batean entseatzeko hasi eta hilabete batzuetan kantuak sortzen aritu ondoren, 2008ko abenduan eman zuten lehen kontzertua. Bere azken diskoarekin dator Egurra Ta Kitto San Juan jaietara, iazko 10 urte izeneko lanarekin.

MARTITZENA 26

Koban taldearen kontzertua Herriko plazan, 20:00etan.

Donostiako musika taldea 2015ean sortu zen. Hasiera batean, trikitia eta swinga uztartzeko asmoa zuten, baina, taldekide berriak sartu ahala, musika estilo berezia garatu dute.



Ondo ibili sanjuanetan!

carrascaladapt
sukaldeak bainuak armairuak

ZEURE NEURRIRA, ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate

Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com

Plan ugari San Juan jaietarako

JULEN BARRUTIA

"Aurten, barra atzean egotea tokatuko zait; hortaz, lanean pasako ditut San Juan jaiak. Lan handia egoten da egun hauetan eta festak bizi izateko beste modu bat ere bada. Herriko girorako ezinbestekoa da gure lana. Bestela, lagunekin gozatzea da jaietan gehien gustatzen zaidana; San Juan bezperan, batez ere. Lehen eguna gogotsu hasten dugu beti: herri bazkaria, makalaren igoera... kuadrillan ospatzeko eguna izan ohi da".



LEIRE ESTEVEZ

"Lagun artean egoteko egunak dira niretzat, elkarrekin topo egitekoak. Kanean ibiltzen gara gau eta egun, giro ederra egoten da. Batzuetan, aspaldi ikusi gabeko lagunekin elkartzen gara, bazkariak egiten ditugu. Bereziki, San Juan bezperako gaua gustatzen zait, une hunkigarria da: dantzak, suak... Badu esanahi berezi bat Arrasateko herriarentzat, bere historiaren zati txiki bat dela esango nuke".



EDURNE ELKORO

"Egia esanda, umearen bueltan pasatzen ditugu San Juan jaiak. Bezperan hasita, errementari dantza ikustea gustatzen zaigu, herriaren ikurretako bat dela uste dut. Gero, San Juan egunean erraldoi eta kilikiekin ibiltzen gara, kalejiran. Orain, egun handia haurrena da guretzat; goizean jolas parkean ibili, Eguzkilarurekin dantza pixka bat, eta arratsaldean Pirritx eta Porrotxen emanaldia ikustera joango gara aurten".



JOSE ANTONIO ALTUNA 'TXATILLO'

"Lasai ospatzen ditut San Juan jaiak; egunez ibiltzen gara, eta salbera joateko ohitura dut. Dena den, gazteak ginenean egon osoa pasatzen genuen kanean, lagunekin. Zezenetara joaten ginen, kaleko giroaz gozatu. Orduan ere ez ginen ordu txikietan ibiltzen. Orain, festak asko ospatzen dira gauez; lehen, baina, egunez ospatzen ziren sanjuanak. Lehen egunak izaten dira gehien gustatzen zaizkidanak, bezpera eta San Juan eguna".



ENRIKE DOLARA

"Gaiteroek egun osoa pasatzen dugu kanean San Juan jaietan: bandarekin jotzen dugu, errementari dantzan, diana, zezenak, erraldoi eta kilikiekin... Lan pixka bat egitea tokatzen zaigu, baina pozarren ibiltzen gara. San Juan eguna izaten da politena; lan gehien dugun eguna izaten den arren, oso berezia izaten da. Horrez gain, lagunekin eta familiarekin disfrutatzeke uneak izaten dira, bazkari eta afariak egitekoak".



KARMELE IPARRAGIRRE

"Gehien gustatzen zaidan eguna San Juan bezpera izaten da, orduan egoten da giro polita herrian. Dantzak ikustera joaten gara, eta kontzertuetara. Musikazalea naiz, eta bertan ere jende dezente ibiltzen da. Montterongo musika emanaldia ez dut inoiz galtzen, paraje ederrean egoteak ere badu bere xarma. Errementari dantza ere gure ekintza kuttunenetakoa da, beti ikusten dugu".



SAN JUAN JAIK 2019

GOIENA TELEBISTA

EKAINAREN 25EAN, MARTITZENA, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

BABESLEA:



goiena
Zu hemen zaude.



Erromesak pasatzen zireneko aztarnak

Arantzeta eta Uriarte auzoetan dagoen ermita kopurua ez da nolanhikoa. Donejakue bidearekin lotura duten santuei eskainita daude, eta jakinekoa da erromesendako ospitalea izan zela Maalan. Compostelarako bidearen bi adar elkartzen ziren Elgetan

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Arantzeta eta Uriarte auzoetako ermitak ezagutzera emateko bisita gidatua egin zuten zapatuan. *Ezkutuko altxorrek* programaren barruan antolatua, hamar bat lagunek entzun zituzten Nerea Villaren azalpenak. Maala, Santutxua, Uriarteko Ama, San Adrian, San Martin eta San Blas ermiten berri jaso zuten. "Uste dugu Arabarako bidean Donejakue bidearen bi adar igarotzen zirela Elgetatik: Eibartik zetorrena eta Bergararik zetorrena. Arantzeta inguruan egiten zuten bat", azaldu zuen.

Uriarteko Ama

Gaur egun desagertuta dagoen Maalako ospitalearen ingurukoak entzun ostean, Uriarteko Ama ermitaren hondarrak ikustera jaitsi ziren bisitariak. Horma zati batzuk besterik ez da gelditzen, baina leku esanguratsua da Elgetan. Herriaren sorrera Olaegi eta Jalotza inguruetan kokatu zenean eraiki zuten, eta haren atarian egin omen ziren lehen kontzejuak eta baita ere lehen ehorzketak.

1936koak dira azken berritze lanak, eta baita ere azken meza; izan ere, gerraren etorrera erabakigarria izan zen. Herritarrek hustu zuten ermita, eta soldaduek



Zapatuko bisitariak San Adrian ermitan. L.Z.L.

ISTORIO BITXIAK DITUZTEN ERMITAK DIRA, BAINA MANTENTZE PREMIA DUTE GEHIENEK

babesleku gisa hartu zuten. Oso hondatuta gelditu zen, eta ondorengo mantentze-faltak egin du gainerakoa. Ermitako figurak Elgetako parrokiaren daude gaur egun. Aldare nagusian dagoena Uriarteko Ama da.

San Adrian ere, arriskuan

Aldameneko etxea San Antonio da, eta izen horrekin ezagutzen dute herritar askok ermita, baina San Adriani eskainitako otoiitz-lekua da. XVI. mendeko eraikuntza dela uste dute adituek, eta 1969koa eta 2005ekoa dira azken berritze lanak.

Mantentze beharra du ermita horrek ere. Ondo mantendu da orain arte, baina hormak zartatzen hasita daude, eta habe nagusi batek itxura oso txarra du. Aldareko margolana ere oso kaltetuta dago.

Etxe ondoko bideetan barrena Gorlara joango dira domekan

Kantsatzeke mendi taldearen ekaineko irteera Gorlara izango da; bazkalordurako etxean egotea da asmoa

A.E. ELGETA

Kantsatzeke mendi taldeak antolatu du ekaineko mendi irteera; oraingo hilabetean, etxe ondoan izango da. Etzi, domeka, egingo dute irteera, Gorlara. Taldea 08:00etan elkartuko da, herriko plazan, handik autoetan abiatzeko.

Gorlara egingo du mendi taldeak. Bergararik abiatuko dira eta trenbide zaharretik Antzuolara egingo dute. "Gero, Uzarragatik gora Gorlara. Hamarretakoa kantina inguruan egin, eta Bergarara buelta. Antzuolatik

gora, Gorlatik bertatik eta gero, beheranzkoan, Elgeta alderako bista ederrak ikusteko aukera izango dugu", azaldu dute antolatzaileek. "Lau bat orduko ibilaldia izango da -ia 14 kilometro-, baina erraza", gaineratu dute mendi taldekoek.

Goiz-pasa mendian egin eta bazkaltzeko ordurako etxean egotea aurreikusten dute antolatzaileek.

Beste mendi irteeretan egiten duten moduan, aurrez eman behar izan da izena ekaineko irteera egiteko ere.



LARRAITZ ZEBERIO

'Azaleko ipuinak', liburutegian

Liburutegiak antolatuta, 0-2 urte bitarteko haurrei zuzendutako saioak egiten dabilta, *Azaleko ipuinak* izenarekin, Saroa Bikandiren eskutik. Martitzenean bigarren saioa egin zuten, eta hirugarrena eta azkena ekainaren 18an izango da. Kantuz, jolasez, liburuz, hitzez, poemaz eta azalaz gozatzeko bideak erakusten ditu Bikandik saioetan.

OHARRAK

Garagardo dastaketa egingo dute Ozkarbin

Ozkarbi elkarteak antolatuta, garagardo dastaketa egingo dute ekainaren 20an, eguna. Bost garagardo eta bost gazta mota egongo dira probatzeko -10 euro-. Izena eman behar da aurrez.

Udalekuetako izen-emate epea

Gaur da udalekuetan izena emateko azkeneko eguna. 2007 eta 2016. urte bitartean jaiotakoei zuzendutako udalekuak dira.

Euskara ikasteko laguntzak

Elgetatik kanpo euskara ikasteagatik ematen dituzten laguntzak eskatzeko epea ekainaren 28a da. Harremanetarako telefonoa: 943 76 80 22, eta *Elgeta.eus* atarian informazio osagarria.

San Martin ermita, Ojanguren baserrian

Beste bat zen ermitaren hasierako kokapena, baina jausi egin zen gerra ostean, eta kokapen berria du orain. "San Blas ermitaren berdina zen. Santua ganbaran eduki genuen gordeta urte askoan. Jose *Beketxe* lehengusua izan zen bertan bataiatutako azken elgetarra, eta haren nahia izan zen berriz ere altxatzea. 1979an egin genuen ermita berria".



Isabel Ojanguren, San Martin ermitaren ingurukoak azaltzen bisitariari. L.Z.L.



Agintaldiko azken osoko bilkuran, udalbatza osatzen duten jarduneko zinegotziak. MAIDER ARREGI

Zumitzezko uztaia jasoko du Kortabarriak

Zapatu eguerdian egingo da Antzuolako udalbatza berria eratzeko osoko bilkura. Ezustekorik ezean, lehen bozketan gehiengo osoz Beñardo Kortabarria izendatuko dute alkate, 2019ko ekainetik 2023ko ekainera arteko agintaldia betetzeko

Maidar Arregi ANTZUOLA

Dena ondo bidean, bigarrenez jasoko du Antzuolako jarduneko alkate Beñardo Kortabarriak zumitzezko uztaia, zapatuan. Osoko bilkura berezia izango da, udalbatza berria eratzeko baita. Eguerdikoa hamabietan hasiko da eta herritarrei irekia egongo da. "Orain lau urte, herritarrek etorri ziren udalbatzaren eraketaren osoko bilkurara. Aurten ere herritarrendako ateak irekita egongo dira, noski. Agian, kargua hartzen berria banintz, ikusmina handiagoa izango litzateke", aurreratu du Kortabarriak.

Sorpresa gutxi aurreikusten da biharko. Lehenengo bozketan, gehiengo osoz izendatuko dute Kortabarria alkate. Izan ere, gehiengo osoa izateko sei zinegotziren aldeko botoa behar du Kortabarriak –guztira, udalbatzak hamaika zinegotzi ditu—. Gogoratu behar da EH Bilduk zazpi zinegotzi dituela, EAJk hiru eta alderdi sozialistak bat.

Beñardo Kortabarriak oraindik zer esango duen osoko bilkuran guztiz zehaztuta ez daukan arren –eguzten goizean izan da GOIENArekin–, eskerrak emateko hartuko duela hitza aitortu du: "Eskerrak emango dizkiet herritarrei. Izan ere, %60k bat egin dute gure proiektuarekin. Egiten ari garenarekin bat dator jendea eta horretan lanean jarraitzeko eta sakontzeko konpromisoa hartuko dugu datozen lau urteetan ere", azaldu du. "Orain lau urte hartu genituen konpromisoak betetzea izan da gure lan jarduna, eta horretan jarraituko dugu; gure lana zintzotasunez egitea eta jendeari entzutea da eskaini dezakeguna. Dena ondo egitea zaila da eta denak

LEHEN BOZKETAN, GEHIENGO OSOZ IZENDATUKO DUTE ALKATE BEÑARDO KORTABARRIA

konforme egotea ere zaila dela badakigu. Baina herritar orrendako lan egingo dugu; guregana datorren arazoa edo gaia herri mailako ikuspegiarekin landuko dugu. Proiektu eta proposamen guztiei arreta bera jarriko diegu, herri hobe egitea da eta gure helburua".

Adin Mahaia gidatuko du

EH Bildu alderdiko bi zinegotzi dira Adin Mahaia osatuko dutenak. Josune Martinez da udalbatzako zinegotzirik gazteena eta zaharrena, aldiz, Purita Arregi. Osoko bilkura alkateak gidatzen duen arren, bihar, Martinezen eta Arregiren ardura izango da. Bietako batek, gainera, emango dio zumitzezko uztaia Kortabarriari.

Udalbatza osatu ostean, batzordeak eta kanpoko erakundeetarako ordezkariak aukeratzeko 30 eguneko epea du Antzuolako Udalak. "Ziurrenik, herriko jaien aurreko astean egingo dugu osoko bilkura".



UDAL LIBURUTEGIA

Idazle gaztetxoek harrobia

Herri Eskolak, liburutegiarekin elkarlanean, banatu ditu aurtengo Patxiko Txerren ipuingintzaren 2019ko emaitzak. Aurtengoa 21. edizioa izan da eta, guztira, 128 lan aurkeztu dituzte Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleek. Argazkian, aurtengo zortzi ikasle sarituak, irribarretsu, Olarango areto nagusian.



IMANOL SORIANO

Gaztetxoendako challengea

Pasa den asteburuan eman zitzaion hasiera Peña Aiastuik antolatutako challenge denboraldiari. Iralako igoera egin zuten 3 eta 12 urte bitarteko 24 neska-mutikok; eta Ekaitz Labaienek egin zuen denbora onena.

Zapatuan, ekainaren 15ean, Uzarragako igoera egingo dute txirrindulari gaztetxoek 12:00etan hasita.

OHARRAK

Antzuolako basoak

Lan-saio irekia egingo da Antzuolako basoen erronkak aztertze hildaren 18an, Olaran etxean, 18:00etan.

Aralarrera irteera

Arrolako mendizaleek eguraldi txarregatik atzeratutako Aralarrerako irteera bihar, zapatua, egingo dute. Irteera 08:30ean izango da, Olarandik. Sei bat orduko ibilbidea, lagun artean erraz egiten dena. Izena, arrolamt@gmail.com helbidean.

Udal webgunearen aurkezpena

Ekainaren 19an, udal webgune berria aurkeztuko dute udaletxean, 18:00etan.

Irrati-kontrol autoen topaketa etzi, domeka

Euskal Autonomia Erkidegotik etorriko diren 30-40 irrati-kontrol auto inguru elkartuko dira domekan. Laugarrenez egingo dute topaketa Beheko auzoko 'kanpo beltzean'. Aurten ere, batuko duten dirua Bergarako Fundame elkartearendako izango da

Maidar Arregi ANTZUOLA

Iñigo Martin, Mikel Arenas, Dani Pedraza eta Edu Roman dira Zumantzu Team taldearen bultzatzaileak. Aurten, laugarrenez antolatu dute Antzuola-ko irrati-kontrol bidezko autoen topaketa.

Domekan, ekainaren 16an, egingo dute topaketa eta egun osoz erakustaldiak eta modalitate ezberdinen arteko lasterketak egingo dituzte Beheko Auzoko *kanpo beltzean*. Edu Roman da antolatzaile taldeko kideetako bat eta dena gertu dutela azaldu du. Zaleendako bi gune prestatu dituztela dio: "Gune batean autoendako zirkuitua jarriko dugu; bigarren gunean, berriz, 4x4 autoendako -krauler modalitatea- ginkana prestatu dugu". Eta antolatzaileek dei berezia egin gura diete autoa etxeko ganbaran dutenei: "Zaletasuna azaleratu gura dugu, eta etxeko ganbaran autoa gordeta dutenak animatu".

Hastapenerako autoak

Umeendako eta hasiberriendako, aldiz, RTR (Ready to Run) deritzoten autoak aukera ona direla dio Romanek: "Auto gogorra goak dira eta ez dute hainbeste teko abiadurarik hartzen; ordezko piezak merkeagoak dira,



Edu Roman bere lau autoekin. MAIDER ARREGI

BI AUTOREN ZOZKETA EGINGO DA; BATZEN DEN DIRUA FUNDAME ELKARTEARENDAKO IZANGO DA

eta irrati parametroak aldatu egin daitezke. Trebetasuna behar da; beraz, gomendatzen dut heldu batekin hastea. Umeendako 4x4 autoa gomendatzen dut; nahiko gogorrak dira eta edozein lekutan erabili daitezke".

Elkartasuna helburu

Topaketaren helburuen artean, esan moduan, zaletasuna sustatzea dago. Baina, aurten ere, iaz bezala, helburu nagusi bat badute, eta elkartasunez blai datorrena gainera. Hala, bi irrati-kontrol auto zozketatuko dituzte eta batzen den dirua Bergarako Fundame elkartearendako, muskulu-atrofia espinalari aurre egiteko lanean dabilen elkartearendako, izango da. Txartelak salgai daude Xinkonan eta Gorosti eta Mox tabernetan euro baten truke.



NIRE USTEZ

ION LIZARAZU

Gurdiari tiraka

Irudika dezagun bi gurpildun gurdia, gainean orotariko gauzekin eta jendea tiraka. Aurrera egiteko indarra behar da, malda agertzean jende gehiago beharko da, edota karga arindu.

Jende gutxi dagoenean, posible da gurdiko gauza batzuk kendu beharra, edo gurdia bere horretan bide erdian uztea. Lantzean komeni izango da gurpilak konpontzea eta moldatzea, bideak higatuko baititu, eta jendea bezain garrantzitsuak dira gurpilak gurdiak aurrera egin dezan.

Denboraren poderioz, aldatuz joango da, egoeren arabera gurdian gauzak faltako dira eta berriak etorriko, gurpilen ertzak eta formak aldatuko, eta nola ez, jendea bera ere aldatuko da.

Jende berriak ere egingo du tira denak aurrera jarrai dezan, gurpilari bere estiloa emanez, eta gurdiko edukia aldatuz.

Orain, berriz, irudika dezagun aipaturiko gurdia gure tradizioa dela, gurpilak transmisioa, bidea denbora eta tiraka ari dena herria dela.



LUIS ELORZA

52koen eta 53koen kinto eguna

1952. urteko maiatzetik 1953. urteko uztailean bitartean jaiotako kinto antzularrek egun-pasa ederra egin zuten pasa den ekainaren 7an. Giro ezin hobean ospatu zuten kinto eguna, eta Zarautzera egin zuten irteera. Argazkian, lagun taldea ikus daiteke Zarauzko malekoian, eguraldi ezin hobe lagun zutela.

Egun osoko egitarau borobila

Hamarretan, emango zaio hasiera topaketari. Eguerdiko ordu biak arte *kanpo beltzean* ibiliko dira bi zirkuitu ezberdinetan irrati-kontrol autoak. Ondoren, atsedendaldia egingo dute eta berriro arratsaldeko lauretan ekingo diote bigarren saioari.

Arratsaldeko seietan, berriz, bi irrati-kontrol autoen zozketa egingo dute.



lazgo topaketa arrakastatsua, beheko auzoan. IMANOL SORIANO

Bakardadeaz berba egingo du Pili Castro psikologoak

Landatxopek antolatuta, Pili Castro Deustuko Unibertsitateko psikologia irakasleak eta Caritaseko Nagusien Saileko arduradunak bakardadearen gaia mahai gainean jarriko du. *Bakardadea: bakarrik bizitzea baino gehiago* izeneko hitzaldia ekainaren 19an izango da, Olanen, 18:30ean; gazteleraz izango da zatirik handiena.

Urdaibaira txangoa egingo dute Landatxopekoek

Uztailaren 2an, martitzena, Bizkaiko Urdaibaiko erreserba naturalera irteera egingo dute, Landatxope erretiratuen elkar-teak antolatuta. Izen ematea elkar-teak Torresoroa eraikinean daukan bulegoan bertan egin beharko da. Bi egun jarri dituzte horretarako: ekainaren 17a eta 18a, arratsaldeko lauretatik seietara bitartean.



2015eko ekainaren 13an eratu zen azken udalbatza, eta Juanje Alberdi –zumitzezko uztaiarekin– izendatu zuten alkate. GOIENA

Artola alkate, eta hainbat aurpegi berri udalbatzan

Bihar eguerdian egingo den osoko bilkura berezian eratuko da 2019tik 2023ra arteko udalbatza, bederatzi aurpegi berriekin; Gorka Artola izendatuko dute alkate, Bergarak inoiz izan duen alkaterik gazteena, eta aurreikustekoa da aretoa bete egingo dela

Jokin Bereziartua BERGARA

Osoko bilkura berezia biziko da bihar udaletxean (12:00), 2019tik 2023ra arteko udalbatza berria eratzeko bilkura egingo dute eta. Bilkurak bi zati izango ditu: udalbatzaren eraketa eta alkatearen izendapena. 17 zinegotziz osatutako udalbatza berria eratzeko, Adineko Mahaia osatuko da, zinegotzi zaharrenak, gaz-

teenak eta udal idazkariak osatutakoa. Zaharrenak zinegotzi hautatuei zin egin edo hitza ematearen formula irakurriko die, baiezkota eman dezaten.

Zin egitea, ezinbestekoa

Zinegotzi guztiek zin egin ondoren, korporazio berria eratu dela eta zinegotziek kargua hartu dutela aldarrikatuko du adi-

neko mahaiburuak. Zin edo hitza eman, zinegotzi guztiek egin behar dute, zinegotzi kargua hartzeko ezinbestekoa delako; izan ere, LOREG delako lege organikoak hala agintzen du.

Bilkurako bigarren zatian, alkate berria aukeratuko dute, eta, azken orduko sekulako sorpresarik ezean, Bergarak inoiz izan duen alkaterik gazteena

izango da: 30 urte dituen Gorka Artola. Lehen bozketa baten gehiengo osoa lortzen duen hautagaia izendatzen da alkate, eta, maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan EH Bilduk bederatzi zinegotzi eta gehiengo osoa lortu zituenez, lehen bozketa horretan irtengo da aukeratua Artola –betiere, ez balitz azken orduko sorpresarik egongo–.

"Martxan gaude, lanerako gertu"

Artolak GOIENARI aitortu dio "ilusioz" biziko duela bilkura: "Hitzez deskribatzeko zaila da, *ilusioa* da etortzen zaidan berba. Martxan gaude eta, egia esan, burua hurrengo antolaketa lanetan daukat gehiago zapatuko [biharko] kargu-hartzean baino. Sinbolismo handiko bilkura izango da, oso solemnea, eta berezia izango da. Hala ere, aurrera begira gaude, lanerako gertu". Alkate moduan emango duen lehen diskurtsoaz galdetuta, aurreratuko du mezu nagusia izango dela herritarrek, eragileak eta Udala bide berean jartzea Bergara hobe bat eraikitzeko.

Esker ona adierazteko ekitaldia

EH Bilduk osoko bilkuren aretoa betetzeko deia egin du biharko, eta ondoren ekitaldi bat egingo dute Aranzadi Ikastolako gimnasioan. Ekitaldiaren helburua da zinegotzi talde berriari ongi-etorria egitea eta, bereziki, zinegotzi karguak utziko dituztenei esker ona adieraztea. Ondoren, han bazkalduko dute; txartelak salgai daude Arrano eta Pol-Pol tabernetan, 23 eurotan.

"Ilusioz egingo dugu oposizioa"

Bestalde, bihar utziko dio jarduneko alkate izateari Elena Letek, eta GOIENARI adierazi dio sentsazio "gazi-gozoaz" bi-

ziko duela biharko osoko bilkura: "Alde batetik, beste nahi bat geneukan aurkeztu ginenean. Gobernuan egon nahiko genuke eta gure emaitzek aurrera jarraitzeko aukera ahalbidetu, baina ez da horrela izan. Bestetik, programa zentzuz osatu genuen eta programa hori gauzatzeko ahal dugun guztia egingo dugu oposiziotik, ilusioz".

Zumitzezko uztai Artolari

Duela lau urteko udalbatza eratzeko osoko bilkuran, 2015eko ekainaren 13an, Juanje Alberdi izendatu zuten alkate eta Letek 2016ko urtarrilean hartu zuen alkatetza Alberdirengandik –Alberdik arrazoi profesionalak argudiatu zituen alkatetza utzeko–. Horrez gain, urteotan lagungarri izan zaion esaldi bat ekarri du gogora Letek: "Oparitu zidaten koadro bat daukat gogoan, honako hau zioena: *Jainkoek eman diezadatelaldatu daitezkeen gauzak aldatzeko ausardia, aldatu ezin ditudanak onartzeko lasaitasuna eta bien artean bereizteko jakinduria*. Marco Aurelio Antoniusen esaldi bat da eta lagungarri izan zait agintaldi honetan; espero dut Gorkarentzat ere hala izatea".

Biharko osoko bilkuraren amaieran, zumitzezko uztaiaren emango dio Letek Artolari eta alde zuzeneko zinegotzi kargua zin egin duen alkate izendatu berriak aretora hurbildu diren herritarrei zuzenduko zaie, lehenengo alkate gisa.

ZINEGOTZI GUZTIEK EMAN BEHAR DUTE HITZA KARGUA HARTZEKO, LOREG LEGEAK AGINDUTA

San Martin eta Ipintza: jaia bihar eta gurasoen batzarra hilaren 18an

San Martin Agirre eskolako ikasturte amaierako jaia ospatuko dute bihar, ekainak 15: umeendako krosa Agorrosindik irtenda (10:00); San Joxepe elkarteko bolatokian bolo-jolasa (11:00); eskolan bertan Lehen Hezkuntzako ikasleen eskutik eskulanak, aurpegi margotzea eta sukaldaritza, besteak beste (12:00); bazkaria (14:30); antzer-

kia (16:00); DJa (17:30) eta txokolata-jana (18:00).

Bestalde, Bigarren Hezkuntzako Ipintzaberrri guraso elkarteak batzarra egingo du ekainaren 18an, Ipintzako batxilergoko eraikineko areto nagusian (18:30): "Komenigarri ikusi dugu batzarra egitea, ikasturteko jardueran berri emateaz gain, etorkizunean ikastetxe gisa ditugun erronkak konpartitzeko". Besteak beste, hurrengo lau urteetarako proposamena aurkeztuko dute, ekarpenei zabalik.

San Martzial: mahaia eta aulkiak alokatzeko, hilaren 17a eta 18a

San Martzial egunean, ekainak 30, ospatuko da aurten bergararentzat horren berezia den erromeria. Herritarrek aukera izango dute mahaia eta aulkiak alokatzeko; ekainaren 17an eta 18an Seminarixoko leihatilan eskatu beharko dira, 18:00etatik 20:00etara. Prezioa 28 euro da. Honako hauek dira alokairurako baldintzak: 150 euroko fidantza

jarriko beharko da –hiru mahaia baino gehiago hartuz gero, 300 euro–; ezingo dira bost mahaia baino gehiago hartu; mahaia bakoitzeko gehienez zortzi aulki eskatu ahal dira; edalontzi berrerrabilgarriak eta zabor poltsak emango dira fidantza gehigarri gabe; eta mahairik edota aulkirik alokatu ez arren edalontziak erosteko aukera egongo da euro baten. Fidantza bueltatuko da uztailearen 4an, 5ean eta 8an, 18:00etatik 20:00etara, Seminarixoko leihatilan.

Aranzadi: ikasturte amaierako jaia, ekainaren 21ean

Aranzadi Ikastolako hilaren 21ean ospatuko du ikasturte amaierako jaia. Hasteko, 18:30etik aurrera, askotariko ikuskizunak eskainiko dituzte ikasleek frontoian; gero, 21:00etan, ume eta gaztetxoentzat afaria eta jolasak izango dituzte seminarioko patioan. Jaia borobiltzeko, 22:00etatik aurrera, dantzan egiteko gonbidapena egin dute.

Katxalin ikusgarriago egiteko jaia hilaren 22an

Bularreko eta ginekologiako minbiziaren aurka lanean diharduen Katxalin elkartearen aldeko jaia antolatu dute Bedelkarren eta Udalaren babesarekin; ekainaren 22rako Irala kalean antolatu duten jaietan, euren lana agerikoago egiteko eskulanak egingo dituzte

Jokin Bereziartua BERGARA

Bularreko eta ginekologiako minbiziaren aurka lanean diharduen Katxalin elkartearen aldeko jaia antolatu dute ekainaren 22rako. Katxalinen lana ikusgarriago egitea da ekimenaren helburu nagusia; Irala kalean izango da jaialdia, 18:00etatik 20:00etara. Egitarauaren barruan, Katxalin elkartearen tailerrak, Candem Town-en dantza emaldiak eta musika izango dira.

"Oso eskertuta gaude"

Katxalin-ekoek askotariko eskulanak egingo dituzte: bihotzak, beletak, panpinak, gorroak, barita magikoak... Euren lana agerikoago egiteko, Bedelkarreko dendariengana jo zuten Katxalinekoei. "Gure lehen urratsetako bat izan zen dendetara jotzea elkartearen berri emateko; dendetako arduradunek beso zabalik hartu gintuzten hasieratik eta Katxalinen gaineko askotariko informazioa dute ikusgai. Gero, dendariengandik irten zen Katxalinen aldeko jai bat antolatzearen ideia, eta hori, guretzat, sekulako sorpresa izan da. Oso eskertuta gaude", adierazi du Katxalin elkarteko Maite Valle. Hain zuzen, Valle nabarmendu du Katxalinen ateak "parez pare" daudela zabalik: "Gaixoa izan edo ez, ondoetorria izango da. Bergarako eta inguruko herrietako eragileen babes behar dugu eta horretarako egokiena da egiten dugun hori erakustea".

Herritarrei, parte hartzeko deia

Bedelkarreko ordezkariak "argi" dute Katxalinen lana babestu egin behar dela. "Herriko elkarte bat da eta lan handia egiten du Bergaran bertan. Egiten duten lanaren zati bat ez da ikusten, eta erakutsi beharra dago. Herritarrei dei egiten diegu hilaren 22an Irala kalera hurbil daitezen", adierazi du Bedelkarreko Ainhoa Lazkanok.



Katxalinek, Bedelkarreko eta Udaleko ordezkariak, jaiaren berri ematen. J. BEREZIARTUA

'Mila txapela, mila irribarre' kanpaina

Katxalin elkarteak 100 bat bazkide ditu Bergaran eta 700 inguru Gipuzkoan; elkarteak egoitzak ditu Bergaran –San Joxepen elkartzen dira, astelehenetan eta egubakoitzetan–, Ordizian eta Donostian. Orain bertan, *Mila txapela, mila irribarre* kanpaina ari dira lanean buru-belarri, helburu argi batekin: tratamenduan dauden pazienteei txapel bana oparitzea, kimioterapiaren zeharkako ondorio den ilearen galtzearen aurrean babes psikologikoa eta emozionala eskaintzeko. Katxalin elkarteak bazkideak hasita daude Asun Dominguez diseinatzaileak birziklatutako telekin eta kolore alaiekin txapelak egiten, eta Donostiako, Txagorritxuko eta Gurutzeetako ospitaleetan ingratuta daudenei emango dizkiete. Banaketa irailan egitea dute aurreikusita; laguntza emateko: 669 66 47 12 edo 943 24 56 08.



NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO

Ametsak eta errealitateak

Ametsak amets dira; esaldia ez da nirea, baina egia da ametsak batzuetan errealitate bihurtzen direla. Niri, azkenaldian, bi amets egin zaizkit errealitate. Bata, maiatzaren 26an, zalantza bako errealitatea. Eta bestea izan da maiatzaren 20an, Google jakintsuaren eta Huawei erraldoiaren arteko harremanak apurtu direnean. Edo beste modu batera esateko, amerikarren eta txinatarren arteko guda komertziala, edo, nahi bada, gure hartzekodunen arteko guda. Nire ustez, errealitate egindako amets hau ez da kezagarria teknologiari dagokionez, nahiz eta, ni neu, Huawei telefono mugikor baten jabe izan. Zeren ez da beharrezko izango gaur egun eguneroko zaizkigun aparailu hauek aldatzea, zeren asmatuko dira Interneteko nabigazioa eta sistema eragileen banaketa erraztuko dizkiguten beste bilatzaile batzuk. Egiptoarrek ez zuten alfabetoa alferrik asmatu, duela bi mila urte baino gehiago, eta Homerok ez zuen alferrik erabili egiptoarrek asmatutako alfabetoa K.a. VIII. mendean bere poemak papiror biribilki handietan ordenatzeko. Beraz, lasai, *aquí no pasa nada, tenemos a Arkonada*.

Dantza eta musika ikuskizuna gaur plazan musika eskolari esker

Gaurko ekitaldian dantza tradizionalak ikusteko aukera egongo da, baina ikasturtean zehar landu duten "sormenaren emaitza" ere erakutsiko dute agertokian. Musika zuzenean eskainiko dute; hainbat musikari, eskolako ikasle, irakasle eta gurasok osatutako taldeek joko dute. Antolatzaileek aurreratu dute hamabi abesti izango dituela emanaldiak; Korrontziren, Gozategiren, Kepa Junkeraren eta Mikel Laboaren kantuek entzun ahalko dira, besteak beste. Duela bost urte musika eskolak herriko dantza eragileekin abiatutako elkarlanaren emaitza da ikuskizuna; San Martin plazan izango da, 22:00etatik aurrera.

Erlojupekoa eta auzo bazkaria asteburuan, San Antonioko jaietan

Jaiak eguaztenean hasi baziren ere, San Antonio auzoko jaietan barruan ekintza potoloenak asteburuan ospatuko dituzte. Zapatuan egun osorako plana izango dute: zezentxoak (12:30); karpako tabernaren irekiera (12:30); kadete mailako Gipuzkoako banakako erlojupeko txapelketa (17:30); buruhandiak (18:45); sardina-jana (20:00); eta Ondarroako Itzalak taldearen kontzertua (20:30). Domekan ere arratsaldera arte egongo da zertaz gozatu: txistulari bandaren diana (11:00); txistulari bandaren kontzertua karpan (12:30); herri bazkaria (15:00); eta buruhandiak eta DJa (18:30). Auzora hurbiltzeko dei egin dute antolatzaileek.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak - Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak - Eskailerak -
Leihoak - Tarimak -
Egur lanak

21
K
KALITATA

Enpresa Registrada Nº00205



San Joxepeko erretiratuak bolotan, jaietako azken egunean.



Goitibehera ziztu bizian, San Martzialerako bidean behera.

Erraldoi berria izan dute aurtengo Pentekosteeek: *Bitorianatxo*.

14 kuadrilla aurtengo pikean, azken urteetako kopururik altuena; irabazleak, San Lokai.



Txosnagunean giro ederra izan da egunero; irudian, Laket-en erromeria astelhehenean.

Azken urteotako jendetsuenak

Bitorianatxo ordu erdi lehenago jaitzi eta igo arteko bost egunetan giro aparta izan da kalean, eta ez da aparteko intzidentziarik izan; zuzeneko kontzertuak oso arrakastatsuak izan dira; bereziki, Brigade Locok, Esne Beltzak eta musika bandak eskaini zituztenak

Jokin Bereziartua BERGARA

Aurtengo Pentekosteeek azken urteotako jendetsuenak izatearen sententzia utzi dute Udaleko Kultura Zerbitzuan: "Oro har oso ondo joan dira eta programatutako ekitaldi guztiak egin ahal izan dira aparteko intzidentziarik gabe". Partaidetzari dagokionez, asteleheneko herri bazkaria da salbuespena; eguraldiatik seminarioko patioan egin behar izan zuten eta aurten 309 lagun elkartu ziren. Azken urteetan beherantz egin du baz-

kari horretako parte hartzeak. Horren aurrean, parrandazale gazteenek ez dute hutsik egin; horren seinale da asteleheneko kuadrillen pikean azken urteotako kopuru handiena batu zela.

Zuzeneko kontzertuen arrakasta

Hainbat izan dira zuzeneko emaldiak, baina hiru aipatu behar dira oso jendetsuak izan direlako. Jaietako lehen egunean, Bergarako Brigade Locok *leher-tu* egin zuten Xaxauren txosnagunea; igarri zen etxean jokatzeko

zutela. Zapatuan, Esne Beltzak goraino bete zuten San Martin plaza eta domekako bandaren kontzertu berezian –Alfredo Gonzalez Chirlaqueren azkena zuzendari moduan– jendea frontoira ezin sartu geratu zen.

Bestalde, zezen plaza egunero egon da goraino beteta eta eguraldiak lagundu du, oro har, jaietako bost egunetan; esaterako, martitzeneko umeen jolas parkea seminarioko karpan egin behar izan zuten euriagatik, Ipintzako patioan egin ordez.



Herri bazkariko parte hartzea behera doa urtez urte; aurten, seminarioko patioan egin dute.



Eguraldiak ez lagundu arren, jende askotxo batu zen plazan idi probetz gozatzeko.



Errekortadoreek erakustaldi itzela egin zuten. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO, AITOR AGIRIANO ETA J.B.



Ryder-ak Mariaren Lagundiko patioan.



Finalistak, antolatzaileak, Beñat Rezusta eta jarduneko Kirol zinegotzi Igor Oiarbide. J.B.



Katxalin elkarteok eman zieten hasiera jaiei; irudian, Bitorianatxorekin eta Udaleko ordezkariekin, udaletxean.



Jolasteko aukerarik ez da falta izan.



Esne Beltzak goraino bete zuen plaza; Solanok ikusleen artean abesten amaitu zuen.



Txurruka zuzendariaren batutarekin, Gonzalez Chirlaquerekin.



Hamabi bikotetatik, Pertxa elkarteoena bakailaorik onena.

Bergara Hiria, Albizurrera, Abadiñora eta Igantzira aurten

Astelehenean jokaturako finaletan espero baino lehia txikiagoa izan zen; urtero moduan, sarrera ona frontoian

Jokin Bereziartua BERGARA

Pentekosteetako klasiko bat dira Bergara Hiria txapelketako finalak. Aurtengo txapelak Amurriora, Albizurrera eta Nafarroako Igantzi herrira joan dira, eta espero baino lehia txikiagoa izan da bi finaletan. Promes mailan Iker Larrazabal amurriarrak eta Mikel Etxebarria albizurtarrak Ander Murua arrasatearra eta Aritz Oliden oriotarra hartu zituzten mendean, 22-13. Bergarako elastikoarekin jokatu zuen Ander Murua arrasatearra izan zen aurtengo finaletan aritu zen debagoiendar bakarra.

Pilotari gaztea ez zegoen pozik finalean eta txapelketan egindako lanarekin: "Oso gaizki sartu gara partiduan eta atera diguten alde handiari ezin izan diogu aurre egin. Finalera iritsi arren ez naiz batere gustura geratu egindako txapelketarekin". Iker Larrazabal jaun eta jabe izan

zen Udal Pilotalekuko kantxan; hori horrela, antolatzaileei "pena apur bat" eman zien Muruak ez irabaztea. "Beti da garrantzitsua bertako batek irabaztea", esan zuen Bergara Kirol Elkarteko pilota saileko Julen Aranburuk.

Bere lekua afizionatuen mailan

Nagusietan, Igantziko (Nafarroa) Oihan Canabal eta Joseba Aldabe izan ziren nagusi Ataungo Iraitz Zubizarreta eta Zaldibiako Aitor Elizegiren aurrean (22-14). Indartsu hasia izan zen garaipenaren gakoa: "Abantaila polita hartu dugu hasieran; horren indartsu hasia izan da gakoa", uste du Canabalek.

Txapelketaren 24. edizioa izan da aurtengoa, afizionatu mailako "erreferenteetako bat" dena: "Positiboki baloratzen dugu pilotariak parte hartu nahi izatea eta urtero hurbildu ohi den jende kopurua", dio Aranburuk.

Bergara Hiria hockey txapelketa asteburuan, Labegarietan

Bergara Hiria hockey txapelketa iaz antolatu zen lehenengoz, Bergararen 750. urteurreneko ekitaldien barruan, eta aurten errepikatu egingo dute. Emakumezko hiru talde lehiatuko dira txapelketa irabazteko: Bilboko Metropolitano, Segoviako Cochinitos Voladores eta Bergarako Burdinola. Txapelketa hiru partidua goizean zehar

jokatuko dira, 09:00etan, 10:30etan eta 12:00etan. Gainera, 14:00etan eta 16:00etan, Rivabellosako Dragons taldeak Burdinolaren eta Cochinitos Voladores taldeen aurka neurtuko ditu indarrak, hurrenez hurren.

Domekan, 15:00etatik 20:00etara, hiruko hockey txapelketa irekiak jokatu dira Labegarietan bertan, maila guztietan: benjaminak, alebinak, infantilak eta nagusiak. Hockeya probatzeko gonbidapena egin dute Burdinola irristaketa klubekoek.

Alkate kargua hartuko du bihar Izaro Elorzak

Agintaldi berriko udalbatzaren eraketa ekitaldia egingo dute bihar eguerdian osoko bilkuren aretoan eta udal ordezkari karguaren zina egingo dute aukeratuak izan diren hamazazpi herritarrek. Biainek Elorzari pasako dio zumitzezko txibita

Oihana Elortza OÑATI

Eguerdian, 12:00etan, izango da, bihar, zapatua, 2019-2023 agintaldiko udalbatzaren eraketa ekitaldia. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan egingo da, herritarren aurrean.

Zehaztutako protokoloa

Ekitaldi horrek berezko protokoloa du eta hori jarraituko dute bihar ere udalbatza osatuko duten zinegotzi berriek.

Adinekoen Mahaia osatzea da lehen eginbeharra. Bixente Urrutia Elexpuru (Oñati, 1952) eta Iker Oñate Aiausti (Oñati, 1994) dira zinegotzi hautatuen artean zaharrena eta gazteena eta euren ardura izango da kargua hartuko duten zinegotzi guztien krentzialak hartu eta ondo daudden ziurtatzea. Segidan, zinegotzi berrien egiaztagiriak onartu behar dira: ondasun eta balioen ziurtagiriak, batetik, eta euren lanbidea edo ohiko jarduna zinegotzi izatearekin bateragarria dela ziurtatzen duen agiria, bestetik. Kargua hartzerakoan erantzun behar dioten galdera egingo die gero idazkariak zinegotzi berriei eta alderdi bakoitzaren zerrendaburuei Udalen ondasun txostena entregatuko die.

Bozketa izango da bigarren pausoa: alderdietako zerrendaburuen bozketa. Bozketa hori sekretua izan ohi da Oñatin, eta, ohiturari jarraituz, horrela egingo dute bihar ere. Txartelak banatuko dituzte eta alkategai bakoitzak izan dituen botoak zenbatuko dira gero. Bederatzi boto edo gehiago dituen hautagaia izango da hurrengo alkatea.

DEMOKRAZIA GARAIKO OÑATIKO SEIGARREN ALKATEA IZANGO DA IZARO ELORZA ARREGI



2015eko inbestidura egunean karguak hartu ondoren. GOIENA

Alkate berriaren izendapenarekin batera, zumitzezko txibita, zumitzarekin egindako borobilean lotutako makila fina, emango dio azken agintaldian alkate izan denak berriari. Bihar ez da sorpresa handirik egongo: gehiengo absolutua izanda, EH Bilduko zerrendaburua hautatuko dute alkate eta Mikel Biainek Izaro Elorzari emango dio herriko agintea adierazten duen txibita. Alkatez alkate pasatzen den aginte ikurra da zumitzezko uztai hori.

Ekitaldi jendetsua

Udaletxeko osoko bilkuren aretoan egingo da biharko ekitaldia, eta, ziurrenik, herritar asko joango da zuzenean ikustera. Ohikoa da zinegotzi berrien eta izandakoen senide eta lagunak osoko bilkuren aretoan egotea.

Egongo direnak, duda barik, zinegotzi kargua hartuko duten hamazazpi herritarrek izango dira. Udalbatza eratzekeo ekitaldian, aurrekoetan moduan, hitza hartuko dute alderdi bietako zerrendaburuek. Alkate izendatuko duten Izaro Elorzak, esaterako, herritarrei, etxekoei eta taldekideei eskerrak emanez hasiko du bere jarduna.

Demokrazia garaiko seigarren alkatea izango da Izaro Elorza Arregi. Elias Galdos Zubia, Anjel Iturbe Yarza, Andoni Gartzia Urtaza, Lourdes Idoiaga Urkia eta Mikel Biain Berraondo dira lehen bostak, hurrenez hurren.

Udalbatzaren eraketa

- 12:00etan da saioa, eta irekia izango da. Zinegotzien lagunak eta senideak joango dira.
- Bixente Urrutiak eta Iker Oñatek osatuko dute Adinekoen Mahaia.
- Alkatea aukeratzeko botoa sekretua izango da; txartel bidez egingo da, aurrekoetan moduan.
- Zumitzezko txibita pasako dio Mikel Biainek alkate berriari, Izaro Elorzari, herriko agintea adierazten duen ikurra.

Herriko Plan Orokorren aurrerapen faseari ekingo diote

Diagnosi fasearen emaitzak azaldu dituzte eta hurrengo fasea hasteko tailerra egingo dute martitzenean

O.E. OÑATI

Oñatiko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra egiten ari da udala joan den urtetik eta lehen fasea bukatuta, bigarrenarekin hasiko dira datorren astean.

Aurrerapen fasea da hasiko dutena, herrian beharrezkoak ikusten dituzten urbanizazioak edo zerbitzuak, adibidez, herriko mapan kokatzeko fasea. Gero ikusiko da planteamendu horiek posible diren edo ez. Tailerra kultura etxeko erakusketa gelan izango da, martitzenean, 18:00etan. Udal Plangintzako Aholku Kontseilua ez ezik, interesa duten gainontzeko herritarrek ere joan ahal dira tailer horretara.

Plan Orokorren idazketa taldeak egin duen diagnostiko fasearen emaitza eta herritarrekin landutako *Emozioen mapa* ariketaren emaitzak kale era-



Emaitzen erakusketa. O.E.

kusketa baten bidez azaldu dituzte aste honetan Kale Barrian jarri duten panel baten bitartez. Idazketa taldeko arkitekto arduraduna eta parte hartze prozesuaren dinamizatzaileak egon dira argibideak ematen ikustera joan diren herritarrei.

Postetxeko autobus geltokia tokiz aldatu dute, obregatik

Posta bulegoko autobus geltokiko zorua konpontzeko lanak egiten ari dira eta lanek irauten duten bitartean autobus geltokia metro batzuk aurrerago eraman dute: behin-behineko geltokia Cegasa aurrealdeko biribilgune parean dago. Obrek hamabost egun iraungo dutela aurreikusitako dute; beraz, hilaren 27ra arte erabili beharko da geltoki berria.



Obra postetxeko geltokian. O.E.

OHARRAK

Odol ateratzea gaur

Gaur, egubakoitza, egingo dute ekaineko odol ateratzea. Euskaldun Berria gelan izango da, 17:00etatik 19:00etara.

Araotzeko jaiak

Trinitate jaiak ospatuko dituzte Araotzen asteburuan. Gaur, Domeketarro taldeak joko du. Domeka goizean pilota partiduak egingo dira.

Azken deialdia da umeen danborrada antolatzekeo

Gutxienez, hamar edo hamabi laguneko lantaldea behar da haurren danborrada antolatzekeo, Udaleko Kultura Departamentuak adierazi duen moduan, eta epea zabaltea erabaki du: ekainaren 17a, astelehena, da azken eguna. Bigarren deialdi honen ondoren taldea osatzen ez bada, haurren danborrada bertan behera geratuko da.



Guardia Zibilak Oñatin duen kuartela. O.E.

Bi eskaera ditu biharko Jare Kuartela Egunak

Guardia Zibilari Oñatiko kuartela uzteko eta eraikin hori herritarren eskura gelditzeko, batetik, eta, bestetik, politikari eta erakundeei gai honetan "serio" inplika daitezen eskatuko dute bihar, festa itxura hartu duen herri ekimeneko aldarrikapen egunean

Oihana Elortza OÑATI

Guardia Zibila Oñatiko kuartelatik joateko eta eraikin hori uzteko eskaera egingo dute bihar, zapatua, Oñatin, jai giroan. Foruen plazan izango dira antolatutako ekitaldiak eguerditik iluntzera bitartean, eta gauean, zuzeneko musika emanaldiak egongo dira gaztetxean.

Aldarrikapena

Jare Kuartela herri ekimenak Guardia Zibilak Oñatin duen kuartela uztea aldarrikatu gura du, eta erakundeei, politikariei, eskatu gai honetan "serio" inplika daitezen. Duela hilabete sinadura bilteta jarri zuten martxan eskaera horrekin, eta biharko antolatu duten festan bukatuko da.

Foruen plaza izango da aldarrikapen tokia eta hantxe egingo dira Jare Kuartela Eguneko ekintza gehienak. Eguerdian, 12:00etan, ardo dastatzea egongo da herriko ardo ekoizle eta banatzaileen eskutik. Ardoarekin batera herriko gazta egile bik etxean egindako gazta eramango dute ardoarekin batera jate-

ko. Ondoren, argazki erraldoia aterako dute. Herriko hainbat sozietatek, gainera, pintxoak prestatuko dituzte: txanpiñoiak, haragi-bolak, okela tomatearekin eta paella, adibidez. Aurretik, Jare Kuartela herri ekimenarekin eta bere eskaerarekin bat egiten dutenen "talde argazki erraldoia" atera gura dute, eta herritarrei dei egin diete 13:30erako plazara gerturatuzeko. Arratsaldean, jolasak eta kale animazioa egongo dira plaza inguru-

ruan eta gauean, kontzertuak gaztetxean.

Politikariekin bilerak

Maiatzean abiarazitako sinadura bilteta "martxa onean" doala adierazi dute Jare Kuartela ekimeneko kideek, eta sinadura horiek politikariei entregatuko dizkietela, bihar eguerdian aterako argazkiarekin batera. Datozen asteetan egingo dituzte bilerak herriko udal ordezkariarekin.

Zapatuko egitaraua

Foruen plaza izango da aldarrikapen tokia, eta hantxe dira ekitaldiak.

- **12:00** Ardo dastatzea. Ardoa ez ezik, herriko gazta ere egongo da.
- **13:30** Argazki erraldoia.
- **Ondoren** Herri sukalde. Herriko sozietateek lagunduta, errazioak salduko dira.
- **16:00** Jolasak.
- **19:00** Kale animazioa.
- **21:00** Festa gaztetxean. Joko duten taldeak dira: Gorpuzkingz eta Arrano Pertxa. Ondoren, herriko DJ jaialdia egongo da.

"Asko exijitzen diogu eskola kirolari, hezkuntzaren parte da"

IÑAKI ITURRIOTZ FORU ALDUNDIA

Eskola kirolaren garrantziaz egin du berba Oñatin

O.E. OÑATI

25 urte baino gehiago dira Foru Aldundiak eskola kirola sortu zuela. Oñatin hilaren 21a arte dago zabalik hurrengo ikasturterako izen ematea.

Zein helburu ditu eskola kirolak?

Asko exijitzen diogu. Ez da bakarrik pertsona osasuntsuak heztea edo gizarte mailan harremanak sortzea. Guretzat, heziketa da, hezkuntza munduko beste esparru bat. Gipuzkoan eredu propioa dugu eta ardatza ikastetxean kokatzen dugu. Izena ere horregatik du duena, lotura estua duelako eskolarekin.

Nola egituratzen da?

Sare aberatsa da. Araututa dago eta hortik abiatuta Aldundiak onartzen du programa bat eta tokian tokiko eragileek osatzen dute bertako programa, eta tokiko udalak, ikastetxeek eta elkarteek hartzen dute parte, baita gurasoek ere.

Interes kontrajarriak dituzte kirol elkarteek eta eskola kirolak?

Elkarteak aliatuak dira. Uste dugu hasierako adinetan garrantzi handia eman behar zaiola prozesuari, ikasteko unea da. Emaizaren pisua gerorako utzi behar dugula uste dugu. Elkar-



Iñaki Iturriotz, Goiena kanpoan. M.A.

te batzuek bat egiten dute ikuspegi horrekin, baina egia da federatuen munduan emaitzen pisua oraindik oso errotuta dagoela eta gure pedagogiarekin azaldu behar diegu umea 5 urterekin entrenatzen jartzeak ez gaituela inora eramaten.

Oraindik indarrean daude generoaren araberako rolak?

Bai. Ari dira aldatzen, baina oso errotuta daude. Adibidez, oraindik mutilek lehiaketarako joera handiagoa dute neskek baino. Jolas Hezi izeneko programa hori aldatzeko da, esaterako.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Maileguan hartutakoa erraz bueltatzeko



Liburutegiko erabiltzaile bat pozik agertu da, kutxa erraldoiak maileguan hartutako liburuak edozein unetan entregatzeko ematen duen erraztasunarekin. Zerbitzu ona dela dio.



Ganbara Faktoriak egindako liburuxkaren aurkezpena. TXOMIN MADINA

Industrializazioa ardatz, liburuan eta kontzertuetan

Liburuxkaren eta kontzertu ibiltarien oinarria Oñatiko industrializazioa izan da. Kultur etxean eta Turismo Bulegoan egongo dira eskuragarri liburuak, eta, lehen kontzertu ibiltaria eskaini badute ere, beste hiru ikusteko aukera egongo da, ekainean eta uztailean

Maialen Regueiro OÑATI

Ganbara Faktoriak asteon aurkeztu ditu, batetik, Oñati Ezagutzen proiektuaren bigarren edizioa, eta, bestetik, proiektu horren baitan sortu diren ekimenak. Oñati Ezagutzen proiektuaren helburua da herriko ondarea ezagutzea kultura eta hezkuntza bateratuz eta musika korala aprobetxatuz.

Liburuxkaren argitalpena

II. Oñati Ezagutzen proiektuaren baitan argitaratutako liburuan, *Industrializazioa Oñatin* gaia lantzen da; herriko industriaren bilakaera jasotzen da. Honen harira, Ganbara Abesbatzaren zuzendari Aitor Biainek honako hau adierazi du: "Gure industria tradizionalan olak, fanderiak eta teileriak izan dira nagusi, besteak beste, eta horien deskribapena egiten da datu batzuen laguntzaz". Guztira, herriko bederatzi enpresaren berri ematen da, bakoitzaren datu, argazki eta bitxikeriekin. Liburux-

Kontzertu ibiltariak

Lehen kontzertu ibiltaria eskaini zen maiatzaren 18an, Fagor Industrialeko *showroom*-ean. Kontzertu ibiltari guztiak doakoak izango dira.

Ekainaren 29a, zapatua

• 19:00 Ganbara Txiki eta Gazte, Cartonajes Arregin.

Ekainaren 30a, domeka

• 12:00 Ganbara Abesbatza, Stadler-en, 50. urteurrena ospatuz.

Uztailaren 6a, zapatua

• 19:00 Hots Abesbatza, ULMA Eraikuntzako *showroom*-ean.

karen 2.500 ale atera dituzte, eta, ikastetxeetan banatzeaz gain, kultur etxean eta Turismo Bulegoan ere egongo da, doan.

Kontzertu ibiltariak

Proiektu honen baitan, kontzertu ibiltariak antolatuta dira. Lehen kontzertua maiatzaren 18an izan zen eta, guztira, beste hiru emanaldi izango dira. Hala, talde bakoitzak herriko enpresa ezberdin batean eskainiko du kontzertua eta guztiak doakoak izango dira.

Kaptazio kanpaina

Bide batez, Ganbara Faktoriak abian jarri du hurrengo ikasturterako kaptazio kanpaina, *Sorgindu gaitzazu zure ahotsarekin* lelopean. Matrikula egiteko bi deialdi daude, lehena ekainaren 24tik 25era bitartean Ganbarako lokalean eta bigarrena, toki berean, irailaren 2tik 3ra bitartean. Ganbaratik adierazi dute, gainera, gizonezkoen ahotsak behar dituztela.



Galapote ikuskizuneko parte-hartzaileak. IRAZAN TALDEA

'Playback' ikuskizuna, Irazan antzerki taldeko gazteen eskutik

'Galapote' ikuskizuna ikusteko aukera izango da bihar, zapatua, 20:00etan hasita, gaztelekuan

M.R. OÑATI

Irazan antzerki taldeko gazteek *Galapote* izeneko ikuskizuna eskainiko egingo dute bihar, 20:00etan, gaztelekuan. *Playback*-ean oinarritutako gala dotore bat izango da, eta lehiaketa formatua izango du. Sarrerak bost eurotan daude salgai, Txokola-teixan.

'Playback' ikuskizuna

Playback lehiaketa baten finala irudikatuko dute gaztelekuko agertokian. Lehiaketa horretan hainbat taldek hartu dute parte, baina hiru dira finalera iritsi

direnak. Hala, bihar, gaztelekura gerturatzen direnek hiru talde horien emanaldia ikusteko aukera izango dute. Honen harira, Irazan taldeko kide Josu Zubiak honako hau adierazi du: "Imitazioari buruzko ikastaroa egin genuen, eta bertan ikasitako erakutsiko dugu. Gainera, ikusleek duten erantzunaren arabera sorpresak gerta daitezke biharko emanaldian".

Hurrengo ikasturtea

Zubiak azpimarratu du hurrengo urtera begira Irazan berrikuntzekin etorriko dela.

Zortzi selekzioren arteko eskubaloi festa, bihar, Zubikoan

Bihar jokatu da Corpusetako 13. eskubaloi txapelketa eta, guztira, zortzi selekziok hartuko dute parte: Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako emakumezkoak eta gizonezkoak.

Goizean, 09:30ean hasita, lau partidu jokatu dira, bi emakumezkoenak eta beste bi gizonezkoenak. Arratsaldean, berriz, 15:30etik aurrera, hirugarren eta laugarren postuetarako partiduak jokatu dira. Azkenik, 17:10ean, emakumezkoen finala jokatu da eta ordubetik geroago, gizonezkoena. Hala, sari banaketa 19:30ean izango da, kiroldegian, eta ondoren, parte-hartzaile guztiei ogitartekoak banatuko zaizkie.

Zabalik dago Torreauzoko krosetako izen-ematea

Torreauzoko krosa ekainaren 30ean izango da, 10:30ean hasita, eta izen-ematea zabalik dago dagoeneko. Egunean bertan Torreauzoko egongo da izena emateko aukera -taldeak izan ezik-, baina, aurrez, www.herrikrosa.eus, Aloña Mendi tabernan edota Mendizabal kirol dendan eman daiteke izena. Ibilbidea zazpi kilometro eta 500 metrokoa izango da.

Abixaran taldeak dagoeneko laugarrenez antolatuta du Torreauzoko krosa eta hasieran zehaztu zituen helburu eta asmoei eusten die: emakumeen eta taldeen partaidetza sustatu eta lasterketak zuen izaera herrikoari jarraipena ematea.



DEBAGOIENENKO UDALBATZEN OSAKETA

EKAINAREN 15EAN, ZAPATUAN,
HARTUKO DUTE KARGUA ALKATEEK ETA UDALBATZAK ERATUKO DIRA

GOIENAN JARRAIPEN BEREZIA:

GOIENA.EUS ATARIAN ETA SARE SOZIALETAN: UNEOROKO JARRAIPENA

SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN: 15:30EAN, 18:30EAN ETA 22:00ETAN

goiena

Zu hemen zaude.

"Gorriz janzteak ardura eta ilusioa ematen du"

IKER IRRIBARRIA ASPEKO PILOTARIA

PILOTA Joan den domekan Buruz Burukoan txapela jantzi eta 48 ordura, Bergaran neurria eman zuen Aramakoak, Bergarako jaiak agurtzeko pilota jaialdian

Xabier Urzelai BERGARA

Buruz Buruko txapeldunaren elastiko gorria Bergaran estreinatatu ahal izan zuen Iribarriak martitzenean, baina aurrean Altuna bikain ibili zen. Atzean, berriz, Zabaletak eta Rezustak maila ona erakutsi zuten.

Gaur galdu egin duzue Bergaran, baina partidu ona jokatu.

Zaila da domekan hartu genuen egurturen ondoren eta horrenbeste denboran tentsioa gorputzean izan ostean, gaur Bergarara etorri eta ondo jokatzea. Batez ere, partidu hasieran kosta egin zaigu ondo defendatzea, baina minutuak aurrera joan ahala guk ere min egin dugu, pilotari ondo eman diogu, eta horrekin geratzen naiz. Bestalde, frontoi honetan zaila da jokatzea Beñatek [Rezusta] gaur eman dion moduan ematen badio, eta Jokinek sasoiak dagoe-la erakusten badu.

Pilotalekua ia goraino bete da. Eta, kantzaratzean, txalo zaparrada jaso duzu. Asko esan gura du horrek.

Ez dut uste txaloak soilik niretzako izan direnik, baina bai, esker onez hartzen dira halakoak. Egia da, baita ere, Beñat bertakoa dela, eta harekin txapel bat irabazita daukadala. Horrek eragina izango du, seguru, bergarrek beti hartu izan naute-



Iker Iribarria, martitzenean, Bergaran. XABIER URZELAI

"BEÑATEK PILOTARI HORRELA EMATEN DIONEAN, ZAILA DA FRONTOI HONETAN JOKATZEA"

eta esku zabalik. Eta urte askoan izan dadila hori horrela. Kar, kar, kar.

Aramara bueltatu da elastiko gorria. Hasi zara lortu duzuna barneratzen?

Bueno, poliki-poliki joango gara barneratzen; akaso, gaur, orain-

dik goiz da horretarako. Batetik, ardura ematen du elastiko gorria janzteak, baina, bestetik, sekulako ilusioa ematen du; ea urte polita egiten dugun.

Amaitu dira txapelketa handiak, uda sasoiak dugu aurretik. Ze helburu duzu?


Helburu nagusia da uda ona egitea. Ea partidu batzuk irabazten ditugun, torneoren bat poltsikoratzen dugun... Baina, batez ere, txisparekin eta gorputzaldi onean amaitu nahiko nuke uda sasoiak, abendutik tentsioan egonda hilabete gogorak izaten dira eta.

Andoni Ugartek Oviedoko talde nagusira egin du salto

FUTBOLA Jokalari oñatiarra harrobiko talde Vetustako erreferenteetako bat izan da aurten atzeko lerroan

X.U. ARRASATE

Oviedo taldea hasi da 2019/2020 denboraldia prestatzen, eta, azken urteotako filosofiari jarraitzea emanez, harrobiko taldeko hainbat jokalariri talde nagusiko fitxa egingo diete. Kontua da, baina, orainoan zazpi jokalarik egingo dutela gora; tartean, Andoni Ugarte oñatiarrak.



Andoni Ugarte. REALOVIEDO.ES

Urtebete darama Oviedon

Realeko harrobiko jokalaririk urtebete egin du Oviedon, Bigarren B Mailan jokatzen Vetusta taldean, eta Oñatikoak protagonismoa izan du taldearen atzeko lerroan. Denboraldi ona egin dute; asturiarrek bosgarren postuan amaitu dute liga.

Orain, beste aurrerapauso bat emango du 24 urteko oñatiarrak, uztailaren 1etik aurrera lehenengo taldeko jokalaririk izatera pasako da-eta, beste sei taldeki-

derekin batera. Talde nagusia, Real Oviedo, zortzigarren postuan sailkatu da Bigarren A Mailan; hala, harrobiko jokalariek fitxa altuegia izango ez dutenez, klubak taldea indartzeko fitxaketaren bat edo beste egiteko tartea izango du.



BURDINOLA

Burdinola kopako txapeldun

Euskadiko Hockey Kopako finalean etxeko taldeek lan nabarmena egin zuten; alebinetan Burdinolak 7-9 irabazi zuen eta emakumezkoetan, 3-1. Bestalde, asteburuan, Bergara Hiria emakumezkoen txapelketa jokatuko dute. Bihar, 09:00etan hasita, sei partidu egongo dira Labegarietan, eta domeka arratsaldean, txapelketa irekia egingo dute.

800 lagun frontoiko harmailetan

Pentekoste jaiak agurtzeko, orain momentuan frontoian ikus daitekeen partidu erakargarrietakoa prestatu zuen Aspe enpresak jaiak agurtzeko. Pilotalekuko harmailetan 800 lagun batu ziren, eta gustura geratu ziren kantxan ikusitakoarekin, Rezustak, Altunak, Zabaletak eta Iribarriak, laurek, oso maila ona erakutsi zutelako.



Bergarako frontoiko harmailak goraino bete ziren profesionalen jaialdian. X.U.

Erlojupekoa Oñatin, Gipuzkoakoa hasteko

TXIRRINDULARITZA Gazte mailako 30. Gipuzkoako Itzulia hasiko dute hilaren 21ean eta aitzinetapa Oñatin jokatu dute, bi kilometro pasatxo izango dituen erlojupekoa. Olaberrian, Andoainen eta Lazkaon egingo dituzte hurrengo etapak

X. Urzelai / M. Regueiro OÑATI

Eguaztenean aurkeztu zuten hilaren 21ean Oñatin hasiko duten Gipuzkoako Itzulia. Bi kilometro pasatxoko erlojupekoa Txaketua taberna ondoan hasiko dute, eta, azken orduko al-daketarik ezean, helmuga plazan egongo da. Lehen txirrindularia 17:15ean irtengo da, eta minutu erdiko aldearekin irtengo dira, banan-banan.

150 ziklista inguru

Itzulian Gipuzkoako txirrindulari talde guztiek hartuko dute parte, baina baita Bizkaia zein Arabako taldeek ere. Hala, guztira 150 txirrindulari inguruk hartuko dute esku. Debagoieneko ordezkari gisa Aloña Mendi taldea arituko da, Unai Cueva, Ander Blazquez eta Aritz Torres ziklista oñatiarrekin eta Ander Uribesalgo txirrindulari bergarrarekin.

Ziklismo sailaren lanak, saria

Borja Moiuak, jarduneko Kirol zinegotziak, Aloña Mendi txirrindularitza saileko kideen lana eskertu zuen, horrelako ekintzak antolatzen laguntzeko hartzen duten lanagatik. Horrez gain, Federazioko zuzendari Eduardo Sotok oroigarri bat eman zion Kepa Umerezi.



Eduardo Soto, Borja Moiu eta Kepa Umerez. X.U.

San Antonio Saria, bihar

Bergarako San Antonio Sariaren 83. edizioa Gipuzkoako Banakako Erlojupeko Txapelketa izango da. Kadeteendako lasterketa izango da eta 90 ziklista inguru batuko dira irteera puntuan, San Antonio kalean (17:00, sei kilometroko ibilbidea).

Olakuako proba etzi

Oñatin jokatu dute, domekan, Olakuako probaren 33. edizioa. Kadeteek Gipuzkoako Txapelketa izango dute jokoan; Aloña Mendikoek 55 kilometroko lasterketa antolatu dute. Lasterketa 16:00etan hasiko dute eta 17:30ean amaituko da.

San Martzialera Igoera gaur

Lokatzak antolatuta, gaur, egubakoitza, egingo dute Bergara Hiriko San Martzialeko Emakumeen Txirrindularitza Saria. Euskaldun Torneoko hitzordua da, eta ziklistak 18:30ean hasiko dira, banan-banan, erlojupekoari aurre egingen. Kadete, junior, 23 urtez azpiko eta elite mailetakoa egongo dira. 1,5 kilometroko igoerari egingo diote aurre.



San Martzialgo igoerako podiurako erretratua. GOIENA


Ibarreko atletak, aire libreko hitzorduetan buru-belarri

ATLETISMOA Sorian, Zaragozan, Madrilen eta Huescan dituzte hitzorduak, denak Espainiako Txapelketetan

X.U. ARRASATE


Espainiako klubetako txapelketak jokatu dituzte aste-buruan, maila ezberdinetan. Sorian Realeko atletak lehiatu dira, beste zazpi klubekin batera, eta hor Eneko Carrascalek salto hirukoitza egingo du, Istar Dapenak pertika-saltoa eta Ibai Fernandezek 100 metroko lasterketa eta 4x100koa. Aste barruan, euretako batzuk Mojategin egon dira parte-hartze libreko probak egingen. Carrascalek 15,30eko marka egin zuen eta Uribarrenek, 14,96koa.

Zaragozan Espainia mailako zortzi talde izango dira lehian, eta Atletico San Sebastian taldearekin lehiatuko da Maialen Axpe, pertika-saltoan. Madrilen, berriz, Ohorezko Ligara igotzeko txapelketa egingo dute, eta Malen Ruiz de Azuak Super Amara taldea ordezkatu du,



Istar Dapena. GOIENA

baina pertika beharrezko salto hirukoitza egingo du. Huescan, azkenik, Ohorezko Ligara igotzeko borrokan Super Amara taldea ordezkatzeko ibiliko da Aitor Uranga. 100 metroko lasterketa eta 4x100eko erreleboetakoa egingo ditu.



Korrikalaria plazan. GOIENA

ESKALADA Linazisorok 23. postuan amaitu du Munduko Kopa

AEBetan (Vail-en, Colorado) jokatu dute Munduko Eskalada Kopa, eta bloke modalitatean Mikel Linazisoro bergararra 23. postuan sailkatu da. 100 eskalatazile batu ziren txapelketan, eta Bergarakoak gertu izan zuen lehen kanporaketa gainditu eta finalerdietara sailkatzea. Bi blokeak ondo gainditu eta gero, hirugarrenak ihes egin zion.

MENDI LASTERKETA Gabez Takarraran egingo dute Eskoriatzan bihar

Ohi baino ordubete lehenago hasiko dute zapatuan Eskoriatzako Gabez Takarraran lasterketa. Ibilbidea oinez egiteko 21 lagunek eman dute izena, eta horietatik 20:00etan abiatuko dira. Mendi lasterketa modalitatean, berriz, 40 lagunek eman dute izena eta horietatik 22:00etan hasiko dute proba, beste urte batzuetan baino ordubete lehenago, alegia.

MENDI LASTERKETAK Axi Alonso eta Iñigo Alzola, Granadara

Etzi jokatu dute, Granadan, Espainiako Kopako bosgarren proba, La Puebla de Don Fadrique herrian. La Sagra Skyrace probak 27,5 kilometro ditu, eta 2.060 metroko desnibela. Euskal Selektzioaren deialdian daude Iñigo Alzola arrasatearra eta Axier Alonso oñatiarra. Asier Larruzeta eta Oier Ariznabarreta dira beste bi aukeratuak.



El último fotograma idatzi duten Koldo Anagasti eta John Andueza, erdian, Isa Gonzalez eta Joseba Paulorena editoreekin. M. P.

Debagoieneko idazleen lan berriak irakurgai

Labetik atera berri diren askotariko liburuak daude aukeran; helduentzako eleberriak eta gazteleraz idatzitakoak dira gehienak, eta udazkenean, ibarrean sortutako beste hainbat lan argitaratuko dira, erakundeek lagundutako euskarazko kontakizun berriak

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE John Andueza arrasatearrak eskarmentua du idazle moduan; zazpigarren liburu aurkeztu du Bilbon asteen, *El último fotograma*; oraingoan, Koldo Anasagastirekin elkarlanean eta gazteleraz idatzita. "Aspaldiko laguna dut Koldo. Ikus-entzunezkoetan ibilbide luzea du, Euskal Telebistaren hastapene-

tan zuzendaria, 90ko hamarkadan Donostia Zinemaldiko zuzendaria, eta geroago ekoiztetxe askotan ibilitakoa. Orain dela hiruzpalau urte, liburu baterako landutako argumentu batekin etorri zitzaidan; istorioarekin maitemindu, eta elkarrekin idaztea proposatu nion".

Bakoitzak bere ekarpenak eginda, lau eskutara idatzita

dagoela dio Anduezak: "Hasierrako txinparta, istorio eta bizi-penak ekarri ditu, bereziki, Koldok, eta idazten pisurik handiena nik hartu dut; hala ere, kapitulu bakoitza hasi aurretik eta bukatutakoan, berba asko egiten genuen dena adosteko. Analista itzela da, pertsonaien nortasunak eta elkarrizketak oso ondo definitzen ditu".

Errealitatea eta fikzioa, batuta 1991ko Donostia Zinemaldian kokatutako misteriozko istorioa da, eta Denis kazetaria da protagonista. "Garai batean idatzitako kronika batzuk aurkitzen ditu, eta horietan, urte hartako Zinemaldian gertatutako hainbat pasarteren berri jakingo du. Hortik tiraka, ezkutatutako hainbat sekretu aurkituko ditu".

Fikziozko istorio bat dela dio, errealitatetik asko duela gaineratuta. "Oinarrian errealitatea da, 1991ko Zinemaldian egon ziren aktoreak, zuzendariak eta bestelakoak agertzen dira, eta baita hainbat gertaera ere; eta hortik abiatuta, hori guztia, marko moduan erabilia, garatzen da fikzioko istorioa. Gure helburua irakurleari jolas bat proposatzea izan da".

Bilboko Ediciones Civicas argitaletxearekin atera dute liburua; izan ere, urtean behin egiten duten deialdira aurkeztu zuten Anduezak eta Anasagastik lana, eta aukeratu egin zuten. Martitzena ezker, liburu-dendetan eta Edicionescivicas.org atarian eskura daiteke.

Eusko Jaurlaritzaren bekarekin Euskarazko literatura lanak sustatzeko helburuarekin, Kultura Sailak hainbat dirulaguntza ditu. Urtero deialdi bat egiten dute eta hamar beka ematen dituzte. Bi modalitate daude, eta bakoitzerako bosna beka: edozein publikori zuzendutako eleberri laburrak idazteko, batetik, eta gazte literatura idazteko, besteak.

Iazko deialdian lortu zuen Anduezak gazteentzako literaturako dirulaguntzetako bat, eta, bultzada horrekin, datorren udazkenean kalean izango du *Magali ez dago bakarrik*. "Aurkezteko baldintza berezirik ez

dago, edonor aurkez daiteke. Diruz laguntzen dena idaztea da; hortaz, bederlatzi hilabete dituzu liburua idazteko –gutxieneko neurri eta bestelako ezaguarriak; esaterako, aurkeztutako ideia edo istoriori fidela izanda–, eta hor bukatzen da Kultura Sailarekin duzun harremana. Argitaratzea idazlearen kontura doa. Aurrez ere eurekin lan egindakoa naizenez, Elkarrekin egin nuen berba, eta baiezkua eman zidaten; Taupada bilduman argitaratuko dute".

Elgetan eta Bergaran kokatutako istorioa kontatzen du *Magali ez dago bakarrik* liburuan: "Protagonistak 17 urte inguruko gazteak dira, eta, egia esan, istorio gogorra da, gazteen arteko eraso, jazarpen eta biolentziari buruzkoa".

Porcel eta Urzelai, bide beretik Aurtengo deialdia aurreratu egin dute, udaberrian egin dute eta dagoeneko eman dituzte sarrituen izenak ere; horien artean Debagoieneko bi daude: Marian Porcel arrasatearra eta Andoni Urzelai aretxabaletarra.

Urzelai lehenengo aldiz aurkeztu da, eta eleberri laburren atalerako lortu du, *Ametzen fabrikatzailea* lana idazteko: "Psikiatra bat du protagonista nobelak; psikiatra maltzur eta handiuste bat, zeinek boterea bildu eta ingurukoak kontrolatzea duen helburu. Narrazio linealeko kontakizuna barik, kapitulu laburretan dago egituratua, bakoitza ia-ia ipuin labur gisara eraikia, poliki-poliki osatzen doan puzzle bateko piezak bezala".

Datorren urteko udazkeneako bukatu beharko du, eta ahalginduko dela argitaratzen dio; hori eginez gero, bosgarrena

NOR BAINO NOR

GOIENA TELEBISTA

EKAINAREN 20AN, EGUENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

ARETXABALETA HERRIA PROTAGONISTA

HUHEZIKO IKASLEEK EKOIZTUTAKO ENTRETENIMENDU SAIO

goiena
Zu hemen zaude.



litzateke; aurrez, *Haginkada*, *Zirkulua*, *Karanbola Toxikoak* eta, gaztelera, *Demencia* argitaratu ditu.

Aurkezten den bigarren deialdia da, berriz, Marian Porcelendako, eta gazteendako istorio berri bat proposatu du oraingoan: "Aldaketa klimatikoaren gaia gazteen artean puri-purian dago eta niri ere asko interesatzen zait; hortaz, horren bueltan sortutako istorioa da. 16 urteko neska eta 17 urteko mutila dira protagonistak; neskan ingurumen arloan aktibista borrokalaria da, eta mutila, berriz, bere munduan bizi den pasota bat. Elkar ezagutuko dute, lagun egingo dira, eta, ingurumenarekiko kezka biena bihurtuko denez, zerbait handia egiten saiatuko dira..."

Datorren urteko udazkenerako idatzi beharko du Porcelek ere lana eta argitaratu saiatuko dela dio; bere bigarren izango da, aurretik, gaztelera, *Todo saldrá bien* idatzi zuen.

Dirulaguntzak jaso aurretik ere idazten zuten arren, Kultura Sailak edo bestelako erakundeek ematen dituzten laguntzak

EUSKO JAURLARITZAK EUSKAL LITERATURA LANAK SUSTATZEKO LAGUNTZAK DITU

JOHN ANDUEZAK ETA ENEKO BARBERENAK IDATZITAKO AZKENAK, UDAZKENERAKO

PORCELEK ETA URZELAIAK KULTURA SAILAREN BEKA JASO BERRI DUTE

asko eskertzen dituztela diote Anduezak, Porcelek eta Urzelaik: "Bakarka eta denbora luzez lanean ibiltzen gara idazleak eta horrelako laguntzek bultzada ekonomiko bat ematen dizute, eta asko eskertzen da".

Agustin Zubikarai beka

Udalek bultzatutako hainbat beka ere badira: Baztango Udalak eta Txalaparta argitaletxeak, (*H)Ilbeltza* izenekoa eskaintzen dute urtero, eta Ondarroako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Agustin Zubikarai izenekoa.

Eneko Barberena arrasatearrak jaso zuen iaz Agustin Zubikarai saria, eta udazkenean argitaratu du, *Afrikaners* helduentzako eleberria. "Hamar bat urte barruko Arrasaten kokatuta dago, eta ditudan hipotesi batzuen arabera irudikatu dut. Hainbat gai jorratzen ditut, horien artean, etorkinen gaia, eta funtzionario batek duen konfliktu pertsonala ustelkeriaren aurrean".

Laugarren liburua izango da hori, aurrez, *Igogailuak*, *Dow Jones eta beste droga batzuk*, *Lurrinak ez du kristalik estali* eta *Martin Larraide* idatzi ditu.

Autoekoiztutako liburuak ere bai

Josune Murgoitio arrasatearrak, *Colores prohibidos* eleberriaren ostean, *Viaje Turquí. Mujeres en Marmaria, Estambul y Diyarbakir* izeneko bidaia liburua argitaratu berri du. "Turkiako hainbat tokitan, bakarrik, egin nuen ibilbidea kontatzen dut; ez da, baina, bisitatzea merezi duten tokien zerrenda edo azalpen hutsa bakarrik; izan ere, eremu batetik bestera emakumearen egoera zelan aldatzen den ere jaso dut. *Amazon-en* eta *Arrasateko Iturri tabernan* eta *Arana Ezkurra* estankotan eros daiteke".

Konstelazio familiarrei buruz Astean aurkeztu du Sara Vitoria psikologo arrasatearrak *No entiendo a mamá* liburua. Aurkezpenean kontatu zuen ipuinaz gainera, konstelazio familiarrei buruzko azalpenak jasotzen ditu. Liburua erosteko: Whatsappez (658 72 09 87), noentiendoamama@gmail.com helbidera idatzita, Goxo Goxuan eta Belar fisioterapia zentroan.



Josune Murgoitio arrasatearra. J.M.

David Agirrek, bigarrena Udaberriean kaleratu du David Agirre aretxabaletarrak *Camina despacio, muy despacio* liburua; haren bigarren lana da. Orain dela hiru urte, *Triángulos en la cueva* argitaratu zuen. Lan berriari hainbat gai landu dituela kontatu du idazleak:

"Harrokeria, apaltasuna, diru-gosea eta politika, besteak beste", eta zera gaineratu du: "Liburua irakurtzeak ibilbide bat egitea dakar, eta, horren bidez, irakurlearen jakin-mina piztuko duen ikuspuntua aurkituko du". Herriko dendetan eros daiteke.

Ilustratutakoak ere, aukeran

Usoa Mendikute Bergarako ilustratzaileak Sardiniako Cinzia Tuveri idazlearekin elkarlanean aurrez italiaraz argitaratu zuen *Vera Mongolfiera* haurrentzako liburua gaztelerazko bertsioa –*Vera la soñadora*– aurkeztu zuen Bergaran apirilean; Babidibulibros.com atarian eskura daiteke.

Helduentzako ilustratutako liburuak gustuko izanez gero, MUko irakasle Monika Madinabeitiak idatzi duen eta lankide dituen Yera Sanchezen eta Maitane Pueblaren irudiekin osatu duen *Petra, my Basque Grandmother* ingelesezko proposamen bitxia ere hor dago.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko ekaineko sariak!



Arrasateko Trikitixa Eskolako CDa

Parte hartzeko sariaren izena: Trikitixa



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.farmaciaandorra.org

PARTE HARTZEKO: MAIATZAREN 30ERA ARTE

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Informazio gehiago: LPO 15/1997 legearen arabera, jabearen izena eta datu pertsonal bakoitzaren izena, helbidea, telefono zenbakia, eta beste informazioa, horien artean, datu pertsonal gisa tratatzen dira. Gure helburua informazioa zure datu pertsonalarekin partekatuzea da. Eskubidea zure datu pertsonalaren erabilera kontrolatzeko eta berriz gure datuak erabiltzeko. kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

MAIALDE JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jate txokoa

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.




Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu orain 2019rako
56€ ordainduta
Deitu: 943 25 05 05
kluba@goiena.eus


goienakluba
Euskara irabazte, denok irabazte!

ESKER ONA



Antonio Zuazua Urrutia


2019ko ekainaren 9an hil zen, 91 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


Aretxabaletan, 2019ko ekainaren 14an.

ESKER ONA



Rita Gallastegi Arregi

Felix Garairen alarguna
2019ko ekainaren 10ean hil zen, 89 urte zituela.



Emakume paregabea izan zara. Ibilbide luze eta oparoa izan duzu. Zugandik jasotakoa guretzat helduleku. Eskerrik asko eman diguzun guztiagatik. Gure artean dirazuz bizirik eta eredu.

Eskerrik asko Ritari agur esateko orduan, mila modutan, zuen berotasuna eskaini diguzuen guztioi. Arrasateko Egoitzako langileei eskerrak eman nahi dizkizuegu gure senideari eskainitako arreta eta maitasunagatik.


Etxekoak.
Arrasaten, 2019ko ekainaren 14an.

ESKER ONA



Angel Moyua Igartua

(Zuazola baserria)
2019ko ekainaren 7an hil zen, 87 urte zituela.



Eskerrik asko, etxekoan izenean, egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.


Ondretako meza zapatuan izango da, ekainaren 15ean, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2019ko ekainaren 14an.


OROIGARRIA

Antonio Zuazua Urrutia

Juxe Zuazua lankidearen aita
2019ko ekainaren 9an hil zen, 91 urte zituela.



Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Pausokako familia.
Aretxabaletan, 2019ko ekainaren 14an.

OROIGARRIA



Rita Gallastegi Arregi

1930-05-08 / 2019-06-10



*Intxaustiko azken lorea
Lur emankorra izan zara
Aurrekoamantalean bildu gaituzu
Orain gu lurra gara, loratu gara.
Eskerrik asko, amama!*

Zure urrebotoitxuek: Garazi, Ainhoa, Nerea, Jon, Ekain, Ainara, Oihan, Ania, Jone, Igor, Mikel, Maia, Xabi, Andoni eta Oxel.

Arrasaten, 2019ko ekainaren 14an.

OROIGARRIA



Oscar Blanco Mezquita

'Zamorano'
2019ko ekainaren 7an hil zen, 36 urte zituela.



*Goizegi joan zinen gure ondotik,
hutsune handia utzita.
Oscar, beti egongo zara gure bihotzean,
beti irribarre batekin gure aldamenean.*


Zure lagunak.
Aretxabaletan, 2019ko ekainaren 14an.

URTEURRENA



Eugenia Uncilla Araña

Esteban Garitano Elcoroiriberen alarguna
2018ko ekainaren 15ean hil zen, 85 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 16an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Urtea azkar joan da eta zutaz oroitzean alaitsu. Makina bat lan egin ostean balorez beteta joan zinen ze.

Orain zutaz ahaztu gabe guri tokatzen zaigu testigoa hartuz, bizitza zu izan zinen berdintsu.

Betira arte, amama maitea.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2019ko ekainaren 14an.

URTEURRENA



Conchita Egaña Arocena

2018ko ekainaren 21ean hil zen, 95 urte zituela.




Urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 16an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Beti pozez eta umore onez bizi izan zinen eta horrek zuk utzitako hutsunea arintzen laguntzen digu.

Zure familia.


Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2019ko ekainaren 14an.

URTEURRENA



Eugenio Zubia Iñurrategi

2018ko ekainaren 15ean hil zen, 88 urte zituela.



Hutsune nabaria utzi diguzu, zure oroimenak indartzen gaitu, gure bihotzetan betirako.

Urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 16a, 11:30ean, Aretxabaletako Jasokundeko Amaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Aretxabaletan, 2019ko ekainaren 14an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 14	SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Zapatua, 15	ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Domeka, 16	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Astelehena, 17	ETXEBERRIA: Zaruvalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Martitzena, 18	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Eguaztena, 20	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Eguena, 21	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 14	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 15	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Domeka, 16	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Astelehena, 17	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 18	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 1
Eguaztena, 19	URRITIKOETXEA: Orivondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 20	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 8
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 14	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 15	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 16	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 17	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 18	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztena, 19	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 20	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNEZ	
(22:00etatik 09:00etara)	2019ko abuztuaren 30era arte:
ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65	

BERGARA GAUEZ EGUNEZ	
(22:00etatik 09:00etara)	2019 osoan:
OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 19 63	

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: CDF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskela@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguru izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4



5



6

1. Zortzigarren mailako oroitzapenak

Ikastolan zortzigarren maila elkarrekin egindako arrasatearrak elkartu ziren egindako arrasatearrak elkartu ziren bazkaltzeko. Kopuruz talde txikia, baina oroitzapen handiak partekatzeke.

2. Kurtzebarrira, Cresporen omenez

Lagunartean eta kontu-kontari joan ziren 70 lagun tontorrera. Eta guztiek, gogoan, Mikel Crespo Zuazua; hark gehien maite zuena egin gura izan zuten Bizir Eguna hasteko.

3. 50. urteurrena ospatzen

Arrasateko Amelutarrak urtero bezala elkartu ziren aurreko domekan. Aurtengo bazkaria berezia izan zen: 50. urteurrena ospatu zuten. Ederto pasa zuten.

4. Elkatrueko bazkaria

Aretxabaletako Urbaltz elkarteak Kataluniako Montferri herriarekin egiten diharduen elkatrueak 130 lagun batu zituen mahaiaren bueltan, aurreko zapatuan.

5. Azkenpote, Toloñon

Hirugarren urtez, Toloño mendi tontorrean izan ziren Azkenpote kuadrillako hainbat lagun, zapatuan. Hamaiketakoia San Ginesen egin zuten eta bazkaria, berriz, Bastidan.

6. Goiena ezagutzen

Oñatiko Txantxiku Ikastolako DBHko ikasleak erredakzioa, irratia eta telebista ezagutzen egon ziren. Kazetaritzari buruzko proiektu bat lantzen dihardute.

7. Gaur, egubakoitza, ezkonduko dira

Larraitzek eta Aitorrek bihar ospatuko dute senideekin. "Sekula ez da berandu maitasunaren bueltan elkartzeko. Musu bana familia guztiaren partetik".

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



7

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak


Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



OÑATI
Irene eta Iñaki Aranburu
Irenek ekainaren 9an, 10 urte eta aitak 19an, urtebetetzea. Zorixonak eta mosu handi-handi bat gure etxeko aitxa-alabari.



ARRASATE
Pello Alzola
Ekainaren 16an, 5 urte. Zorionak, Pello! Zelako handixa in zaren! Ondo-ondo pasatu, danon partetik!



ESKORIATZA
Unai Arana Romero
Ekainaren 16an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Dagoeneko 10 urteko bete dituzu! Ondo-ondo ospatu zure eguna lagunekin eta familiakoekin. Asko maite zaitugu!



ARETXABALETA
Elene Otxandategi Lasagabaster
Ekainaren 15ean, 3 urte. Zorionak, Elene! Ederto pasatu zure eguna! Besarkada potolo bat eta patxo pilo bat, danon partetik!!




ARRASATE
Luken Horrillo Tierno
Ekainaren 15ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat denon partetik!



ARAMAIO
Haizea Berasaluce Eriz
Ekainaren 14an, 2 urte. Zorionak, maitte! Zu zara gure bizipoza! Mila muxu danon partetik! Segi zaren bezain zoriontsu izaten! Ondo pasatu zure egune, bihotz!



OÑATI
Julen Sagastume Barrena
Ekainaren 14an, 7 urte. Zorionak, Julen! Zazpi urte! Ondo-ondo pasatu eta muxu handi bat, danon partetik! Mua!



ARETXABALETA
Enara Lete Mengibar
Ekainaren 14an, 2 urte. Zorionak, sorgina... Oso azkar ari zera hazten. Muxu potolo pila bat, maite zauen denon partetik.



ARRASATE
June Barandiaran Garai
Ekainaren 13an, 9 urte. Zorionak, bihotza! Jadanik bederatzi urte betetzen dituzu! Urtebetetze egun zoragarria izatea espero dugu. Eta ez galdu inoiz daukazun bizi poz hori! Asko maite zaitugu! Muxu eta besarkada handi bat, etxeko guztion partetik.




ARRASATE
Aimar Torres Valdes
Ekainaren 12an, 10 urte. Zorionak, lazтана! Egun ederra pasatu eta asko gozatu. Gurasoen, anaiaren, Mikel eta Vanessa izeba-osaben eta lehenagusu Hugoren partetik. Maite zaitugu!



ARETXABALETA
Aner Maskarano
Ekainak 12an, 5 urte. Zorionak, mutiko handi. Jada bost urte! Disfrutatu zure eguna. Maite zaitugu: aita, ama eta bereziki, Izaro.



ARRASATE
Janitz Moreno Rozas
Ekainaren 11n, 4 urte. Zorionak, pitufito! Ondo pasatu zure egunian. Patxo potolo bat Garaziren, aita txoren, amaxoren eta familixako danon partetik.



ARETXABALETA
Txaro Arenaza eta Alaia Leiba
Ekainaren 10ean, 4 urte. Zorionak, tia Txaro eta Alaia! Ondo-ondo pasatu zuen egune eta patxo potolo bat, etxeko danon partetik!



ESKORIATZA
Lur Arana Atxaga
Ekainaren 7an, 40 urte. Zorionak, aitatxo! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta milaka patxo, Unairen eta Beñaten partetik. Maite zaitugu!

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 14

OÑATI Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikora bisita

10:30ean, gazteleraz eta 12:00etan, euskaraz.
Artxiboan.

ARAMAIO Eskolako ikasleak eta irakasleak eta Alaiak abesbatza Emanaldi irekia.

Bizente Goikoetxea plazan, 11:30ean.

ELGETA Ikasturte amaierako jaialdia

Ipuin kontaketak, antzerkia, askotariko txokoak eta tailerra...
Herri Eskolan, 14:45ean.

BERGARA Bergara Hiria emakumezkoen txirringularitza txapelketa

San Martzialera igoera egingo dute.
San Martin plazan, 16:00etan.

OÑATI Odol ateratzea

Ekaineko deialdia.
Euskaldun Berria gelan, 17:00etan.

ELGETA Panpina egiteko tailerra

Sanjuanetarako panpina egiteko.
Gaztelekuan, 17:00etan.

OÑATI Txokolate-jana eta dantzaldia

Erretiratuendako.
Pake Lekun, 17:30ean.

ARRASATE Hezkuntza Bereziko ikasleen emanaldia

Arrasate Musikalen eskutik.
Arrasate Musikalen, 18:00etan.

ELGETA Beheko kaleko jaiak

18:00etan, buruhandiak eta tonbola; 18:30ean, Amaia DJ; 21:00etan, afari-merienda; eta 23:00etan, Gauargi taldea.
Torrealedea auzoan.

BERGARA Gimnasia erritmikoko erakustaldia

Ikasturte amaierako ekitaldia.
Labegaraietan, 18:30ean.

ARRASATE 'Ballet' ikuskizuna

Arrasate Musikaleko ikasleen ikasturte bukaerako emanaldia.
Amaia antzokian, 19:00etan.

ARETXABALETA Leizarra musika eskolako banda

Kontzertua egingo du.
Santa Rita lorategian, 19:00etan.

OÑATI Araotzeko jaiak

19:30ean, Domekatarrak taldearen kontzertua, elizan.
Araotzen.

ESKORIATZA Zeru behaketa

20:00etan, azalpenak Zaldibarren; 21:30ean, teleskopioak erabiltzeko aukera Elorretan; eta 22:30ean, zeruaren behaketa.
Eskoriatzan.

ARAMAIO Rule Of Trees taldea

Musika Festibalaren baitan.
Sastiñan, 20:00etan.

OÑATI Tilikum eta Krisis taldeak

Oñatiko eta Aretxabaletako taldeak.
Pako tabernan, 21:00etan.

BERGARA 'Dantzaz beteriko gaua' emanaldia

Bergarako Musika eta Dantza Eskolako saioa.
San Martin plazan, 22:00etan.

BERGARA Sermond's eta Turboshit taldeak

Egubakoitzak berreskuratzen egitasmoa. Sarrerak, bost euro.
Kartzela zaharrear, 22:30ean.

ZAPATUA 15

ANTZUOLA Aralarra irteera

Arrolako eskutik.
Herriko plazan, 08:30ean.

BERGARA Bergara Hiria emakumezkoen hockey txapelketa

Burdinola, Metropolitano, Cochinitos Voladores eta Dragon taldeak.
Labegaraietan, 09:00etan.

OÑATI Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikora bisita

10:30ean, gazteleraz eta 12:00etan, euskaraz.
Artxiboan.

OÑATI Arte tailerra umeendako

Txikitxu-Arrostaitzen lokalean.
Zerrajerako eraikinean, 11:00etan.

ARRASATE Danborradako kantineren entsegua

Eulate, argi handi bat! delako tailerra, 6-12 urte artekoendako.
Gandiaga Topagunean, 10:30ean

OÑATI 'Jare Kuartela' eguna

12:00etan, ardo dastatzea; 13:30ean, argazkia; 16:00etan, jolasak; 19:00etan, kale animazioa; eta 21:00etan, Gorpuzkingz, Arrano Pertxa eta Herriko DJ Party.
Oñatin.

OÑATI Araotzeko jaiak

13:00etan, meza; 14:00etan, bazkaria; 17:00etan, umeendako jolasak; 18:00etan, txokolate-jana; 20:00etan, bolo txapelketa; eta 21:00etan, afaria.
Araotzen.

OÑATI Oñatiko III. abentura 'raid'-a

Lehenengo jardunaldia, 15:00etatik 23:00etara.
Foruen plazan.

OÑATI 'Ezusteak' erakusketa

Orbelaun taldeko kideen lanak ikusgai: Angel Mari Milikua, Imanol Artola, Iñaki Jauregiartzo eta Esteban Kerexeta. Ikusgai egongo da urriaren 15era arte.
Turismo Bulegoan, 15:30ean.

BERGARA San Antonio txirringularitza lasterketa

Gipuzkoako banakako erlojupeko txapelketa.
San Antonion, 17:00etan.

OÑATI Swing dantza saioa

Herriko plazan (19:00), Atzeko kaleko plazatxoan (20:00) eta San Anton plazan (22:00) egingo dituzte.
Oñatin, 19:00etan.

ARRASATE Haurren danborrada

Biteri-Zerkaosteta-Garibai-Maalako Errebala-Erdiko kalea-Herriko Plaza ibilaldia egingo dute.
Biterin, 19:00etan.

ESKORIATZA Gabez Takarraren eta oinezko martxa

Oinezkoa 20:00etan hasiko da eta korrikakoa, 22:00etan. Gazteen lasterketak bederatzi kilometro ditu eta besteak, 23.
Fernando Eskoriatza plazan.



IMANOL SORIANO

ARRASATE Txorbela Otxotearen kontzertua

Taldeko zuzendari berri Xabier Barriolaren aurkezpen kontzertua izango da. Era berean, Mikel Arregiri eskerrak emateko emanaldia ere izango da. Hamar urteren ostean, lekukoa emango dio Arregik Barriolari.
Bihar, zapatua, San Frantzisko elizan, 19:30ean.

OÑATI 'GalapoTe' ikuskizuna

Irazan taldeko emanaldia.
Sarrerak, bost euro.
Gaztelekuan, 20:00etan.

DOMEKA 16

OÑATI Mendi irteera

Ultzama-Imotz haranean egingo dute hamalau kilometroko ibilaldia Aloña Mendikoek.
Postetxeko geltokian, 07:00etan.

OÑATI Oñatiko III. abentura 'raid'-a

Bigarren jardunaldia egingo dute, 08:00etatik 13:00etara.
Foruen plazan.

ARRASATE Haur Dantzarien Eguna

Zaldibar pilotalekuan batuko dira dantzariak, eta kalejira egingo dute erdiguneko kaleetan. 17:15ean, alardea egingo dute Herriko Plazan.
Zaldibarren, 10:00etan.

OÑATI Araotzeko jaiak

10:30ean, meza; 11:00etan, luntxa eta pilota partiduak; 12:30ean, herri kirolak; eta 13:00etan, Irati Barrena eta Maddi Guridi musikarien emanaldia.
Araotzen.

ARAMAIO 'Aramaio ezagutu: Erdi Arora bidaia' ibilaldia

Ibarra-Azkoaga-Barajuen-Ibarra ibilaldia egingo dute, Amillena taldeko kideekin. Helduendako.
Santa Ana ermitan, 10:30ean.

BERGARA 'Baroja Collet' erakusketa

Gaur da azken eguna.
Aroztegin, 12:00etan.

OÑATI 33. Olakua Saria

Kadete mailako Gipuzkoako txapelketa.
Olakuan, 16:00etan.

ASTELEHENA 17

OÑATI Haurren danborrada: antolaketa izen-ematea

Gaur da izena emateko azken eguna. Taldea osatzen ez bada, haurren danborrada bertan behera geratuko da.
Kultura etxean, 09:00etan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ELGETA Panpina egiteko tailerra

Sanjuanetarako panpina egiteko.
Gaztelekuan, 17:00etan.

OÑATI Piano emanaldia

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleak.
Santa Anan, 18:00etan.

ARRASATE Piano emanaldia

Arrasate Musikaleko ikasleak.
Musika eskolan, 18:00etan.

ARRASATE 'Jam sesion'-a

Arrasate Musikaleko ikasleak.
Musika eskolan, 19:00etan.



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Zazpigarren alaba

Badaramatzat hiru urte Arabako hiriburuan lanean; bertako Ikastolan. Betidanik pentsatu izan dut euskalgintzak, ikastolek, zenbait alderdi politikok Gipuzkoako zentralitatetik ikusten dutela/dugula Euskal Herria eta horren araberrako planteamenduak egin eta garatzen ditugula. Lehen susmoa zena orain konstatazio bihurtu da, nire kasuan.

Euskal Herriak hainbat lurralde ditu eta Araba zazpigarrena da beste herrialdeetako euskaldunontzat. Nafarroak eta Ipar Euskal Herriak atxikimendu emozionala sortzen digute, Gipuzkoa da lurraldearen erdigunea eta Bizkaia indartsua. Eta Araba? Zazpigarren alaba.

Datorren igandean, ekainaren 16an, Araba Euskaraz ospatuko da. Sekulakoa da herrialde honetan euskarak eman duen jautzia eta demasa da Arabako euskaltzaleek erakusten duten militantzia. Araban euskaltzalea militante aktiboa da, eta atsedetik gabekoa. Horrelakoa da Araba Euskaraz antolatzen ari den pertsona taldearen jarrera eta kemena ere.

Gonbidapena lerro hauen bitartez; hurbildu Gasteizera igandean eta erakutsi zazpigarrena izanda ere kuttuna dela Araba guretzat.

BUKATZEKO



Alex Txikon, eguzki-labea garatu duten ikasleetako batzuekin. AMAIA TXINTXURRETA

Urrunera iristen omen da eguzkiak daukan indarra

Arrasate Institutuko DBHko hirugarren mailako ikasleek eguzki-labe batzuk sortu eta garatu dituzte ikasturtean zehar; Alex Txikonek bere espedizioetan erabili gura ditu labeok, eta, oraindik probak egiten dabilzan arren, "oso itxura polita" dutela dio

Eneko Azurmendi ARRASATE

Eguzki bitartez dabilzan labeak sortu eta garatu dituzte Arrasate institutuko DBHko hirugarren mailako ikasleek, eta Alex Txikon mendizalea institutuan egon da asteon. "2004an ikusi nuen lehen eguzki-labe bat. Tamaina handiko antena paraboliko moduko bat zen, eta pentsatu nuen zer izango ote zen.

Hurrengo egunean, ikusi nuen urez betetako pote bat zegoela, eta ura irakiten. Orduan konturatu nintzen eguzkiaren energia hor dagoela, eta ez dugula behar beste aprobetxatzen", azaldu du.

Momentu hauetan, ikasleek egindako bi labe ditu Txikonek, eta probak egiten ari dira horiek. Izan ere, proiektu bat

abiatu guran dabilza, Txikonek bere espedizioetan labeok erabili ahal izateko, eta, mendizalearen esanetan, "itxura polita" dauka. "Euskal Herrian ari gara proba horiek egiten, kozinatzen, eta abar. Labea 140 gradutan jartzen da, eta ura azkar batean irakiten da. Pakistanen kasuan, ia egunero ikusten dute eguzkia, eta han ez dute erregairik. Egur

gutxi, ikatza ere gutxi, eta ke-rosoa eta gasa oso garestiak dira. Beraz, hangoei ere asko lagunduko diete labe hauek", azaldu du lemoztarrak.

Hainbat herrialdetara

Horrez gain, dagoeneko labe hauetako batzuk martxan dituzte hainbat herrialdetan, gobernu kanpoko erakunde batzuen bitartez. "Helburua Afrikako umei eramatea zen. Azaldu ziguten ingurumenari laguntzeaz gain, hango herritarrei ere lagunduko lieketela labe hauek. Beraz, konturatu ginen esfortzu txiki batekin mundua apur bat aldatu genezakeela, eta dagoeneko Ugandara, Kongora edota Kenyara bidali ditugu labe batzuk. Argazki eta bideo batzuk bidali dizkigute handik, eta poz handia ematen digu jakiteak balio izan duela esfortzuak", azaldu dute ikasleek.

Proiektua ezagutarazteko hainbat ekintza egin dituzte herrian, eta datorren ikasturtean, jarraipena emango diotela aurreratu dute. Irakasleak ere gustura azaldu dira ikasleek erakutsitako inplikazioarekin.

Orotariko materiala

Eguzki-labe hauek egiteko, hainbat material erabili dute. "Plastiko gogor bat erabili dugu, ez zikintzeko asko, eta zikintzen bada, errazago garbitzeko. Bestalde, mylar papera erabili dugu, ispiluaren antzekoa dena, eta eguzki-orratza egiteko, egurra. Burdinazkoa da lapikoarentzako oinarria, eta hura babesteko bi bol erabili ditugu. Horrez gain, termometro bat ere bai, lapikoaren tenperatura zein den jakiteko", adierazi dute.

ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA

LOREA ARGARATE MUSIKARIA ETA TELEKOMUNIKAZIO INGENIARIA,
ANE ZABALAK ELKARRIZKETATUTA

EKAINAREN 14AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

JOSERRA SENPERENA PIANISTA ETA MUSIKAGILEA,
JONI UBEDAK ELKARRIZKETATUTA

EKAINAREN 18AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena
Zu hemen zaude.

